

# Goienkaria

2009ko irailaren 11 > Egubakoitza > IX. urtea > 388. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Ingurumenaren aldeko jarrera egokiak eragina dauka enpresako kostuen murrizketan"

Susana Torregarai  
Ingurumen gaietan aditua > 09



**G2a**

Tirri Tarra talde sinfonikoa bihar Bergaran > 37

**BERGARA**

Barazki, fruta eta gazta azoka bihar, San Martin jaian barruan > 19

**ANTZUOLA**

Urrirako zabaldu nahi du Udalak gimnasio berria > 30

**KIROLA**

Asteburuan hasiko dute erregional ohorezko liga ibarrekoek > 34-35

**EKONOMIA** > LEHEN SEKTOREA

## Baserriko produktuen aldeko ekimen berriak sortu dira

**KONPROMISOA** Bezeroarekin konpromisoan oinarritutako salmenta ekimenak arrakastaz hasi dira Debagoienean

**GARAIKOA** Baserriko garaian garaiko produktuak astero erosten ditu herritar talde batek; bi ekoizle daude

**OKELA** Txahal-okela ekologikoa zuzenean saltzen dute Aretxabaletako baserri baten, eta bezero finkoak dituzte > 02-03

**OSASUNA** > OHIKO GRIPEA

## Gripearen kontrako txertaketa, hastear

Astlehenean hasiko da ohiko gripe arruntaren kontrako kanpaina > 05

### Telazko 20.000 poltsa banatuko dituzte Ibai Arteko dendek Arrasaten

Bihar, zapatua, hasiko dira erosketak egiteko poltsa horiek banatzen. Gainera, bezeroak erosketak poltsa horrekin egiten duen aldiro, zozketa baterako txartelak jasoko ditu. Hala, Udalak zozketatuko dituen 20 erosketak karroetako bat eskuratu ahal izango dute.

Ekimen hori Merkataritza Berdea izeneko astearren barruan dago. Irailaren 12tik 19ra izango da eta plastikozko poltsak baztertu eta telazkoak erabiltzeko gonbita egingo dute dendariak aste horretan. > 16



BEZEROEI Juan Manuel Aspe, Zur-Lur jostailu dendakoa hasi da bezeroen artean telazko poltsak banatzen.

OIHANA ELORTZA

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-07  
Iritzia > 08  
Elkarrizketa > 09  
Gutunak > 10  
Herriak > 13-33  
Kirola > 34-36  
Kultura > 38-39  
Sailkatuak > 40  
Gazteak > 42  
Telebista-Irratia > 43  
Zerbitzuak > 44  
Berri-zakua > 44-45  
Eskelak > 45  
Non-zer > 46-47

### Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



**IKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
ONATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

**GOKI ERREFORMAK S.L.**  
OBRAK ETA PROIEKTUAK

- Teilatuk
- Fatxadak
- Barruko obrak



Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA  
Tel. 943 76 53 42 · Faxa 943 76 52 16  
bergara@gokierreformak.es / www.gokierreformak.net

EKONOMIA &gt; LEHEN SEKTOREA

# Baserritarrak eta herritarrak, landaren alde bat eginda

**EKIMEN BERRIAK** Merkatuaz haratago, salmenta zuzeneko bi ekimen arrakastatsu hasi dira Debagoienean

**KONTZIENTZIAZIOA** Herritarren kontzientzia eta konpromisoa ezinbestekoak ditu baserritarrak bere "egoera kritikotik" irteteko

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Debagoieneko landa sektorearekiko eta, oro har, hemengo ekoizleenganako eta euren produktuekiko kontzientzia indartuz doa herritar askorengan; hain zuzen ere, sektoreak hori gehien behar duen momentuan. Hala, Debagoieneko lurra ematen dituen produktuei irteera emateko modu berriak asmatu, edo daudenei beste bultzada bat ematen hasi dira bai baserritarrak, bai herritarrak eta baita udal batzuk ere.

Bi ekimen berri nabarmenak dira, eta haien berezitasuna da biak ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko konpromiso zuzenean oinarritzen direla. Alde batetik, Elkarheitzien Debagoieneko garapenerako hezkuntza taldeak martxan jarri du astero-astero baserriko produktuak hemengo baserritar bati erosteko konpromisoa ekimena. Taldeko Maitane Igartua kideak ematen digu azalpen gehiago: "Elikagaien krisiaren eta elikagai subiranotasunaren gainean hitzaldi batzuk antolatu genituen, eta Paul Nicholson etorri zen, besteak beste. Han jakin genuen horrelako ekimenak beste leku batzuetan egiten direla, modu arrakastatsuan: kontsumitzaile talde bat baserritar bati garaian garaiko produktuak erostera konprometitzen da, diru kuota baten truke. Hori egitea pentsatu genuen, eta Arrasateko Rakel Perez de Arenatza baserritarrarekin harremanetan jarri ginen. Uztailean hasi ginen eta oso pozik gaude. Bailara osoko 20 lagun gaude". Bigarren ekoizle bat ere martxan dago, eta izena emanda dauden edo emango dutenak atendituko ditu udazkenean hasita: Gaizka Olabarrieta, Angiozarko Zulueta baserrikoa. "Udaberriari hasi nintzen baratza prestatzen, eta dagoeneko gertu daukat ekoizteko. Baserria hartu nuen, han bizi izateko, bai-

**Hainbat herritako lagunek osatutako talde bat ekoizle gehiagoren bila dabil astero baserriko produktuak erosteko; bailarako bi baserritarrekin dabilta orain arte**

**Aretxabaletako Mendibitzu baserrian, ganadua modu ekologikoan hazi eta salmenta zuzena egiten diete aldez aurretik konpromisoa hartu duten bezeroei**

na gero aukera ikusi nuen baserriari lan egin eta horretatik bizi izateko ere", diosku berak.

Betiko azokan edo merkatuan erostetik pauso bat harantzago doa ekintza hori; izan ere, baserritarren baldintzen arabera kontsumitzera konprometitzen dira. Hala, produktu-otzara ez da beti berdina; lurraren arabera da, produktuak modu ekologikoan ekoizten dituztelako: "15 euro ordaintzen ditugu astean, eta orain, uda denez, badakigu hori baino gehiago balio duen otzara jasotzen gabiltzala; eta

gero, neguan, beharbada gutxiago jasoko dugula; horrela, baserritarrak dituen arrisku eta egoera berberak onartzen dituguk", dio Igartuak.

Askasibar baserriko Rakel Perez de Arenatza ere pozik dago, eta orain, ahal duen kontsumitzaile gehien hornitzen dihardu: "Ideia polita da. Ematen dudana hartzen dute eurek; orain, arrautzak sartzen hasiko naiz, eta barazkiez gain, ematen diet jogurta, gazta, ogia, esnea...".

Elkarhezi taldearen telefonoa da 943 77 17 38, izena eman nahi dutenendako.

**"DENDAKOAREKIKO, ALDERIK EZ"**

Hori herritarrengandik sortu den ekimena da; baina ekoizleek eurek ere martxan jarritako inizatibak ere badaude, beharrak bultzatuta.

Hori da Aretxabaletako Arkarazo auzoko Mendibitzu baserriko ganaduzaleen kasua. Dagoeneko arrakasta polita du euren salmenta zuzeneko ekimenak. Gorka Lete ganaduzaleak esaten digunez, euren ekoizpen eta salmenta moduak goitik behera aldatu behar izan dituzte, halaber, "hemengo okela-saltzaileek ez dute eta hemengo okelarik gura izaten". Horrenbestez, abeltzaintza ekologikoa egiten hasi ziren, eta bezeroak euren kontura bilatzen. Martxoan hasi ziren, herriari kartelen bidez jakinaraziaz euren eskaintza. Txahala hiltzeko data jartzen dutenean, jakinarazi egiten dute, eta okela gura duenak deitu egin behar die eta erostera konprometitu. "Bost edo hamar kiloko paketeak egiten ditugu; bostekoa 65 eurotan saltzen dut, eta hor sartzen ditut xerrak, apartekoa, lehenengoa eta bigarrenengo kalitatekoak; txuletak; saiheskiak; gisatzeko okela; hezurra; eta okela pikatua, bakoitzetik 600 bat gramo. Jendea oso pozik dago, eta esaten digute dendan erosten



Baserriko produktuen otzara.

Askasibar baserriko Rakel eta Koldo, eta Zulueta baserriko Gaizka, baratzean.

duten okela baino askoz hobea dela, alderik ez dagola". Abeltzaintza ekologikoa egiten dutenez, horrek berme batzuk ematen ditu: "Txahala mugitu egin behar da, paseatzera eta irteten da; gainera, ezin diegu botikarik eman, dena homeopatikoa da; eta jaten duten guztia modu ekologikoan egin edo landutakoa izan behar da; zelaiari ere ezin diegu mineral kimikorik eta bota. Lehen egiten genuen baino askoz prozesu geldoagoa da; lehen, 9 hilabeterekin hiltzen genuen txahala, eta orain, 16-17 hilekin. Dena dela, merezi du, kalitatezko okela delako".

Txahala hiltzen duten bakoitzean badituzte 30 bat bezero, eta bost bat finakoak egin dira. Hilean txahal bat hiltzen dute, eta helburua da hilean bi hiltzea; horrez gain, potoka okela saltzen hasi gura dute 2010erako. Izena eman nahi duenak 615 78 72 27 telefono zenbakira deitu behar du.

**ASTOTXOAN ESNEA SALTZERA**

Udalen aldetik ere, sentsibilitate handiagoa ikusten da; adibidez, Arrasateko Udala hileko hirugarren zapatu guztietan antolatzen hasi zen baserritarren azoka maiatzean. Oraingoan, erantzun polita izaten dabil. Elgeta-



Marije Intxausti (EHNE), Ordiziako esne-makinaren inaugurazioan.

ARGAZKI PRESS

## "Arrasaten edo Bergaran ipin liteke"

Gero eta gehiago daude Euskal Herrian; orain azkeneko, Ordizian ipini dute. Esne freskoa, pasteurizatua, edozein momentutan erosteko aukera ematen du. Hori Debagoienean bideragarri izango litzateke? Bailaran bost esne-ekoizle daude. Deba-Garaia elkartereko Mari Karmen Iturbek dioenez, "makina bat hornitzeko adina esne ekoizten dute". Ekimena "ona izan daiteke hemen, baldin eta udalek kontrolatzen badute gertutasuna -esne-ekoizleak ingurukoak izan daitezela- eta, bestetik, non kokatu. Arrasate edo Bergara baten egin ahal izango litzateke, eta esne freskoa hartzeko ohitura berreskuratu ahalgo zitekeen".



ARGAZKIAK: UBANE MADERA

Mari Karmen Iturbe >  
Deba-Garaia elkarte

## "Nekazariak jakin behar du kontsumitzailea hor egongo dela"

L.K. > BERGARA

Aurten erreparatu du Deba-Garaia elkarteak 2007-2013 Landa Garapen Programa. Diagnostikoa egin dute, eta helburu eta estrategia batzuk markatu dituzte.

Zer diozu Arrasaten edo Aretxabaletan dauden ekimen berri horietaz?

Gure garapen programan markatutako helburuetako baten barruan daude: ekoizpen antolaketa eta salmenta eredu berriak bilatzea eta garatzea. Eraginkorra da, baina kontsumitzaileak oso sentsibilizatu egon behar du aurretik, ez bakarrik produktuarekiko, baizik eta baserritarrak bere bizimodua hortik ateratzen duenez, kontsumitzaileak adierazi behar diolako hor jarraituko duela.

Eta badugu kontzientziario maila hori debagoiendarrok?

Badago sentsibilitate bat eta, guk gehiago eragingo bagenu, jendea konturatuko litzateke baserritarra dela ingurumeneko eragile garrantzitsu bat. Izan ere, orain, baserritarren lanetik produktua bakarrik baloratzen da ekonomikoki, baina bailara osoko ingurumena bere egindako lanaren ondorioa da, eta denok gara onuradun.

Zeintzuk dira ibarreko landa ingurunearen arazo nagusiak, orain?

Lur falta; baserritarrak zailtasun ekonomikoak dituela baserria ogibidetzat hartzeko; gazteak ez direla behar adina sartzen sektorean; edo nekazaritzaren irudia ez dagoela prestigioatuta.



LEIRE KORTABARRÍA

ko Udalak ere egin nahi izan du zerbait gehiago herriko baserri-tarren alde, eta, azken urteotan bezala, hilaren 19an herriko baserri-tarren euren produktuak plaza-ara ateratzeko aukera izango dute. "Udalak erabaki zuen egun bat ipintzea herriko baserri-tarren euren produktuak erakusteko eta saltzeko, une horretan zeukatena. Udalaren aldetik, herriko baserri-tarren promozionatzeko modu bat da. Barazkiak, gazta, ezti... eramaten dute, eta dozena bat postu egoten dira. Hala, herritarrek produktua ikusi eta, beharbada, batzuek dendan erosi beharrean, baserri-tarrari erostea erabakiko dute", azaltzen du Udaleko Juan Ramon Irazabalek.

Atzean, oso atzean geratu dira debagoiendarrok zuzenean baserri-tarik erostea eguneroko kontutzat, normaltzat zituzten garaiak; baserri-tarrak etxerik etxe ibiltzen zirenekoak produktua saltzen. Bergarako 84 urteko Roxari Egurenak ondo gogoan ditu garai haiek, San Kristobal inguruko baserri-tarik egunero-egunero jaisten zen-eta astotxoan, Bergarako etxeetan esnea partitze-ra. "12 urterekin hasi nintzen, eta egunero-egunero jaisten nintzen,

eguraldi onarekin, txarrarekin... denarekin. Esnea marmita batzuetan ekartzen nuen. Litroa 80 zentimotan saltzen nuen. Orain ez dago horren ohiturarik, eta baserriak ere ez dira lehenengo modukoak", diosku.

### AHALEGIN GEHIAGO BEHAR DIRA

Ordukoaren eta oraingoaren arteko erdi bide bat, gutxienez, beharko luke Debagoieneko lehenengo sektoreak, bizi-irauteko. Deba-Garaiak, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak, erreparatu berri du 2007-2013 eperako Landa Garapen Programa, Debagoieneko landa eremua-

ren diagnostikoa egin eta garapenerako helburuak finkatzen dituen, eta ondorioa argia da: "Oso egoera kritikoa gaude. Debagoienean 1.300 bat baserri dira, eta hortik %2k bakarrik dute nekazaritza ogibide gisa, horretatik bizi izateko. Gainera, zahartzen doaz, eta oso gazte gutxi sartzen dira sektorean". Iturberen esanetan, "udalek egin dituzte ahaleginak, eta asko balio dute; baserri-tarrak jasotzen du errekonozimendu bat, eta baserri-tarrak bere jarduerari ogibidetzat har dezan, etekin ekonomikoa behar du, baina ez hori bakarrik. Ahaleginak oso garran-

tzitsuak dira, hortaz. Gehiago egingo balira, etekin handiagoa aterako litzateke, jakina".

Faktore gehiago ere badaude: "Merkatuak egiteko ematen dira erraztasun nahiko, baina produktuak ekoizteko, eraldatzeko... dagoen araudia egokitu egin beharko litzateke; neurri txikiagoan egindako arautegia beharko litzateke. Austrian, Frantzia edo Nafarroan ekoizle txiki bati eskatzen zaiona desberdina da, baina arautegia berbera da. Hori aldatzea udalen esku ez dago, baina bai Jaurlaritzaren esku".

Hemendik 10-15 bat urtera Debagoieneko landa ingurunea baserri-tarrendako eta baita jendarte osoaren onerako, horixe definitzen du Deba-Garaiak etorkizunerko plangintzak: "Nortasuna eta errekonozimendua izango luke; lurra mantenduko lukeena, ez bakarrik beste jarduerari batzuetarako potentzial gisa; berau izatea gure ogibide ere; bertako produktuek balorazioa eta ordainketa izan dezatela; eta, ahal bada, dirulaguntza barik bizi izatea", laburtzen du Mari Karmen Iturbek. "Landa inguruneak eskualdearen arnasleku eta bizileku izaten jarrai dezan, beste neurri batzuk hartu behar dira".

DATUA

26

BASERRITAR

Bailaran 1.300 baserri daude, eta horien %2k (26) dute ogibidetzat; %98k baserria kanpoko ogibidetzat du. "Gainbeheraren adierazle bada ere, portzentajea potentzial baten adierazle ere bada", dio Deba-Garaiak.

DATUA

5

ESNE-EKOIZLE

Deba-Garaia Landa Garapenerako Elkartearen datuen arabera, bailarako bost baserri-tarrek soilik ekoizten dute esnea. Gutxi izan arren, nahikoa izango litzateke, adibidez, esne-makina bat hornitzeko.

  
**IparProject**  
www.iparproject.com

Etxebizitzaren ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak  
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa



Telleria 23, D5 pabilioia Labegarieta Industrialdea BERGARA Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44

# Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

### Iraileko zozketa

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**

Tel.: 943 08 10 50

[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Kuota: 20 euro

ZIRA




Bidali AG ZIRA  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



AQUARIUM-ERAKO BI SARRERA



Bidali AG AQUARIUM  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUAK



Bidali AG LIBURUAK  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



PENDRIVE BAT



Bidali AG PENDRIVE  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA  
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG N011**  
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.  
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).  
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).  
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.  
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.  
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.  
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



- Partikular eta enpresei laguntza teknikoak
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Amillaga 32 • 943 76 59 60  
(auto garbigailu ondoan)

**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)



Idoia Mendia, Markel Olano, Lourdes Idoiaga eta Rafaela Romero Oñatzeko aurrekua ikusten.

MIREIA BIKUÑA

OSPAKIZUNA > ARANTZAZUKO AMA BIRJINAREN EGUNA

## Fededunak eta ordezkari politikoak Arantzazun

Udaleko ordezkariekin Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak egon ziren

MIREIA BIKUÑA > ARANTZAZU

Irailaren 9a egun handia da Arantzazun. Egun seinatua da oñatarrindako eta gipuzkoarrendako. Horren lekuko dira eguaztenean Arantzazun bildutako ehunka fededun. Era berean, ospakizunean parte hartu zuten hainbat ordezkari politikok; besteak beste, Oñatiko udalbatzako hainbat kide, Lourdes Idoiaga alkatea buru; Gipuzkoako ahal-dun nagusi Markel Olano; Batzar Nagusietako presidente Rafaela Romero; eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Idoia Mendia. Aurrekua dantzatu zuten Oñatz taldeko dantzariak Oñatiko Udal Txistularien laguntzarekin.

**OÑATIKO ERROMESAK**

Ordezkari politikoak Arantzazura heldu zirenerako, ehunka

fededun zeuden han. Batzuk autoz igo ziren, beste batzuk autobusez, eta gehienak oinez.

Goizeko zazpitan irten ziren Oñatiko erromesak parrokia aurrealdetik. 500 bat lagunek hartu zuten Arantzazurako bidea. 08:00etan Zapatan bat egin zuten

gainontzeko erromesekin eta frantziskotarrekin. Handik aurrera bidea oitotzean egin zuten.

**PRESOEN SENIDEAK**

Presoen senideek euren aldarrikapenak egin zituzten Arantzazun. *Euskal presoak Euskal Herrira* zioten pankartak erabili zituzten. Ordezkari politikoak euren aurretik pasa zirenean aldarrikapenak oihukatu zituzten senideek.

GOTZAINAREN HOMILIA

### "Krisian neurritz bizi eta eskuzabal izan"

Juan Mari Uriarte gotzainak esan zuen meza nagusia Arantzazuko basilikan. Homilian, kristau bokazioa eta bokazio horrekin berarekin dakarrena izan zituen hizpide. Dena den, krisiari erreferentzia egin zion: "Krisi ekonomikoan neurritz bizi eta eskuzabal izan gaitetzen; besteak beste, politika gaitan bakea eta adiskidetzea bilatuz; giza eskubide guztiak betez eta exijituz; herritar ahulenak defendituz; gizatasuna murriztuz; eta sasi-balioak salatuz". Gainera, Ama Birjinari eskatu zion "fedearen eta gizartearen onerako sortzen ari diren ekintza guztiak bide onetik joan daitezela".



Lourdes Idoiaga  
Alkatea



Itziar Ugarte  
Erromesa



Markel Olano  
Ahal-dun nagusia



Juanita Jauregi  
Erromesa

"Oñatarrindako egun garrantzitsua da gaurkoa. Dena den, jende gutxiago etorri dela esango nuke; izan ere, Oñatiko enpresa gehienek lan egin dute. Ordezkari politikoak ere gurekin daude. Baina gaur ez da politikari buruz berba egiteko eguna".

"Ohituragatik etortzen naiz urtero Arantzazura. Etxean ikasitako ohitura da. Duela urte batzuk, akaso, beste arrazoi batzuk izango zituzten bederatz kilometroko ibilbidea egiteko. Dena den, goizean jende gutxiago ibili dela iruditzen zait".

"Egun handia da gipuzkoarrendako eta oñatarrindako. Fededunak eta erromesak dira inportanteak, baina politikariok ez dugu hutsik egin. Niri asko gustatzen zait egun honetan Arantzazura etortzea. Basilika beteta egon da meza nagusian".

"Legorretatik gatoz; baina Tolosako erretiratuen elkarteak antolatutako autobusean etorri gara. Fededunak gara eta horrek bultzatzen gaitu Arantzazura etortzera. Mezan parte hartuko dugu, eta ondoren Itziarren bazkaldu eta Zarautzera joango gara".

KOOPERATIBAK > AUZO LAGUN

## Auzo Lagunek azaroan egin nahi du urteurren ekitaldia

Maiatzean omenaldia egin zieten sortzaileei eta urtea bukatu baino lehen, 40 urteon gaineko liburua eta bideoa aurkeztuko ditu

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Auzo Lagun kooperatibak ia gertu dauka dena urtea bukatu aurretik 40. urteurrenako ekitaldi nagusia egiteko: kooperatibaren ibilbidea batzen duen liburua, hainbat dokumenturekin eta historiaren inguruko materialarekin, eta historia hori eta maiatzean sortzaileei egindako omenaldia batzen dituen grabaketa prestatzen dabilza, eta horiek ekitaldi baten banatuko dizkiete Auzo Laguneko kide eta kide ohiei.

Auzo Lagun 1969ko martxoaren 6an inskribatu zuten Kooperatiba Industrialen Erregistroan, eta hori da, beraz, bere sorrera-

data. Aurtengo maiatzaren 23an, Batzar Orokorra eta gero, sortzaileei omenaldia egin zieten, eta diaporama bat ere ikusi zuten. Orain, urteurrena borobiltzeko ekitaldia falta da. Auzo Laguneko Josefina Mujika ordezkariak dioenez, "baliteke azaroan zehar egitea, baina modu batera edo bestera, urtea bukatu baino lehen egingo dugu".

ETXETIK KANPOKO LANA

Ezkontzen ziren emakumeek, ezkontzerakoan, etxetik kanpo-

ko lanari uzten zioten, eta horiei irtenbide bat emateko asmoz sortu zuten Auzo Lagun, Arrasateko mugimendu kooperatibistaren barruan, eta Jose Maria Arizmendiarraren babes eta ekimena ere izan zuten. Sortzaile batzuk bazkide egin ziren, baina Mujikak argitzen du "lan handia egin zuten beste lagun asko eta bazkide ez zirenak" ere sortzaile izan zirela; une hartan, pertsona horiek beste nonbait zeuden enplegatuta.

LIDER EUSKAL HERRIAN

Ibilbide luze honetan, 1980ko hamarkada bereziki ona izan zuten; "ia 500 bazkide" izatera iritsi zen Auzo Lagun. Gaur egun, Hego Euskal Herrian eta Valentzian errestaurazio alorrean lider da Auzo Lagun, eta Estatuan bosgarren da. Egunero 120.000 otordu ematen ditu, eta aurtengo EAEtik kanpoko salmentak fakturazioaren %45 izango dira. Horrez gain, ISO 9001:2000, 14001:2004 eta Zilarrezko Q agiriak lortzen lehengo enpresa izan da.

DATUA

120.000

OTORDU

Egunero 120.000 otordu zerbitzatu ditu Auzo Laguneko Espainian, errestaurazio sektoreko bosgarren enpresa da, eta Hego Euskal Herrian eta Valentzian liderra da.

OSASUNA > GRIPEA

## Gomendioa egin dute gripe arruntaren aurka txertatzeko

### Txertoa hartzeko egutegia

HERRIA	EGUNA	LEKUA	ORDUA
ANTZUOLA	Martitzenak / Eguenak	Anbulatorioa	13:00-14:30 / 14:00-14:45
ARAMAIO	Astelehenetik egubakoitzera	Osasun etxea	09:00-13:00
ARETXABALETA	Astelehenetik egubakoitzera	Anbulatorioa	13:00-16:30
ARRASATE	Astelehenetik egubakoitzera	Anbulatorioa	09:00-19:30
	Irailak 17	San Andres (Alkatetza)	12:00-13:00
	Irailak 18	Abaroa (Zaharren egoitza)	12:00-13:00
	Irailak 21	Uribarri (Zaharren egoitza)	12:00-13:00
	Irailak 22	Santamaina (Zaharren egoi.)	12:00-13:00
	Irailak 23	Musakola (Zaharren egoi.)	12:00-13:00
BERGARA	Astelehenetik egubakoitzera	Anbulatorioa	10:00-17:00
	Irailak 22	Osintxu (Osasun zentroa)	13:30-14:30
	Irailak 29	Labegarieta (Kiroldegia)	13:00-14:30
ELGETA	Astelehenetik egubakoitzera	Anbulatorioa	09:00-13:00
ESKORATZA	Astelehenetik egubakoitzera	Anbulatorioa	Zehazteke
ONATI	Astelehenetik egubakoitzera	Anbulatorioa	10:00-16:30

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Gripe arruntaren aurkako txertaketa kanpaina irailaren 14tik urriaren 31ra arte izango da.

Gripen infekzio-gaitza izanik, edonork har dezake, eta, gehienetan larria ez bada ere, badira arrisku gehiago izan eta txertoa hartu behar dutenak: 65 urtetik gorakoak, diabetikoak edo biriketako, bihotzeko, gibelesko eta giltzurrunetako gaitz kronikodunak.

Txertoa jartzeko osasun etxera edo ambulatiora joan behar da txanda aurrez eskatuta.

Ibarreko ambulatorio gehienetan astelehenetik egubakoitzera hartu ahal izango da txertoa, baina Arrasaten eta Bergaran egun batzuk zehaztu dituzte zaharren egoitzetan edo auzo batzuetan txertatzeko.

Bestalde, etxean dauden ezinduek euren medikuarekin edo erizainarekin ipini beharko dute harremanetan txertoa etxean hartu ahal izateko.



Debagoieneko AEK-ko irakasleak.

GOIENKARIA

EUSKARA > AEK

## Matrikulazio epea zabalik dago AEK euskaltegietan

Antzezlanaren izango da irailaren 17an, AEKren 30 urteak ospatzen hasteko

koa da eta ikasleekin hurbileko harremana lantzen du metodologiari egokienekin", diote. Matrikulazio epea irail osoan dago zabalik, Garibai kaleko 14.ean (Grupo San Juanen).

ANTZERKIA KULTURATEN

AEKren 30. urteurrena ospatzeko, Debagoieneko euskaltegiak ere makina bat ekintza egingo ditu, eta lehen irailaren 17an izango da: Kulturaren Txapela buruan ta ibili munduan antzerkia izango da, 19:00etan, eta sarrera, doakoa. Aitzakia izango da 30 urteotan Debagoieneko AEKn ikasle, irakasle eta bultzatzaile aritutako guztiak elkartzea.

L.K. > ARRASATE

Nazio aurkezpena egin eta gero, Debagoieneko AEK euskaltegiak ere matrikulazio kanpainaren berri eman nahi izan du; ikasturte berezia izango da, 30 urteko historia berretsiko du eta. Aurtengo, *Batzuetan, biderik laburrena da onena, AEK... garena ikasteko* da leloa. "Euskal Herri osoan barreiatuta dituen euskaltegiengatik AEK gertu-

JENDARTEA > PROTESTA

## AHTko lanak salatu dituzte bailaran, Udako Martxan

L.K. > BERGARA

AHTren aurkako I. Udako Martxak Debagoiena zeharkatu du. Joan den domekan sartu zen Aramaiora, Urbinatik; hango lanak ikusi zituzten. Eskoriatzako Marin auzoan AHT zelandaan ere ikusi zuten.

Aramaiotik Arrasatera iritsi zen martxa, eta han eman zuten gaua. Astelehenean, Bergara-Angiozar tramua egin zuten. Bergaran, kalejira, baz-

karia eta kontzertua izan zituzten eta Angiozar bailarara txangoa egin zuten. Biharamunean, Elorriora jo zuten.

JARRAIPENA

Martxan parte hartzen diharduen Hilario Manzanedok jakinarazi du lehenengo egunetik helikoptero bat izan dutela gainean euren ibilbidea jarraituz; bestalde, Ertzaintzak 17 lagun identifikatu zituen Gasteizen.

> HEZKUNTZA

## Gastronomia Zientzien Fakultatea egiteko milioi bat euro jaso ditu Basque Culinary Centerrek

Mondragon Unibertsitateak eta beste gizarte-eragile eta erakunde batzuek martxan jarritako Basque Culinary Center proiektuak milioi bat euro jasoko ditu Gipuzkoako Foru Aldunditik. Diru horrekin, Basque Culinary Center Fundazioak Gastronomia Zientzien Fakultatea eta bere Ikerketa eta Berrikuntza Zentroa martxan jarri beharko ditu. "Proiektuak nazioarteko erreferente bihurtuko du Euskal Autonomia Erkidegoa goi mailako sukaldaritzaren eta gastronomia zientzien munduan", dio MUK.

**UNED-Bergara**  
Urrutiko unibertsitatea baina etengabeko harremana

**HITZALDI INFORMATIBOA**  
Irailak 17, osteguna. 19etan Koldo Mitxelena Kulturunea Donostia  
■ Publiko orori irekia

- 30 Unibertsitate ikasketa baino gehiago
- Jarraipen pertsonalizatua eta eskaintza egokitua
- Europar eremura egokitutako titulazio berriak
- Doktoretza ikastaroak, graduondokoak, masterrak...

UNED-Bergara ■ San Martin Pl 4, 20570 Bergara ■ Tel 943 769 033 ■ info@bergara.uned.es ■ www.uned.es/ca-bergara



Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano eta Arrasateko alkate Ino Galparsoro Olandixoko tunelaren bi aldeen bategite ekitaldian izan ziren.

JULEN IRIONDO

AZPIEGITURAK &gt; ERREPIDEAK

## Sanjuanetarako amaitu gura dute mendebaleko saihsbidea

Astelehenean bukatu zuten Olandixoko tunela erabat zulatzen. Obrako arduradunen esanetan, lanak martxa onean doaz

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE**  
Irailaren 7an, bat egin zuten Arrasateko mendebaleko saihsbidearen Olandixoko tunelaren bi aldeek. Ekitaldian izan ziren Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano eta Arrasateko alkate Ino Galparsoro. Saihsbide berriak bi kilometro izango ditu, horietatik 860 metro lurpekoak.

### ZIRKULAZIOA TXIKITU

Saihsbideari esker nabarmen txikituko da zirkulazioa Arrasate erdialdean. Arrasate eta Aretxabaleta arteko bidegurutzetik ingurutik Uribarri auzora artekoa izango da errepide berria eta lanak amaitzean ez dute Arrasate erditik pasa beharrik izango, adibidez, Aramaioko bailarako lantegietara joaten diren ehunka lagunek. Gaur egun 11.000 ibilgailutik gora pasatzen da egunero San Andres auzo paretik.

Asteleheneko Olandixoko tunelaren zulatze ekitaldian Markel Olanok saihsbideak Debagoienarentzat dakarren onura nabarmendu du, kontuan izanda inguru hura dela "bailarako bizkarrezur ekonomikoa".

Obrako arduradunen esanetan, lanak oso ondo doaz eta zatiarik delikatuena, tunela zulatzea, amaitu dute. Saihsbidea amaitzeko hasieran ipinitako 24 hilabete epea betetzeko martxa onean ei doaz, eta espero dute 2010eko sanjuanetarako amaitzea.

Ino Galparsororen ustez, "obra-aren amaiera gertu egotea poztekoa da, baina ideia noizkoa den eta herriak ze behar dituen ikusita, aspaldi behar zuen eginda".

Tunelaz gain, bi biribilgunek eta Aramaio erreka gaineko zubiak osatuko dute egitura nagusia.

DATUA

# 40

MILIOI EURO

Saihsbidearen egitura tunelak, Aramaio ibai gaineko zubiak eta bi biribilgunek osatuko dute; 40 milioi eurotik gorakoa da obraren kostua.

ESANAK

**"Saihsbidearen ideia noizkoa den eta herriak zein behar duen ikusita, aspaldi behar zuen eginda"**

Ino Galparsoro > Arrasateko alkatea

&gt; HEZKUNTZA

### Hitzaldi informatiboa egingo du Donostian UNED-Bergarak

UNED-Bergarak ikasturte honetan eskainiko dituen 28 tituluetatik 13 goi mailako ikasketetako Europako hezkuntza espazio berrira egokitu ditu. Hori dela eta, hitzaldia antolatu du hezkuntza eskaintzaren eta ikasketa plan berriaren gaineko informazioa emateko. Hitzaldia irailaren 17an izango da, 19:00etan, Koldo Mitxelena Kulturunean.

&gt; AISIALDIA

### Begirale ikastaroa Txatxilipurdiren eta Jardunen eskutik

Txatxilipurdi eta Jardun elkarteek aisialdiko begirale ikastaroa antolatu dute eta titulua Eusko Jaurlaritzak homologatua izango da. Urrian hastea da asmoa eta maiztasuna eta iraupena ikasleek adostuko dute. Praktikak egiteko aukera egongo da, Txatxilipurdi eta Jardunen. Harremanetarako jo Txatxilipurdi (943 79 54 46) edo Jardun elkartera (943 76 08 19).

&gt; ZERBITZUAK

### Autobus zerbitzu berezia jarriko dute San Martin jaietarako

Bergarako Udalak hilaren 12ko gauerako autobus zerbitzu berezia ipini du. Antzuolan 00:00etan irten eta 06:00etara artean orduko izango dira. Bergarara hamar minutuan iritsiko dira eta Elgetara 25ean. Elgetatik lehena 00:30ean irten eta orduko (04:30ean izan ezik), ordu laurdenean Bergarara iritsiko dira eta Antzuolara hamar minutuan (03:45ean eta 06:45ean izan ezik).

HISTORIA &gt; 1937KO GERRA

## Hasi dira Intxortan gerra garaiko lubakiak txukuntzen

Garbiketa lanok amaitutakoan gerra garaiko aztarnen bila hasiko dira

I. A. &gt; ELGETA

Intxorta inguruan Espainiako gerraren gainean egingo duten ibilbide tematikorako lanekin hasi dira. Lubaki eta gordeleku izan zirenak txukuntzen jardun dute hainbat boluntario elgetarrek eta Arantzadiko kideek. Lanok amaitutakoan gerra garaiko aztarnen bila hasiko dira.

### BOLUNTARIOEI ESKERRAK

Ibilbidea lau pabost kilometrokoa izango da eta informazio panelak ipiniko dituzte. Oraingoz, ordea, lubakiak garbitu eta asmoa da bala-zorroak, lehergailu hondarrak... aurkitzea. Hala ere, ez omen da lan erraza izango, planoek ez dituztelako zehaztasunak jasotzen, eta lekukotasun asko ere ez direlako argiak.

Xabier Gabiñak, Elgetako Udaleko Kirol, Kultura eta Turismo teknikariak boluntarioei eskerrak eman nahi dizkie, eta aurrerantzean ere boluntarioen beharra izango dela gehitu du.



Arantzadiko kideak eta Elgetako boluntarioak, Intxorta inguruan lanean.

JULEN IRIONDO



Hartzaile berriak -telebistak eta deskodetzaileak- salgai RTV Santos dendan, Bergaran.

LEIRE KORTABARRIA

IKUS-ENTZUNEZKOAK > LURREKO TELEBISTA DIGITALA

# Urte eta erdi izango du GOITBk bere seinalea LTDra egokitzeke

Egunotan sinatuko du Eusko Jaurlaritzarekin lotzen duen kontratua, formatu digitalean emititzeko jaso zuen lizentziaren ondorengokoa

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

GOITBk egunotan jasoko du Eusko Jaurlaritzak prestatutako kontratua, Debagoiengan Lurreko Telebista Digitalean (LTD) emititzeko jaso zuen lizentziaren hurrengo pausoa. Hori sinatu eta gero, urte eta erdiko epea izango du Lurreko Telebista Digital formatuan emititzen hasteko. Orain, Euskal Herriko gainerako tokiko telebistek bezala, azpiegiturak gertatzen hasi beharko du, eta hor beste prozesu bat irekiko da, izan ere, erakundeek ekarpen ekonomikoa egingo duten zain daude tokiko telebistak, azpiegituren "kostu itzela-ri" aurre egiteko, GOITBko programazio arduradunak, Oihane Agirrek dioen moduan.

Bitartean, behin betiko itzalaldi analogikoa gero eta gertuago dago. Espainiako Gobernuak abenduaren 31 jarri du mugata gisa Gipuzkoarako; orduan, emisio analogiko edo tradizional guztiak eten egin beharko dira Gipuzkoan. Hala ere, LTD errealitate bat da dagoeneko: Espainiako biztanleriaren %94,83ra ailegatzen zen seinalea 2009ko apirilerako.

Debagoiengan ere, lurreko telebista digitala ikusten da. Ez den-denean, baina bai etxe gehienetan. Kontuan hartu behar da itzalaldia modu progresiboan egiten dabilzala.

**GOL TV, ORDAINPEKO BAKARRA**

Hala ere, telebista digitalaren sareak korapiloz josia jarraitzen du, ikusleondako behintzat. Nahasmena areagotu egin da abuztuan Espainiako Gobernuak, urteaz, ordaindutako LTDren araua onartu zuenetik, Errege-Dekretu Lege baten bidez. Horren ondorioz, ordainpeko telebista digital kate bat eduki ahal izango dute Espainian diharduten operadoreek. Eta horren ondorio

ESKAINNTZA

**Zortzi plataformak 27 kate eskaintzen dituzte oraingoz**

Debagoiengan, kate hauek daude Lurreko Telebista Digitalean: ETB (ETB1, ETB2, ETB3 eta Canal Vasco, laster ETB4 izango dena); Television Española (TVE1, TVE2, Clan TV, Teledeporte eta Canal 24 horas); Antena 3 TV (Antena 3, Antena Neox eta Antena Nova); Telecinco (Telecinco, La Siete, FDF Telecinco eta Cinco Shop); Sogecable (Cuatro, CNN+, 40 Latino eta Canal Promo); La Sexta (La Sexta eta Gol TV); Net TV (Intereconomía TV eta Disney Channel); Veo (Veo TV, Set en Veo eta Tienda en Veo). Denak doakoak dira, Gol TV izan ezik.

begi bistakoagoa izan da Gol TV kateak LTDn emititzen hasi izana; irailaren 1etik aurrera, ordaindutakoa da. Hori da, oraingoz, ikusteko ordaindu behar den kate bakarra (14,90 euro hileko), baina zalantza piztu du orain arte hartzaile (telebista aparailu edo deskodetzaile) digitala erosi dute nongan, aparailuok balioko ote duten ordaindutako kateak ikusteko. Bada, ez; ordaindutako kateak hartzeko, bestelako hartzaile bat beharko da, edo daukaguna egokitu, garai baten Canal+ katearekin gertatu zen moduan.

Jendeak deskodetzaileak erosten jarraitzen du; 40-50 euro ingurutan daude. "Telebistak baino gehiago, deskodetzaileak saltzen dira; oraindik tubozko (betiko) telebista asko dago", esaten du Bergarako RTV Santos-eko Santos Morenok. Hartzailea instalatu aurretik, bi gauza egin behar dira: zonaldera seinalea ailegatzen den begiratu, eta antena, bakarkakoa edo kolektiboa, egokitu.

**KABLEA, HEDATUEN**

Debagoienak badu berezitasun bat: airezko seinalea baino hedatuago dago kablea. Hori, batik bat, Euskaltelen bidez jasotzen da bailaran. Euskaltelen arabera, EAEko etxeen %40 eta Arrasate inguruko %50 dira bere bezero. Kableak eskaintzen duena ez da, berez, LTD -hori airez hedatzen delako-, baina Euskaltelek ematen du kate horiek kablez jasotzeko aukera; GOITB ere bai. Zenbat kate hartzen den bezeroak erosten duen paketearen arabera da.

etxeko leihotik



Monika Belastegi > 'mbelastegi@goiena.com'

## A gripeaz AEBetan kontagiatuko bagina...

A gripearen gaiari denbora luzea eskaini diote komunikabideek udan. Gehiegi, hainbat medikuren ustez, gaia dagokion seriotasunez tratatu ez, eta alarma sorrarazi dutelako. Informazioa edonon eta formatu guztietan jaso dugu. Bada, aholkuak ere jaso ditugu eta gure osasunaz arduratzen direnek lasai egoteko esan digute eta txertoaren beharra izanez gero, guztiontzat helduko dela. Hala eta guztiz ere, frantsesak lasaiago egongo dira, pentsa lezake norbaitek, gobernuak erosi dituen 100 milioi dosiek.

Ameriketako Estatu Batuetan ez da gauza bera gertatzen. Hor dabil Obama jauna amerikar guztiendako osasun zerbitzu dohainekoa izateko ahaleginetan.

Benetan harrigarria iruditzen zait munduko estaturik boteretsuenean gaixorik jartzan bazara eta dirurik ez baldin badaukazu jai izatea. Harritzekoa benetan horren aurreratua dagoen gizarte batean funtsezko eta lehentasunezko zerbitzu bat jasotzeko eskubidea poltsikoan daukazunaren arabera izatea.

Obama presidenteak ez dakit lortuko duen bere helburua, baina AEBetako osasun zerbitzuaren funtzionamenduak zera erakusten du argi eta garbi: munduan barrena bere gizarte eredu hedatzen ari den estatuaren izara gordina.

**"Gure osasunaz arduratzen direnek lasai egoteko esan digute"**

**> Plastikozko poltsak gutxitzen joateko ekimena etxe handiena izan bada ere, denda txikiek ere eutsi diote. Arrasateko Ibai Arte elkarteko dendak telazkoak banatzen hasi dira. Erosleoi dagokigu telazko horiek erabiltzea.**

**> Kriaren eragina beste esparru batean nabaritu ahal izan dut oporren bueltan: haurtzaindegian. Ume gutxiago zegoela iruditu zitzaizkidan eta halaxe baieztatu zidaten. Herrian bat baino gehiago dago, eta behe-rakada orokorra ei da.**

> AUZITEGIAK

**Hogei urteko kartzela zigorra eskatzen dute bigonendako, Arlabanen taxilari bat jipoitzeagatik**

Gipuzkoako Fiskaltzak 20 urteko kartzela zigorra eskatu du 2007ko azaroaren 4ko gauean taxilari bati jipoia eman eta oso zauri larriak eragin izana leporatu dieten bi gizonendako. Alfonso G.H. eta Joaquin de la P.O. dira auzipetuak. Gau hartan klub batek Oñatira eramateko eskatu zioten Gasteizko taxilari bati, baina Arlabanen geldiarazi eta jipoia eman zioten.

> AUZITEGIAK

**Bi urte eta erdiko kartzela zigorra San Joxepeko harrobiko langileak aizkorarekin mehatxatzearen**

Arrasateko bizilagun bati bi urte eta erdiko kartzela zigorra ipini dio Donostiako epaitegi batek, San Josepe harrobiko langileak aizkora batekin mehatxatzeagatik. 2007ko abenduan izan ziren gertakizunak. Auzipetua San Josepeko baserri baten bizi zen, eta harrobiko langileak harekin arazoak izaten hasi ziren. Hainbat alditan, langileei eraso egin zien denetariko armekin. 2007ko uztailaren 4an, aizkorarekin mehatxatu zituen, hil egingo zituela esanez.



zabalik

Eneida Iturbe

## Publi-kaka

Lodiendako, argalendako, baikorrendako, ezkorrendako... eta orain baita ekologistendako. Coca Colak beti egin ditu iragarki deigarriak eta uda honetako ere halakoa izan da. Zure etxetik gertu badela zorientasun-fabrika bat gogorarazten dizu eta zure Coca Colaren ontzia edo etiketa begiratzeko gonbita luzatzen. Bertan Galdakao irakur badaiteke, zorianak, etxetik gertu botilaratutako produktua kontsumitzen ari zara. Aldiz, polonieraz idatzia badago, ez zaude garapen iraunkorraren bidean.

Baina publizitate kanpainak ez dira inoiz inuzenteak. Oraingoan Coca Colak garapen iraunkorraren alde egin badu ez egin duda planetaren onerako baino konpainia beraren onurarako arituko dela. Enpresaren interesak gizartearen ardurekin mozortu eta etikoa eta ekologikoa dela sinestarazi nahi digute. Baina kanpaina honen atzean interes ekonomikoak daude. Tabernak Coca Colak kanpotik ekartzen hasi dira, merkeago lortzen dituzte eta. Hor iragarkiak gertukotasuna eta bertako tabernak gozestearren arrazoia: gu erabili nahi gaituzte tabernei presioa egiteko.

Antzera gertatzen da Eroski eta Carrefourrekin. Zergatik erretiratu dituzte plastikozko poltsak orain eta ez duela 5, 10 edo 15 urte? Benetan kontzientzia ekologikoa daukatelako edo sos batzuk aurrezteko? Carrefour kanpaina agresiboa egiten dabil *Bolsa caca* lelopean. Orain arte eskukada poltsa erregalatu digute lau gauza erosita eta orain poltsa=kaka?

Kontsumitu ditzagun benetako bertako produktuak eta murriztu ditzagun erabilera bakarrek plastikozko poltsak, baina ez Coca Cola edo Carrefourrek diotelako, gure osasuna eta ingurua zaintzeko baizik!

**"Orain arte eskukada poltsa erregalatu digute lau gauza erosita eta orain poltsa=kaka?"**

usteak uste


Mirian Biteri

## Gorputza mugitzeko garaia

Aurtengo ikasturteari begira antolatutako kirol jardueretan izena emateko epea zabalik dago egunotan Debagoieneko herri gehienetan. Prestatu duten eskaintza zabala aztertu eta datozen hilabeteotan praktikatu dugun (edo ditugun) ekintzak aukeratzeko ordua da. Kirola egitea ez da bakarrik *bikini operazio*-ra mugatu behar. Gutxi bada ere, urtean zehar gorputza mugitzea komeni da; bakoitzak gura duen moduan: dantza egiten, futbola egiten edo yoga praktikatzeko.

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

## Atotxako lehen oroitzapena

Edu Mendibil  
www.goiena.net/blogak/edu

Realaren mendeurrenaren harira, gaur eguerdian, Herri Irratian, Atotxako beraien lehen oroitzapenari buruz jardun dute Iban Oiarzabalek, Joseba Urdangarinek eta Iñigo Chaurreauk. Tio Jesus zenak (dagoen lekutik sufrituko du bai, gaurko Realarekin) eraman ninduen lehen aldiz Atotxara, 1979ko urtarrilean, hamar urte nituela. Gabonak ziren eta horixe izan da inoiz jaso dudana oparirik onenetakoa. Ordura arte, irrati bidez Josean Alkortak egiten zituen erretransmisioei esker irudikatzen nuen Atotxa, eta sorpresa galanta izan zen, begiak zabalzabalik, lehen aldiz hura ikustea. Futbol zelaiko berde zoragarri hura, harmailak, puro usaina (tiorena tartean), horrenbeste jende harmailetan, bufanda eta bandera txuri-urdinak (non geratu dira?)... Realak 2-0 irabazi zion Bartzelonari egun hartan, eta bi golak Lopez Ufartek sartu

zituen, falta bidez. Hura zen gainera nire idoloa. Atotxako estreinaldia ezin hobea gertatu zen nire kasuan.

## Mezarik ez, zezenketak bai

Pello Urtzelai  
www.berria.info/blogak/pello

Patxi Lopez lehendakaria ez zen izan Azpeitian, oporretan zegoen, eta Isabel Zelaa kontseilaria bidali zuen. Oraingoan ere ez da izango Arantzazun. Jaurilaritzaren izenean Idoia Mendia joango da. Ez al ditu gogoko Patxi Lopezek ekitaldi erlijiosoak? Botere zibilaren eta Elizaren arteko bereizketa nabarmendu nahi ote du? (...)

Fededuna izan gabe, mezetan parte ez hartzea ulergarria izan daiteke. Protokoloak ez luke horrenbeste behartu beharko. Distantzia markatzea ondo legoke.

Dena den, zer egiten du zezenketa batean, Bilbon izan zen bezala? Ze zerga klase ari da ordaintzen bere presentziarekin animaliak gaizki tratatzen diren ikuskizun batean?

koplak

Julen Iriondo

## Realak 100 urte

Irailak zazpigarrena Realak mendeurrena 100 urteak Le(he)mengo Mailan ospatu ezina pena.

80ko hamarkada hura bai zela gozada joko bikaina, aurrean gola ta atean Arkonada.

Bi Liga eta bi Kopa ta gainera Superkopa garai horiek itzul daitezzen zeinek ez lioke opa?

Baina futbola gaur egun diru truke nola dugun Bartzelona ta Madril bakarrik izan daitezke txapeldun.

Zergatik ez amets egin denboraren joanarekin Vigora berriz joan gaitzek amaiera onarekin.

Horretarako aurrena egin ahalegin dena lenengo mailan ospa dezagun ehun eta batgarrena.

## Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea), **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Iñaxo Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetzako banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetzako banaketa** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetzako@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekarria

LAGUNTZAILEAK

Eusko  
JaurlaritzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiko  
UdalaAretxabaleto  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak**  
**diruz lagundutako aldizkaria**



Ingurumena babesteko neurriek enpresari ekar diezazkioketen onurei buruzko gogoeta egiteko jardunaldiak antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak. Datorren eguaztenean egingo dituzte Debagoieneko Mankomunitateak Arrasaten daukan egoitzan. ENEA Estrategias para la Sostenibilidad SL enpresako Susana Torregarai gidatuko ditu jardunaldiak.

Susana Torregarai > Ingurumen kontuetan aditua

# "Ingurumenarekiko jarrera egokiak eragina dauka kostuen murrizketan"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Ingurumen irizpideak denda txikietan eta tabernetan ezartzea merkea dela, onuragarria dela, balio erantsia ematen duela eta beharrezkoa dela dio Susana Torregarai ingurumenean adituak.

**Zergatik da onuragarria enpresaren kudeaketan ingurumen irizpideak ezartzea?**

Jendarteak eskatzen dituelako, gero eta gehiago, ingurumenarekiko jarrera arduratsuak. Horregatik, enpresaren kudeaketan ingurumen irizpideak ezartzeak enpresa horri emango dio irudi ona hiritarren eta bezeroen aurrean. Erakunde eta enpresa asko dabilta ildo honetan lanean eta aintzat hartzen dute euren hornitzaileek ze jarrera duten ingurumenarekiko.

**Kostuetan eraginik badauka?**

Ingurumenarekiko jarrera errespetagarria izateak esan nahi du optimizatzea baliabideak –energia, ura, materialak– eta erabiltzea prozesu geroago eta efizienteagoak. Horrek eragin zuzena dauka kostuen murrizketan.

**Enpresa txikiei, dendari, tabernari eta abarri ere onurak ekar dakizkieke?**

Onurak berdinak dira enpresa handiendako zein denda txikiendako. Ezberdintasun nagusia da enpresa handiek edo industrialek eragin handiagoa dutela ingurumenean. Horregatik, ingurumena babesteko neurriek kostu handiagoa izaten dute eta zailagoak dira ezartzeko. Bestalde, enpresa batzuk hasi dira erabiltzen publizitatean ingurumena zaintzeko egiten dituzten ekimenak, modu horretan konpetentziagatik bereiztea lortzen dutelako. Dendari txikiek eta ostalariek ingurumenarekiko jarrera egokiak erabiltzen dituzten neurrian erabili ahal izango dute errekurso hori bezeroa erakartzeko.

**Iraunkortasunaren kultura zabaldua dago hemengo enpresen artean?**

Lehenbizi, ingurumen eta garapen iraunkor kontzeptuak bereiztu behar dira genituzke. Garapen iraunkorra da egungo beharrak asetzen dituen etorkizuneko belaunaldien dohainak konprometitu barik. Horrek esan nahi du garapen ekonomikoak baliabideen erabilpen arrazoizkoaren bidetik etorri behar duela, ingurumena zainduz eta hiri-



Susana Torregarai, ENEA Estrategias para la Sostenibilidad SL enpresako bulegoan.

GOIENKARIA

ERRESPETUA

**"Jendarteak eskatzen ditu gero eta gehiago ingurumenarekiko jarrera arduratsuak"**

MERKEA

**"Jardunaldietan aurkeztuko ditugun proposamenak merkeak eta erraz ezartzekoak dira"**

INGURUMENA

**"Enpresak gero eta sentiberagoak dira gaiarekiko"**

**Eta onurak dirutan zenba daitezke?**

Ingurumen irizpideak ezartzeak dakarren onuren artean ekonomikoak daude. Hau oso agerikoa da enpresa txikietan oro har eta, bereziki, denda txikietan. Izan ere, asko gastatzeke eta praktika egokiak ezarrita, baliabideak eta dirua aurrez daitezke. Esaterako, gure ohiko lanparak kontsumo txikiko beste batzuekin ordezkatzeko baditugu, energia aurreztuko dugu eta dirua ere bai, elektrizitatearen fakturan. Jardunaldi hauetan, ariko gara uraren kontsumoaz, hondakinen kudeaketaz, horniketaren erosketak, biltegiatzeaz, e.a.

**Zelakoa izango litzateke enpresa iraunkor eredu edo ingurumen irizpideak garatuta daukan enpresa eredu?**

Eguneroko kudeaketan eta estrategietan, garapen ekonomikoarekin batera, ingurumenarekiko errespetua eta gizarte ongizatea bermatzen dituen.

**Ingurumen irizpideak oso zabaldua eta garatuta daukan hemengo enpresa baten izena aipatuko zenuke?**

Ingurumen ziurtagiriren bat daukaten, beren eguneroko kudeaketan ingurumen irizpideak ezarri dituzten eta bere ahalmenaren arabera ingurumen inpaktu txikitzeko neurriak ezarri dituen Debagoieneko 55 enpresetako edozein. Enpresa horien izenak kontsulta daitezke IHOBEn, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen erakundearen webgunean.

**Gero eta enpresa gehiago dira aholku eske zuengana hurbiltzen direnak?**

Bai: batetik, enpresak gero eta sentiberagoak dira gaiarekiko; bestetik, ingurumenarekin zerkusia duten legeak gero eta zorrotzago aplikatzen direlako eta, kasu askotan, enpresen bezeroak direlako eskatzen dietenak izatea ingurumenarekiko zorrotzagoak.

## 'Salamantica non presta'

Juan Carlos Bengoa Munduate  
(Eskoriatzako Hamaikabat)  
Eskoriatza

Uztailean GOIENKARIA bidalitako beste eskutitz batean, Huhezik Ikus-entzuzko ikasketak Aretxabale-tara eramatearekin, Eskoriatzako lurzoruan zituzten aukera urbanistikoen berrazterketa baten aukera argudiatzen nuen. Orduan hirigintza-ren alde teorikoan azaldu nuena gaur proposamen praktiko eta konkretu batekin adieraziko dut.

Eskoriatzako Udalak erabilera anitzeko aretoa egokitu nahi du lehengo zine zaharrean. Eskoriatzako Hamaikabaten kezka honakoa da: leku horretan azpiegitura berria nahiko motz ez ote den jaioko: etxebizitzetara adosatua, eszenatoki nahiko txikia, eserleku justu, etab.

Gure ustez, zine zaharra egokitzen behar den diru kopuru berdina eraikin berri baten inbertituko balitz, ekipamendu egokiagoa

edukiko luke herriak. Eta gaur egun Eskoriatzan horrelakorik hartu dezakeen lurzoru bakarretarikoa Mondragon Unibertsitatearena da.

Badiduri, eta hala azaldu zen komunikabideetan, Udalak Markel Olano diputatu nagusiarri proiektua erakutsitakoan, MU ere interesatuta dagoela horrelako azpiegitura bat herrian edukitzeko, eurentzako ere erabilgarria izango litzateke-lako.

MUK Aretxabaletan erosi behar duen eraikinak ez dio bakarrik gaurko beharrei erantzungo, aurrerantzean bertan ere handitzeko aukera izango du. Hortaz, Eskoriatzan dituen aukera urbanistikoak berraztertu daitezke. MURI ez diogu finantzatzeko laguntzarik eskatuko, baina gaur egun aparkalekua dagoen lur zati bat Udalarari saltzea posible da.

Areto berri horri, beste batzuen estilora, ostalaritza zerbitzu bat gehituz gero, azpiegituraren mantenu kostuak gutxitzen laguntzeaz aparte, inguruko biztanle, industrietako langile eta

MURI berari zerbitzu hori eskaintzeko moduan egongo litzateke (bide batez, Huhezik gaur egun ostalaritza zerbitzua emateko erabiltzen duen tokia beste zerbitzuetarako erabili ahal izango luke).

Arau Subsidiarioek ezin dute itxiak izan, momentuzko herriko beharretara egokitze-ko flexibilitatea eduki behar dute. Eskoriatzako Hamaikabatek hausnarketa sakonagoa egin behar dela uste du: MUK noiz burutuko duen ez dakigun hazkunde hipotetikoak ezin dezake baldintzatu Eskoriatzarako estrategikoa izan daitekeen aukera.

Hau guztia beste unibertsitate pribatu batekin gertatzen ari balitz, adibidez Universidad de Navarrarekin (Opus Deikoa), eskoriatzarron hausnarketa edo hausnarketarik eza berdina izango litzateke?

Honelako egoera batek ematen duen aukera ikusten ez badugu, beste unibertsitate bati buruzko esaera zaharra gogoratzea geratzen zait bakarrik: *Quod natura non da, Salamanca non praesta*. Hortaz, lagundu diezaiogun naturari.

## Rolling Stones

Iñigo Louvelli  
Aretxabaleta

Mundialak izan dira aurtengo Andramaixak, hitzaren esanahi osoan. Bai, munduan jarri dute Atxabalta, beno, akaso mundu osoan ez, baina Loquillok esan bezala *norte*-ko herri hau *sur*-eko kapitalen pare jarri dute Espainia handian. Bejondeizuela! Bazen garaia bateron batek ulerrarazi ziezaiogun herria kanpora begira egiten dela eta ez alderantziz, lokalismotan itoz. Egia da 8 milioi dirutza dela, baina merezi izan du, bai horixe! Horregatik bide horretan jarrai dezazuen animatu nahi zaituztet udaletxeko kultura arduradunak eta ideia batzuk eman, atrebentzia handiegia ez bada.

Datorren urterako Rolling Stones, AC/DC edota Bruce Springsteen bera ekar dezakezue. Bai, bai, badakit dirutza handia izan daitekeela, baina, lasai, horretarako, aurten egin duzunaren bide berean, Loramendi Euskara Elkarteari, Jaiki eta antzeko elkartetxoei dirulaguntzak kendu dizkiezuen bide berean alegia, agian, beste

elkarte batzuei dirulaguntzak kenduz (hor dituzue Atzegikoak, UDAkoak, Karnabaletako horiek, lau karroza egiteko!), edota beharbada kale garbiketarako hilean pare bat bider besterik eginez (jendeak igual zikintzen jarraituko baitu) aurreztu daitekeenaz... udal-tertxeko langileren bat kaleratuz gero ere (total, badira batzuk egiten duten lanerako soberan daudenak, ezta?) hortxe dirutxo eder bat aurreztuko zenukete. Eta, beno, musika talde horiek gehiegizkoak badira, Julio Iglesias batek edota Manolo Escobarrek berak ere ziurrenik autobuskadak hurbilaraziko lituzketela *norte* honetara, aurten bezala morboagatik ez bada ere. *Me va, me va, me va...*

## Krisia

Raul Peña  
Arrasate

Geroago eta langabe gehiago, enpresa gehiago kinka larrian, txiroago jendea... Eta politikoei zer? Enpresaburuei kritikatzeko, ados jarri ezinda, atentzioa desbideratu nahian presoen argazkiekin... Nazka!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefonoa:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com

# Berriz ere.

**GOIENKARIA da hedabide irakurriena Debagoiengan, berriz ere.**  
CIESen 2009ko lehen neurketak horixe dio.  
Zuk eta beste 36.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero.  
Gipuzkoa osoan, 44.000 lagunek.  
Eskerrik asko irakurleoi eta publizitatea jartzen duzuen guztioi.

GOIENKARIA: 36.000 irakurle

El Diario Vasco: 21.000 irakurle

Gara: 4.000 irakurle

Noticias de Gipuzkoa: 3.000 irakurle

Berria: 2.000 irakurle

El País: 2.000 irakurle

Marca: 1.000 irakurle

# Goienkaria

# OÑATIKO INSTITUTUAN LANBIDE HEZIKETA 2009-2010

**%100**  
DIRUZ  
LAGUNDUTA



## LANGILE ETA LANGABETUENTZAKO IKASTAROAK

EUSKAL HERRIKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN SISTEMARI LOTUTA (KATALOGO MODULARRA)

IKASTAROAK	ORDUAK	AURREIKUSITAKO DATA
<b>MEKANIZAZIOA</b>		
KROKIZAZIOA	40	2009 / 09 / 23
METROLOGIA – EGIATZAPEN DIMENTSIONALA	40	2009 / 09 / 30
5S PROGRAMA	16	2009 / 11 / 23
LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA	40	2009 / 10 / 19
TORNU KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA	80	2009 / 10 / 19
TORNO CNC PROGRAMAZIOA	50	2009 / 11 / 23
TORNO CNC MEKANIZAZIOA	50	2010 / 01 / 11
FRESATZEKO MAKINA KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA	80	2010 / 02 / 01
FRESA CNC PROGRAMAZIOA	50	2010 / 03 / 15
FRESA CNC MEKANIZAZIOA	46	2010 / 04 / 26
<b>MANTENUA ETA MUNTAIA ELEKTROMEKANIKOA</b>		
MANTENTZE MEKANIKOA	60	2010 / 02 / 01
MANTENTZE ELEKTRIKOA	80	2010 / 01 / 11
AUTOMATISMO NEUMATIKO ETA ELEKTRONEUMATIKOA	40	2010 / 02 / 01
<b>DISEINUA</b>		
CAD 2D - AUTOCAD	40	2010 / 01 / 11
CAD 3D - SOLID EDGE I - MOD. ETA PLANOAK	40	2010 / 02 / 01
CAD 3D - UNIGRAPHICS	40	2010 / 02 / 22
<b>SOLDADURA</b>		
SOLDADURA ELEKTRIKOA	55	2009 / 10 / 19
SOLDADURA MIG-MAG	50	2009 / 11 / 23
SOLDADURA TIG	50	2010 / 01 / 11
SOLDADURA OXIAZETILENIKOA	60	2010 / 02 / 08
<b>INFORMATIKA</b>		
MS WORD	20	2009 / 11 / 02
MS EXCEL	20	2009 / 12 / 09
MS ACCESS	20	2010 / 01 / 11
INTERNET ETA KORREO ELEKTRONIKOA	20	2010 / 02 / 08
<b>ENERGIA BERRIZTAGARRIAK</b>		
EGUZKI ENERGI FOTOBOLTAIKOA ETA TERMIKOA	40	2010 / 03 / 01

**zuazola-larraña**  
Oñatiko b.h. institutua



**IZENA  
EMATEKO  
EPEA  
ZABALIK**

**IZENA EMATEKO:**

**Oñatiko Institutua**  
Larrañako Lanbide Heziketa Egoitzan  
San Lorentzo auzoa z/g  
Tel.:943 78 21 50  
09:00-13:00 / 15:00-17:00  
[www.onati.net](http://www.onati.net)



**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

**...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!**

Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)

**Har ezazu parte!**



ZUHAITZ LARRAÑAGA



IDURRE AMOZARRAIN



OLAIA ZENGOTITABENGOA

## Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren 3a eta irailaren 17a bitartean.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK e-postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otolora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. BERGARA: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara. ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta edo Basabe poligonoa E-0-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.

- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAn eta *Goiena.net*-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 5ean jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute.
- Epaimahaia argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez balego, GOIENKARIAK aukeraketa egingo luke egokien irizten dituen irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

## Sariak



### 1. saria

- Olympus E-420 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- Live View AF sistemarekin
  - 10 milioi pixel.
  - Zuiko digital 14-42 mm-ko objektiboa.
  - Flash eta guzti.
  - 2,7 hazbeteko LCD pantaila atzealdean.



**2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaiak-en eskutik.

**3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:

 **kutxa**

Laguntzaileak:



**GURE AMETSA**  
JATETXEA

Arrasate Bidaiak  
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

**943 08 10 50**

Asteleheneetik egubakoitzera  
09:00etatik 18:00etara

# Herriak


Arrasate > 14-18 Bergara > 19-23 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27  
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



> **OÑATI**  
Zirkulazioaren noranzkoa aldatu egingo dute San Lorentzon > 27



> **ESKORIATZA**  
Mugikortasun Astea eta Erreka Eguna egingo dituzte > 29



> **ANTZUOLA**  
Eztala zelaia inauguratu eta partidua jokatu dute zapatuan > 30



> **ARAMAIO**  
Egin dituzte dagoeneko ATHren biaduktuaren zortzi zutabe > 32

ARRASATE > OSPAKIZUNA

## Poltsiko guztietarako moduko jaia izango da berriz ere Maritxu Kajoi

**GOIZTIAR** Arrasatearrak hasi dira eskaparateei begiratzen eta, batzuk, erosten ere

**BETIKOAK** Jantzi beltzak, emakume zein gizonendako, horiek dauzkate gehien dende

**KRISIA ZIRIKATU** Aurrekontu txikiarekin ere dotore-dotore irteteko modua izango da aurten

**UBANE MADERA/LEIRE KORTABARRIA**  
> ARRASATE

Ez krisiak, ez eta bolada berrien inposaketek, horiek ez dute Maritxu Kajoin zeresanik. Hori da ondorioa jantzi-denda, edertasun arloko komertzio eta jatetxe-etako arduradunei entzunda; izan ere, oraindik ia hilabete falta denean, eta iraileko aldapa betebetean pasatzen gabiltzanean, arrasatearrak hasi dira Maritxutarako prestatzen.

Ceciaga mertzeria eta jantzi-dendako eskaparateak Maritxu Kajoiako arropa eta osagarriak erakusten ditu iraileko lehen eguna ezker, "eta egunean bertan hasi ziren salmentak", diosku Rosarito Zeziaga ugazabak. Eskaparatean agertzen dira ez bakarrik betiko kolore beltzak, baizik eta morea eta berdea ere. Urdin iluna da aurtengo beste tonu bat. Hala ere, Rosarito Zeziagak dioskun moduan, "beltza da oraindik gehien saltzen dena". Moda ez ei da askorik aldatzen urtetik urtera: "Betiko moduan, soineko luzeak ekarri ditugu; askok gero Martens-ak ipintzen dituzte, eta eroso ibili behar dute. Horrez gain, distira handirik gabeko soinekoak dira, eta eskote aldetik, denetarik dago. Mahukarik gabeko soinekoak eramate dituzte, eta, eguraldiaren arabera, xala ere bai. Guante luzeak ere saltzen ditugu; hotz egiten badu, epeldu egiten dute".

**SOINEKOA, 10 EUROTİK AUERRERA**  
Gizonezkoendako, aukerarik ez dago: ekartzen duten modelo bakarra beltza da. Eta prezioa, trajeak adinako ederra: 110 euro praktikak, jaka, txalekoa eta gorbata;

alkandora zuria, 10 euro. "Oso traje ona da eta ezkontzetara-eta joateko ere erabiltzen dute; emakumeenak ere bai", dio Zeziagak.

Emakumezkoen kasuan ere, krisira egokitutako prezioak daude: "Guk saltzen dugun merkeena 25 eurokoa da, hori ere oso polita, eta garestiena, 85ekoa-edo".

Meher jantzi-dendako Tobias Fernandezek ere ahalmen -edo gogo- ekonomiko guztietarako moduko eskaintza dauka: "10 euroko soinekoak ere badauzkagu; baina saltzen ditugun gehienak 40-50 euro artekoak izaten dira". Haren esanetan, aurten indartsu datoz bolero edo jaka motzak emakumeendako, "eramateko xala baino errazagoak direlako".

Krisiaren eraginaz galdetuta, Fernandezek esaten du "iaz baino zertxobait jende gutxiago" dabilela, baina "oraindik oso goiz" dela, eta jendeak ondo begiratzen duela zertan gastatu erabaki



Klasikoak dira garaila: soineko beltza saltzen da gehien.

UBANE MADERA

aurretik: "Aurreko astean etorri zitzaizkigun gazte batzuk begiratzen, eta handik gutxira berriz etorri ziren, erostera. Jendeari gustatu egiten zaio begiratzea, konparatzea...".

**GASTUA EGITEKO GERTU**

Jantzi-dendez gain, ile-apaindegietan eta edertasun zentroetan ere igartzen hasi dira Maritxutako giroa. Amagara estetika zentroko Maite Agirrek dioskunez,

"poliki-poliki, jendea hasi da txanda hartzen, baina datorren asteetik aurrera igarriko dugu gehiago". Batez ere, emakumeak joaten dira, eta "solariuma, depilazioa, bekainak ukitu, betileak tindatu eta permanentea egin... hori eskatzen dute". Bestalde, "krisia igartzen" dela baina jaietarako jendeak gastu berezi hori egiteko gertu dagoela esaten digu Maite Agirrek.

Islada ile-apaindegiko Iratxe Zabalak ere igarri du "jendea inguratzen" hasi dela, baina oraindik ez dauka agenda beteta. "Beste urte batzuen antzera" dabilzala dio hark. Aurtengo joeretan ere, ezuste handirik ez, eta norberaren gustuek edo ezauzgarriek aginduko dute. Hori bai, "orrazkera apaindu egiten da, harritxoekin, zintekin... kolore pixka batekin", dio Zabalak.

Gizonezkoek dagokienez, "patillak apaintzen edo gomina pixka bat ematera" joaten dira ile-apaindegira; ahalik eta dotoreen irteteko eurak ere, jakina.

**GERO ETA GAZTEAGO**

Datu baten, ordea, bat datoz galdetutako merkatari guztiak: gero eta gazteago hasten dira neskak Maritxutarako apaintzen eta irteten. Hala, esaten dutenez, 17 edo 18 urteko gazteak dagoeneko badabilzta soinekoa erosten, makillatzen, orrazten... dotore-dotore prestatzen Maritxu Kajoi egun eta gaurako.



Rosarito Zeziaga, gizonezkoen trajea iragartzen duen kartela seinatzen.

U.M.

JATETXEAK

### Dagoeneko jangela erdia erreserbatuta daukate Arteaga jatetxeak

Arrasateko ostalaritza sektorea ere hasi da Maritxu Kajoiako prestatzen, eta jakina da urtero-urtero jatetxeren baten mahaia lortzea izaten dela askoren borroka. Garagartza auzoko Arteaga baserri-jatetxean dagoeneko "jangela erdia" hartuta daukate; 100 bat lagunendako jangela da. Ez da batere erreserba-kopuru txarra, beraz, iraileko bigarren astean gaudela kontuan hartuta. Arteagako ugazabak, Maider Larrañagak, esaten digunez: "Iaz krisia antzeman egin genuen; aurreko urteetan, bi aste lehenago, dena beteta zegoen, eta iaz ere bete egin genuen, baina justu-justu. Ea aurten zer gertatzen den". Hala ere, egun horretarako, ohiko hiru langileez gain, beste bi hartuko dituztela erabaki dute Arteagan. Menua 40 eurotan ematen dute, "dena barruan: hiru hasierako, arraina, okela, postrea, kopa, kafea, ardo ondua...".

Afari edo bazkariei dagokienez, "orain, erdi eta erdi" dutela esaten dute. Bazkaritarako joera handiagoa dago orain.

ERLIJIOA &gt; ARANTZAZURA ERROMESALDIA

# Gaur da Arantzazurako izenematearen azken eguna

Viajes Ecuadorren saltzen dituzte autobus txartelak; eguaztenerako dagoeneko 60 lagunek zuten erosita

**UBANE MADERA** > ARRASATE  
Etzi, domeka, dute hitzordua arrasatearrek Arantzazura erromesaldia egiteko.

Herritar asko oinez joango dira; beste asko, berriz, autobusez. Eta aurrera daitekeena da arrasatear asko elkartuko direla etzi; izan ere, eguaztenerako 60 lagunek izena emanda zuten autobusean joateko (09:00etan, Garibain).

Oinez joateko, berriz, Kontzezinon da hitzordua, 06:30ean. Ibilbidea honakoa da: Bedoña, Larrino, Urkulu, Urrexola eta Gesaltza. Han elkartuko dira autobusean edo auto partikularrean igo direnekin, batera egiteko bidearen azken zatia.

Arantzazura ailegatzean, zain izango dituzte frantzisko-tarrak harrera egiteko (11:00). 12:00etan, ohi bezala, meza nagusia entzungo dute.

#### UDAL ORDEZKARITZA

Erromesaldian Arrasateko Udaleko ordezkariak ere izango da; hori bai, Udal Gobernutik eta Aralar eta Alternatiba alderdietatik iragarri dute ez dutela parte hartuko, orokorrean, erakundeen "laizismoa" defendatzen dutelako.



Obenerrekako babes ofizialeko etxebizitzek hartu dituzte aurrenengo bizilagunak.

OIHANA ELORTZA

ETXEBIZITZAK &gt; GELMA-OBENERREKA PROMOZIOA

## Gelmako babes ofizialeko etxebizitzaren eskritura gehienak egin dituzte dagoeneko

Uztailean eskriturak sinatu zutenek urrirako etxebizitza berrian egon beharko dute, legez

**U.M.** > ARRASATE

Hil honetan, irailean, egingo dituzte Gelma-Obenerrekako babes ofizialeko etxebizitzaren eskritura gehienak; "astelehenerako 94 eginda izango ditugu; beraz, 94 horiek etxebizitza berrietan bizi izateko moduan izango dira. Bestalde, kontuan

hartuta 131 etxebizitza direla, urrirako guztien eskriturak egin da izango dira", jakinarazi dute Obenerreka enpresatik, etxebizitzok eraiki dituen enpresatik.

Zehaztu dute, baita ere, urtea bukatzerako bizilagun guztiak izango direla etxe berrietan; izan ere, "behin eskriturak sinatuta,

jabe berriek, asko jota, hiru hilabeteko epea dute etxebizitza berri-joateko, legeak hala agintzen duelako".

#### ZERRAJERA LASTER ADJUDIKATU

Bestalde, Jaurilaritzatik jakinarazi dute finkatu dutela Zerrajeran eraiki behar duten etxebizitzaren behin betiko kopurua: 356. "Bi bloketan: batean 216 eta bestean 140. Obra hori urtea bukatu baino lehen adjudikatuko dugu".

#### ZERBITZUAK

## Urrian entregatuko dituzte ortu publikoak

**U.M.** > ARRASATE

Garagartzako ortu ekologikoen zozketa eginda, urriko osoko bilkuraren onospena da ortuok erabiltzaile berriei entregatzeko azken pausoa. Hori baino lehen, baina, erabiltzaileek nekazaritza ekologikoen gaineko ikastaroa egin beharko dute. Biolurrek erakutsiko dizkie ortuak modu ekologikoan kudeatzeko oinarritzko jakintzak irailaren amaieran.

#### Zozketaren emaitza

1. Alvarez Villar, Angel\*
2. Ayastui Ugarte, Felix\*
3. Del Palacio Sanz, Elias\*
4. Mondragon Vicondo, Jose Mari\*
5. Pozo Lopez, Juan\*
6. Tena Dávila, Adolfo\*
7. Jauregi Txintxurreta, Lourdes
8. Rodriguez Martinez, Eneida
9. Garmendia Altuna, Maite
10. Lopez Losada, Amparo
11. Larrañaga Alberdi, Flora
12. Ibabe Ruiz de Zarate, Teresa
13. Pagoaga Amozarrain, Mariasun
14. Garcia Valle, Maria
15. Isasmendi Azpiazu, Marije
16. Sanchez Marco, Nati
17. Corcuera Landaluz, Naiara

18. Altuna Gutierrez, Nerea
19. Ugalde Mendieta, Agurtzane
20. Blazquez Errarte, Itziar
21. Baltzategi Juldain, Edurne
22. Benito Sanchez, Conrado
23. Talledo Zubillaga, Joseba Imanol
24. Hurtado Valor, Joaquin
25. Azpiazu Pinilla, Miguel Angel
26. Mena Gutierrez, Alberto
27. Tena Espada, Manuel
28. Kortabarria Rajado, Aritz
29. Altube Ibabe, Victor
30. Gallego Arias, Valeriano
31. Barberena Egorce, Xabier
32. Rodriguez Fernandez, Joaquin
33. Elices Vazquez, Francisco
34. Bergaretxe Leibar, Eneko
35. Bengoa Leibar, Fco. Javier
36. Izagirre San Seberino, Joseba
37. Fernandez Martin, Javier

38. Nespereira Elizburu, Eduardo
39. Vicente Martin, Eduardo
40. Gallardo Bolaños, Laureano
41. Quijano Salvador, Enrique
42. Bergaretxe Zubizarreta, J. Manuel
43. Mugika Zumeta, Iñaki
44. Almenar Gonzalez, Valentin
45. Gutierrez Cillaurren, Roberto
46. Etxebarria Elorza, Eugenio
47. Oiarbide Usabiaga, Iñaki
48. Carmona Eslava, Paco
49. Hurtado Picazo, Mikel
50. Mendizabal Lopez, Urtzi
51. Lopez de Munain Urrizalki, Garikoitz
52. Benito Garcia, Luis Mari
53. Lopez de Munain Ortubai, Aitzol
54. Martin Perz, Fabian
55. Azkarraga Ugalde, Iñigo
56. Conde Garcia, Julian
57. Iturbe Ormaetxea, Igor Txomin

58. Azkarate Garmendia, Juan Luis
59. Ugalde Madinabeitia, Jose Andres
60. Lamadrid Naverro, Iñaki
61. Kerejeta Barrutia, Juan
62. Fuente Garcia, Gregorio
63. Rodriguez Jorge, Oscar
64. Fernandez Escudero, Oskar
65. Iza Ripa, Tomas
66. Martinez Noguera, Felix
67. Ormaetxea Lasaga, Imanol
68. Errasti Elorza, Jesus Maria
69. Cuesta Saiz, Jose Antonio
70. Elortza Gorosabel, Anton
71. Etxebarria Retolaza, Iñaki
72. Revuelta Barona, Herminio
73. Korta Mendiguren, Iñaki
74. Rivas Barbero, Amador

\*Hauek badute ortua lehendik.

**EUROPAN SALMENTETAN 1.ak**

Mod: Style

**3.770 €**

Hozkailua, ontzi-garbigailua, labea, plaka eta kanpaia.

**zure poltsikora egokitzen gara.**

Muntatzea ez dago barne

Eraman ezazu originala kopia baten prezioan!

# ARITZ

## erreformak sukaldeak

Tel.: 943 03 78 73  
Zerrajera kalea 1 L-2  
20500 ARRASATE  
[www.kuchenworld.es](http://www.kuchenworld.es)

- Sukaldeen zaharberritzeak  
- Gremioen koordinazioa  
- Orma-armairuak, zoruak, atek eta leihoak.

TXATXILIPURDI > IKASTURTE HASIERA

# Txatxilipurdik egoitza berria estreinatuko du ikasturte berrian, Nafarroa etorbidean

Pablo Urangako egoitza zaharraren lanerako egoera eskasak eta leku faltak eraginda, Udalarengana jo zuen gaztetxoan aisiaz arduratzen den euskara elkarteak

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Aurrekoa ia amaitu barik hasi du Txatxilipurdik ikasturte berria. Eneko Barberena elkarte zuzendariak adierazi duenez, "hasi dugu gure maratonia". Ez zaio arrazoirik falta; izan ere, aurreko udalekuekin oraindik ere bueltaka dabilta -balorazioak, materiala kontatzea...- eta ikasturte berria gainean dute. Hala, datorren abuztura arte -udalekuak amaitu arte, hain zuzen- "jo eta fuego" ibiliko dira, Barberenak azaldu duenez.

2009/2010 ikasturteari begira, berrikuntza nagusia izango da Txatxilipurdik estreinatuko duen egoitza berria. Azken urteetan Udalarekin berbetan ibili dira egungo Pablo Urangako egoi-



Egoitza berria Udaltzaingoaren eraikinean izango du Txatxilipurdik.

J.B.

LUDOTEKAK ETA GAZTE TXOKOAK

## Irailaren 14tik 25era, ate irekiak ludoteketan

Txatxilipurdik eskaintzen dituen ludoteka zerbitzuek -Usaetxe, Okendo eta Santa Marina- ate irekien jardunaldiak eskainiko dituzte irailaren 14tik 25era, interesatuta egon daitezkeen gurasoei begira. Hortik aurrera, 3 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoek bertan jolastu, irteerak egin eta hainbat ekintza egiteko hamaika aukera izango dituzte, euskaraz. Horrez gain, irailaren 15ean, 16an eta 17an guraso bilerak egingo dituzte. Irailaren 15ean Usaetxeko ludotekan egingo dute bilera, irailaren 16an Okendoko ludotekan eta hilaren 17an, Santa Marina auzoko ikastetxeko ludotekan. Bilera guztiak 18:00etan izango dira.

tzaren inguruan. Barberenak adierazi duenez, egoitza zaharrak "ez ditu hainbat eta hainbat lan baldintza betetzen". Baldintza artean, "sekulako hotza" aipatu du Barberenak. Bestalde, azken urteetan Txatxilipurdi asko handitu dela eta, "lekuz oso oso larri" daudela adierazi du euskara elkarte zuzendariak.

DATA ZEHAZTU BARIK DAGO

Txatxilipurdiren egoitza berria Udaltzaingoa dagoen eraikin berean egongo da, lehengo Mankomunitatearen egoitzan, hain zuzen. Udaleko langileak ari dira azken lanak egiten eta Txatxilipurdikoek auzolan deialdia egingo dute, Barberenak jakinarazi duenez, "lekualdaketarako eta egoitza margotu eta atontzeko".

Hasierako asmoa ikasturtea egoitza berrian hastea zen, baina, Barberenaren esanetan, "filosofiaz hartzea erabaki dugu, baina ea ahalik eta azkarren pasatzen garen egoitza berrira". Hala ere, ez dute egoitza berriaren inauguraziorako datarik zehaztu. Izan ere, Txatxilipurdiko zuzendariak aurreratu duenez, egingo dute egoitza berria inauguratzeko ekitaldiren bat.

JAIK

## Uribarri-Erguingo jaiak, aste bukaeran

J.B. > ARRASATE

Gaur hasi eta domekara arte jaiak izango dira Uribarri-Erguin auzoan. Aurten, berrietasunez josita datorren egitarau zabala prestatu du Uribarri-Erguingo auzo alkatetzak. Haurrek izango dute protagonismo handien -puzgarri, jolasparke eta buruhandiak izango dira, besteak beste-, baina gazte zein helduendako izango da zer egin. Gazteendako, adibidez, rock kontzertua izango da gaur Munarko plazan (23:00): herriko Fight to Life, Muskaria eta La Madriguera taldeek joko dute.

AGERTOKIA, EZTABAIDA ITURRI

Astelehen goizean agertoki ederra jarri zuten Munarko plazan, gaur gaueko rock kontzerturako. Hainbat bizilagun, baina, kexu egin dira, izango ei den zarata dela eta. Antolatzailerak, bestalde, Munarko plaza Uribarri-Erguin auzo barruan kokatzen dute eta, Udaleko plaza obretan dagoenez, bizilagunei "jarrera ulerkorra" eskatu diete.

# Jone

triLINGUA da

## Zatoz triLINGUA Komunitatera!

Goazen **hiru hizkuntzatan** bizi eta komunikatzen den komunitatera!  
**Goazen Prestatuenean komunitatera!**

join us!  
únete!  
zatoz!

Zatoz MONDRAGON LINGUAra!

**MONDRAGON LINGUA metodoa**

Gure metodoak urteetako esperientziaren bermea du. Eraginkorrena da, ikasteko hiru bide optimizatzen baititu:

- Informatikako azken teknologiak.
- Klase presentzialak.
- Jarraipen pertsonalizatua.

**Balio erantsiko zerbitzuak**

- **Antezelan** interaktibo eta atseginak.
- **Linguamailak.** Ikaskuntza-pilulak ikaslearen posta elektronikoan.
- **Extranet: bertako edukietara on-line sarbidearekin.** Jarduerak, ariketak, intereseko estekak, bideoak, albisteak, hiztegiak, irakurketa, gaurkotatzen eta askoz gehiago.
- **"6 o'clock tea"** play school-eko haurrentzat.
- **Talde txikiak.**
- **Mediateka.** Mota guztietako materialak daude ikasleen esku: multimedia, bideoak, liburuak, entzuteko zintak, aldizkariak, etab.
- Eta, gainera, ditugun **lankidetzak akordio guztien** onurak dituzu: Arizmendi, Ser katea, FNAC, BOS, ARTIUM, Donostiako Orfeoia...

eta gainera...

- **Haurrentzako udalekuak**
- **Udako ikastaroak atzerrian**
- **Ikastaro trinkoak** uztailean eta irailean
- **Hitz egiteko** klaseak
- **Larunbatetan** klaseak
- **Skype bidezko** klaseak
- **Murgiltze klaseak** helduentzat
- **Itzulpen zerbitzua**

Cambridgeko azterketak

azterketak gure zerbitzuan bertan egiten dira. Prestatzeko klase bereziak Junior mailako ikasleentzat.

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ikaslea baldin bazara, **%25a arteko deskontua** izango duzu klase presentzialetan.

www.mondragonlingua.com

ARRASATE-MONDRAGON  
Avda. Alava, 4  
943 71 20 55

OÑATI-OÑATE  
Olakua, 14  
943 71 60 00

matrikula zabalik

QUALITY

ZERBITZUAK &gt; DENDARIEN ELKARTEAREN EKIMENAK

# Txartelarekin lortutako puntuaren katalogoa aterako du Ibai Artek

Urri, azaro eta abendu erostetan artean, 9.000 euro emango ditu

Merkataritzaz eta ingurumenaz hitzaldia dago eguaztenean dendariendako

OIHANA ELORTZA &gt; ARRASATE

Ibai Arte elkarteak katalogo bat banatuko du laster, elkarteko txartela erabiltzeagatik ematen dituzten puntuarekin lor daitezkeen opariak zeintzuk diren azaltzeko. Udazkenerako Ibai Artek prestatu duen ekimenetako bat da hori, baina ez da bakarrik. 9.000 euro arteko sariak, beste sari bat, bi lagunendako bidaia, eta hitzaldia ere antolatu ditu.

KATALOGOEA

Erosketak Ibai Artek txartelarekin ordainduz gero, puntuak

lortzen ditu bezeroak, eta puntu horiekin zer eskuratu ahal izango duen jasoko du urrian banatuko duten katalogoak. Opariak ez ezik, deskontuak egiteko txekak ere egongo direla aurreratu du Arantza Arantzabalek, Ibai Artek presidentea. Dagoeneko ia 3.500 lagunek dute Ibai Artek txartela, baina haiek ez ezik, gainerako herritarrek ere jaso ahal izango dute katalogoa.

9.000 EURO ARTEKO SARIAK

Bestalde, 9.000 euro arteko sariak ere banatuko dituzte Ibai Artek dendariak. Urrian, azaroan eta abenduan izango da hori. Erosketa elkarteko txartelarekin egiten den bakoitzean tokatu ahal izango zaio bezeroari saria: 10 euroko 400 sari, 20 euroko 150 eta 50 euroko 40 emango dituzte hiru hilabete horietan herriko dendariak. Erosketa egiten duenean, momentuan jakingo du bezeroak sari horietako bat tokatu zaion edo ez.

Bestalde, eguaztenean, irailak 16, Ingurumen Astea izango da Arrasaten, eta horrekin bat egin du Ibai Artek. Horrela, bihurtik



Horrelakoak banatuko dituzte. O.E.

hurrengo zapatura arte, Merkataritza Berdearen Astea egingo dute eta telazko poltsak banatuko dituzte bezeroen artean. Gainera, eguaztenerako jardunaldia antolatu dute dendariendako eurenendako: *Merkataritza, zerbitzuak eta ingurumena* izenekoak. Mankomunitatean izango da,

## Telazko 20.000 poltsa bezeroendako

Merkataritza Berdearen Astea egingo dute herriko dendariak bihar, irailak 12, hasi eta datorren zapatura arte, irailak 19. Egun horietan 20.000 poltsa banatuko dituzte Ibai Artek dendariak erosketak egitera joaten diren bezeroen artean. Gainera, egun horietan erosketak egiteko poltsa erabiltzen duten aldiro, bezeroek txartelak jasoko dituzte Udalak hilaren 22an egingo duen 20 erosketa karroen zozketarako. Plastikozko poltsak baztertzeko gonbidapena egiten du Ibai Artek.

20:20an. Herriko dendari guztien dako hitzaldia da. Susana Torregeraik emango du.

Esandako moduan, bestalde, bi lagunendako astebeteko bidaia zozketatuko dute. Irailean, urrian eta azaroan erosketak herriko dendetan egiten dituzten bezeroak sartuko dira zozketa horretan.

bere ustez



Eneko Barberena

## Azkenaldian isiltasun ozena dago nonahi

Isiltzen zarenean, nik entzun zaitzadan egiten duzu". Mikel Iburguren idazleari lapurto dizkiot hitzok, zutabearen gaia kokatzeko ezin hobeto etorriko zaizkidanak.

Igaro dira urte batzuk jada azken artikulua idatzi nuela Arrasate Pressen eta orduetik isilik egon naiz gehienbat medioetan.

Asko eskertzen diet luza-tu didaten gonbita Goienakoei. Ahaleginduko naiz ahalik eta hobetoen kunplitzen jarri zeregina.

**"Zoritxarrerako, isiltasun hau ez da gauzak ondo doazen baieztapen konplizea"**

Isiltasun erosoak eta deserosoak daude, askeak eta behartutakoak.

Azkenaldian norbanako eta jendartean isiltasun ozena dago nonahi, eremu ezberdin askotan eta munduko osoan. Ameriketako Estatu Batuetako jendartearen isiltasuna CIAren torturen aurrean, gurea Guatemala gosearen aurrean, Jon Antzaren desagertzearen inguruko Frantziar gobernuan...

Amaitzeko, Espido Freire idazleak Roberto Saviano idazlearen deklarazioen inguruan (ETA eta camorren arteko lotura) Euskal Herrian egon den isilpea salatu du.

Espido, haserretu ez zaitzen nik hitz egingo dut: ez nator bat zurekin.

ENPLEGUA &gt; 17 LANPOSTU PUBLIKO

## Astehenean udal lanpostuen emaitzak

Euskara proba egin eta emaitzak emango dituzte astehenean, martitzenean lanean hasteko

O.E. &gt; ARRASATE

Astehenean jakinaraziko dituzte 17 enplegu publikoetako emaitzak. Horren aurretik, baina, euskara proba egin beharko dute hautatzaileek, astehenean bertan. Behin emaitzak kaleratuta, martitzenean hasiko dira lanean lanpostua lortu duten herritarrek. Ohi duten moduan, Udala-

ren webgunean argitaratuko dituzte emaitzak eta Biztanleen Arreta Zerbitzuan ere egongo da ikusgai zerrenda.

200 LAGUN

Udalak 17 lanpostu betetzeko deialdia egin zuen ekainean, Arrasaten erroldatuta dauden langabeendako, eta 200 lagunek



Aurkeztutako lagunek martitzenean eman zituzten euren datuak Kulturatan. O.E.

eman zuten izena. Hautatze probak egin dituzte eguazteten egubakoitzera bitartean, eta euskara proba gainditzea bakarrik falta zaie emaitzak jakiteko. Uda-

lak bete beharreko lanpostuen artean daude: hiru peoi, pintorea argiketaria, lorezain laguntzailea, igeltseroa, basolangilea eta dokumentalista.

AKADEMIA

BASTIDA

## 2009/2010 Matrikula zabalik

Formakuntzan konpromisua eta kalitate bermea

**ENPRESENTZAKO %100ARTEKO BONIFIKAZIOA IKASTAROETAN. BESTE IKASTARO BATZUK INGELESA, GAZTE ETA NAGUSIENTZAT**



Araba Etorbidea 3 1, ARRASATE  
Tel.: 943 79 35 33 • Faxa: 943790628  
formakuntzamariasun@bastida.es;  
formakuntzabego@bastida.es  
www.bastida.es

- Informatika-arloa.
- Finantza-arloa.
- Ingenieritza-arloa
- Diseinua.
- Lagunza eskolak: DBH, Batxilergoa, enpresa ikasketak.

- Cambridge-eko azterketa ofizialeterako prestaketa
- Prezio bereziak gazteentzat.
- Harreta pertsonalizatuta, talde murriztuak.
- Aurre azterketa egingo da, ikaslearen maila egokia zein den jakiteko.
- Irakaslego oso kalifikatua.



> TRIO ZINDARE  
**'La vuelta' zirku ikuskizuna bihar Herriko Plazan**

Trio Zindare taldeak *La vuelta* zirku ikuskizuna eskainiko du bihar, zapatua, Herriko Plazan, 19:30ean.

Adin guztietako ikusleei zuzendutako ikuskizuna da *La vuelta*. Jauziak, akrobaziak, indarra eta elastikotasuna landuz eta umorea tartekatuz, ikusleak harriztea da helburua. Trio Zindareko kideek 20 urte inguruko ibilbidea dute atzetik. Besteak beste, *Boni y la familia Ramirez* da haien beste lan bat.

> PINTURA  
**Pintura ikastaroa Amaia Bengoarekin, ekainera arte**

Pintura ikastaroa antolatuko dute Kulturaten. Amaia Bengoa izango da irakaslea, lanean 17:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara. Izenematea (132 irailetik ekainera, hiru ordu asteen) irailaren 14tik 18ra, 17:00etatik 19:00etara, Kulturateko pintura gelan (sarreara Seber Altube plazatik). Plaza mugatuak. Haurren gutxieneko adina: 7 urte. Argibideak 943 25 20 25 telefonoan.



Momo eta beste izaki batzu diskoarekin dator Arrasatera Elurretan bikotea.

GOIENKARIA

**MUSIKA** > 'KULTURATE AKUSTIKOA'

## Kontzertu akustikoak gaur eta bihar Kulturateko aretoan

Elurretan bikotea gaur eta Garret Wall Band laukotea bihar Kulturaten, 20:00etan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA  
Elurretan bikoteak hasiera emango die gaur, egubakoitza, Kulturateko emanaldi akustikoari. Hitzordua 20:00etan eta sarreara doan izango da. Elurretan Ritxar Gomez (baxua eta koroak)

eta Mikel Aizpuruak (gitarrak eta ahotsa) osatzen dute. Sei urte daramate elkarrekin. Bi single eta lau disko grabatu dituzte dagoeneko, azkena *Momo eta beste izaki batzu* izenburukoa, 2008koa. Hasierako diskoetan

abesti nahiko malenkoniatsuak egiten bazituzten ere, azken diskoan umorea eta argitasuna azaltzen da nonahi, eta zuzeneko ere horrelakoa egiten dute, bizia eta dibertigarria. Jonathan Richman eta Oskorriekin konparatu izan dituzte hainbat adituk; beste batzuen ustez, Xabier Leteren umore beltza edo Laboaren *jolaserako* gogoia ageri da haien kantuetan. Zuzeneko gutxi egiten dituzte, kontzertu bakoitza berezia izan dadin. Esan bezala, Kulturaten izango dira gaur.

**GARRET WALL BAND ZAPATUAN**  
Bihar, ordu eta toki berean, Garret Wall Band taldeak emanaldia egingo du. Lau musikaririk osatzen dute taldea eta *Sky pointing* izenburuko diskoa daukate kalean. Hain zuzen, Garret, Howard, Robbie eta Dave ditugu Garret Wall Band. Hainbat taldetan ibili ondoren, 2006ko bukeran elkartu ziren. Gitarra, baxua, tronpetak eta kaxoi flamenkoa (bateriaren ordez) erabiltzen dituzte eta oso estilo berezia duen taldea da. Garret Wallen ahotsak Irlandako musika tradizioa ekartzen digu gogora. Amodioa, itxaropena edota galdutako ametsak islatzen dituzte euren abestietan.

**BESTE BI, HURRENGO ASTEAN**  
Saioa eta Mursego (hilaren 18an) eta Anni B. Sweet (hilaren 19an) izango dira iraileko beste bi hitzorduak. Emanaldi guztiak 20:00etan izango dira, doan.

# GURASO ESKOLA

0-16 URTE BITARTEKO SEME-ALABAK DITUZTEN GURASOENTZAT

Seme-alaben heziketa prozesuan sortzen zaizkizuen kezkak eta zailtasunak argitu, bideratu eta konpartitzeko.

Urria hasieran hasiko da, asteen behin ordu eta erdiko saio bat eginez, guztira 8 saio. Orduetgia gehiengoak aukeratutakoa izango da ( 14:45-16:15 edo 18:30-20:00).

**0-5 urte**



astearteetan

**6-11 urte**



asteazkenetan

**12-16 urte**



asteazkenetan

**EDUKIAK:** Familia eta heziketa ereduak · Adin tarte bakoitzeko ezaugarriak · Komunikazioa · Mugen beharra · Arauak ezartzeko eta hauek betearazteko estrategiak · Segurtasuna eta autonomiaren garapena sustatzea · Portaera arazoei nola aurre egin · Sexualitatea · Berdintasunean hezteak · Emozioen kudeaketan laguntzea · Lagunekin harremanak

**Izena ematea:**

Tel.: 943 25 20 07

e-posta: [prebentzio@arrasate-mondragon.org](mailto:prebentzio@arrasate-mondragon.org)

**Izena emateko azken eguna: irailak 25a baino lehen.**

**Ikastaroen lekua: Kulturate**



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Julen Zaitegi > Leioa futbol taldeko aurrelaria

# "Aretxabaletan gola egin eta jokoa moteldu genuen; eurek ere egingo dute"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Belauneko lesio bat dela-eta urtebete futboleko jokatu barik egin du Julen Zaitegik (Arrasate, 1985). Iazko denboraldi amaieran Mondrarenkin egin zituen lau partidu, "zelaian sentsazio onak hartzen hasteko", eta udan hirugarren mailako Leioa fitxatu zuen. Arrasatekoak hasierako hamaikakoan hasi du liga. Partidu bi eta gol bi, azkena domekan, Aretxabaletan.

**Domekan Ibarren protagonista izanda, aste gozoa izango zenuen.**

Bai, Aretxabaletari gola egiteagatik Arrasateko lagunak zoriondu egin naute, eta, liga zelari hasi den ikusita, pozik nago. Ea horrela jarraitzen dudana.

**Jardunaldi bi, bietan titular, eta gol bi. Denbora laburra behar izan duzu taldeko erreferentzietako bat bilakatzeko.**

Bai, nik ere ez nuen uste liga horren ondo hasi behar nuenik. Leioarekin denboraldi-aurrea egin eta taldean lekua neukala esan zidatenean nire lehenengo helburua ahalik eta partidu gehien jokatzeko zen. Zorionez hasieratik jokatu dut bi partiduetan, eta golak egiten nabil.

**Entrenatzailearen konfiantza hasieratik izateko, goitik behera aldatu da taldea ala lehenengo aurrelariak atzean geratu dira?**

Batetik, talde gaztea gara, eta aurten aldaketa asko izan dira, ia-ia goitik behera aldatu da taldea. Denboraldi-aurrean 45 jokalarik hasi ginen prestaketa lanetan eta entrenatzailea jokalaririk

baztertzen joan zen poliki-poliki. Belaunak ez zidan arazorik sortu eta denboraldi-aurre ona egin ahal izan nuen.

**Dagoeneko ahaztuta belauneko lesioa?**


Zelaira salto egiten dudanean bai, baina egia da sei hilabete baino ez daramatzadala ondo, berriki gertatutako zerbait dela eta oraindik ere gogoan dudala lesioa. Beldur horiek ere poliki-poliki gainditzen dira.

**Askotan esaten da esker txarreko kategoria dela hirugarren maila. Partidu asko, liga luzea, ekonomikoki nahiko mugatua...**

Bai, eta jokatzeko orduan ere igarri egiten da hirugarren maila dela. Gogor jokatzeko bertan, oso fisikoa da, eta ez dago baloia jokatzeko ibiltzeko astirik. Goiko kategorietan, maila handiagoa dagoelako-edo, errazagoa izaten da baloia jokatzeko. Hemen ez, hemen baloi luzeak eta borroka dago.

**Aretxabaletan txakur zahar izan zineten. Gola egin, eta zuendako amaitu zen partidua.**

Bai, bagenekien lehenengo gola egiten zuenak partidua irabazteko aukera asko zituela, kategoria honetan gol gutxi egiten direlako. Eta gola egin genuenean jokoa moteltzen ahalegindu ginen, faltak... Aretxabaletako zaleak haserretu egin ziren, baina eurak markagailuan aurreratzeko diren egunean ere berdin ibiliko dira, jakin egin behar dela partiduak horrela ere jokatzeko.



Julen Zaitegi, aste barruan, Arrasaten.

X.U.

**"Goiko kategorietan utzi egiten dizute baloia jokatzeko; hemen joko gogorra izaten da"**

**"Ez nuen uste liga horren ondo hasiko nuenik; niretako ere sorpresa izan da"**

**Askok uste zuten preferentean baino joko hobea ikusiko zutela. Eta azkarrago bai, baina joko hobirik ez zen izan.**

Ez, alde handiena fisikoa dagoelako. Azkarrago, gogorrago... hor dago aldea.

**Preferentera itzulita, zelan ikusten duzu aurten Mondra?**

Nik badut esperantza. Ustedut denboraldi polita egin eta goian ibiltzeko gauza direla.

## SASKIBALOIA

### Ointxe!-k Zaragozan jarraituko du prestaketa

Lagunarteko partiduak jokatzeko egingo dute bidaia klubeko talde guztiek

X.U. > ARRASATE

Aurrean daukaten denboraldia ahalik eta ondoen prestatzeko bidaia egingo dute Ointxe!-ko taldeek asteburuan. Asmoa da Zaragozako Helios eta Olivar taldeekin lagunarteko partiduak jokatzeko, baina, duda barik, egonaldiak balio izango du hainbat partidu jokatzeari batera klub osoko kideek esperientzia ederra bizi izateko.

#### ENTRENATZAILE BERRIEKIN

Aurtengo denboraldiari begira klubak hainbat entrenatzaile berri izango ditu, taldeko zuzendaritza teknikoa indartu egingo dutenak. Javi Zurbanok jarraituko du talde nagusia zuzentzen, baina bigarren probintzialeko talderako Juan Carlos Davila fitxatu du klubak.

Horrez gain, azken urteotan lehenengo taldeak egindako lorpenen erantzule den Gorka Zurututza klubera itzuli da, gaztetxoekin lan egitera, eta Mikel Arexolaleibak infantil mailako koordinazio lanak egingo ditu.

#### LEHEN TALDEAN ALDAKETAK

Lehenengo nazional mailako taldeak iazko helburu bera izango du, kategoriari eustea; eta, asko eskatzea ez bada, iaz baino gutxiago sufrituta.

Helburua ez da erraza, Aitor eta Imanol Zeziaga Cafes Aitonara joan direlako. Taldean izango dira, ordea, gazte maila atzean utziko duten Ander Atxa eta Andoni Arantzabal, Tabirakotik etorri den Mikel Anasagasti eta bigarren entrenatzaile lanetan ibiliko den Mikel Aldekoa arrasatearra.

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

BASATI  
TABERNA

943 711768

MEHER

**Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.**

Bañez doktorea 1  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 63 85

JAIK > SANMARTINAK

# Feria, txomingero bazkaria eta Tirri-Tarra bihar, San Martin jaiak hasteko

Azoka 10:00etan irekiko dute eta bazkarirako 120 lagunendako lekua egokituko dute Iralan

Etzi sokamuturra, puzgarriak eta kofradiaren kapitulua egongo dira

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bihar, zapatua, hasiko dira San Martin jaietako ekitaldiak. 10:00etan barazki, fruta eta gazta azoka irekiko dute. San Martin eta Munibe plazetan eta Seminarioan jarriko dituzte postuak. Lehiaketaren emaitzak, berriz, 13:30ean emango dituzte aditzera.

Bestalde, goizean barrena odolosteak dastatzeko aukera egongo da San Martin plazan, Luis Mari Rezola, Pello Urtzelai eta Jon Leturia harakinei esker. Horrekin batera, Bergarako trikitalariek herriko kaleak alaituko dituzte.

TXOMINGERO BAZKARIA

Aurten ere txomingero bazkaria egongo da. 120 lagunendako mahai eta bankuak egokituko ditu Udalak eta jatekoa eta eda-

tekoa norberak eraman beharko ditu. Domingo Irala kalean izango da, eta, euria eginez gero, Simon Arrietan. Bazkalondoa koadrilen arteko jolasak egongo dira, Jardun elkartearen eskutik.

UMEENDAKO EKITALDI UGARI

Ume eta gazteenendako ekitaldiek osatuko dute zapatu arratsaldea: 17:30ean gaztetxoendako zezentxo eta poneyak egongo dira Seminarioan eta ordu berean umeendako jolas eta tailerrak egingo dituzte Munibe plazan. 18:30ean, berriz, bonba japoniarrak egongo dira San Martin plazan.

19:00etan erraldoi, kiliki eta buruhandien konpartsak kalejira egingo du Udal Txistulari Bandak eta Elgoibarko dultzainariek lagunduta. 20:00etan erromeria egongo da Erdizka Lauetan taldearekin San Martin plazan eta 22:30ean, Tirri-Tarra fanfarreak *Argi-Beltz* izeneko ikuskizuna egingo du Bergarako Orfeoiairen eta Aritzeta abesbatzaren laguntzarekin. Horrez gain, 23:00etan Lord Witch, Hard Flip eta Turboshit taldeek kontzertua egingo dute.

Domekan sokamuturra egongo da 08:00etan. 09:00etan, ageriko 36. pintura lehiaketa eta 10:30-14:30 eta 16:00-20:00 ordutegian haur, gazte eta helduendako puzgarriak egongo dira Seminarioko patioan. 19:30ean, berriz, Arra-

sateko Lore Gazteak dantza taldeak emanaldia egingo du San Martin plazan. Domekan izango da baita ere Erreileno eta Tostoiaren Kofradiaren X. kapitulua.

NAGUSIEN DANBORRADA

Martitzenean, San Martin bezpera, nagusien danborrada egongo

da 22:30ean eta gero dantzaldia Joselu Anaiekin.

Eguaztenean, San Martin eguna, sokamuturra egongo da 08:00etan. 11:00etan errekortadore eskola ibiltaria Seminarioko jolaslekuan eta ordu berean San Martin guneko meza nagusia, San Pedron. 12:30ean, Udal Musi-

ka Bandaren kontzertua izango da San Martin plazan.

18:30ean haurren danborrada izango da eta 19:30-22:00 ordutegian Laiotz taldearekin dantzaldia San Martin plazan. 22:00etan jaurtiko dituzten suzko erruberek emango diete amaiera jaiari.



Surfa egiteko malda nagusiendako puzgarria da; labirintoa, guztiendako. GOIENKARIA

## Nagusiendako puzgarriak dira berrikuntzetako bat

Domekan bost puzgarri jarriko dituzte Seminarioan, 10:30-14:00 eta 16:00-20:00 ordutegian. Batzuk, gainera, haurrendako izan beharrean, nagusiendako dira. Slide surf eta rokodromoa dira nagusiendako, eta, oro har, 1,20 metro baino garaiagoak direnendako. Autobusa da 3-5 urte artekoendako; Olagarroa, 1-4 artekoendako; eta labirintoa, guztiendako (umeak lagunduta).



Bernaerts, Lazkano, Laskurain eta Muruamendi.

PEDRO GARITANO / GOIENKARIA

## Kultura arloko gizon-emakumeak, anaidi

Anne Bernaerts (*Zus* lagunendako) belgiarra, Jesus Mari Lazkano margolaria, Mikel Laskurain aktorea eta Edu Muruamendi dantzari eta koreografoa izendatuko ditu ohorezko kofrade aurten Erreileno eta Tostoiaren kofradiak. Lau pertsonaiek Bergara munduan barrena ezagutzera emateko egin duten lana azpimarratu nahi izan dute, haien ibilbide pertsonalarekin batera.

*Zus* Bernaerts 1958an etorri zen lehen aldiz gurera, 12 urterekin, eta ordutik urtero etorri izan da. Emmanuel Bernaerts Anberes hiriko alkate izandakoa zuen aita. Gizon horrek lan handia egin zuen gerrako umeak Belgikan hartzeko eta hain justu, hortik dator Bernaertstarren lotura Bergarekin: hemendik joandako gerrako umeekin eta haien laguntzaile Mari Oianguren irakaslearekin egindako harremana.

Jesus Mari Lazkano margolari eta irakaslea nazioartean egin da ezagun bere lanagatik. Edu Muruamendi dantzari eta koreografoak ere han eta hemen zabaldu du euskal dantza eta Mikel Laskurain aktoreak taulagainean zein telebistan lan handia egin du.

Etzi, domeka, egingo du kapitulua kofradiak; 10.a, gainera, 12:15etik aurrera, osoko bilkuren aretoan. Urtemuga ospatzeko, bestalde, Chirlaquek kofradiari idatzitako pieza estreinatuko dute, *Ospakizun preludea* deritzona. Estatuko 20 bat kofradiaren bisita espero dute.

**Ondo ibili San Martinetan!!!**

*Pol-Pol Taberna*

*27. Urteurrena*

**Eskerrik asko danoi**

**27 urte hauetan gurekin egoteagatik**

EUSKAL PRESOK

EUSKAL HERRIRA

JENDARTEA &gt; GERTAKARIAK

# Triskantzak egin dituzte igerilekuan

Eguaztenetik eguenera bitarteko gauean ezezagun batzuk sartu ziren kanpoko igerilekura, hainbat kalte eraginez

E.M. &gt; BERGARA

Ezezagun batzuek kalteak eragin zituzten eguazten gauean Agorrosinen, kanpoko igerilekuan. Joseba Albisu Agorrosingo gerentearen hitzetan, "badi-rudi gazte koadrila bat kanpoko igerilekuan gauaz ibili zela eta triskantzak egin dituztela eguaztenetik eguenera bitartean. Goizean, 10:00etan, igerilekua zabaltzerakoan hainbat kalterekin topo egin dugu". Hain zuzen ere, Albisuk emandako datuen arabera, zera aurkitu zuten sorosleek: zakar poltsa bat uretan hustuta; plastikozko

aulkiak eta mahai bat uretan; bi kaka uretan; eta plastikozko aulkiak apurtuta.

Egoera hauen aurrean ezarrita dauden garbiketa protokoloa martxan jarri zuten Agorrosingo langileek atzo goizean eta, bien bitartean, kanpoko igerilekua itxi egin zuten erabiltzailendako. Hala ere, berdegunea, barruko igerilekuak eta kanpoko aldagelak erabiltzeko moduan egon ziren. Gaur egu-bakoitza kanpoko igerilekua berriz zabaltzea zen asmoa.

## DATORREN ASTEAN, ITXITA

Bestalde, astelehenetik, hilaren 14tik 20ra bitartean itxita izango da Agorrosin Ekintza Gunea garbiketa lanak egiteko. Neguko ordutegiarekin irekiko dute hilaren 21ean: astelehenetik egu-bakoitzera 07:00etatik 22:00etara; zapatuetan 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta jai egunetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.



MONIKA BELASTEGI

## Kontserba ikastaro arrakastatsua

San Martin jaien bueltan Udalak antolatutako etxean kontserba egiteko ikastaroak sekulako arrakasta izan du. Bergarako zein inguruko herrieta-ko 75 lagunek eman dute izena, nahiz eta 20rendako lekua zegoen. Hala, 20 lagun horiek -zozketa bidez aukeratuta, nahiz eta Bergarakoek lehentasuna zuten- eguazten eta eguenera jaso dituzte Jakion etxeko adituaren azalpenak -irudian, eskola teorikoa-. Udal iturrien arabera, litekeena da datorren urtean ikastaroa berriz egitea.

## oharrak

KINTADA

### > 1942an jaiotako gizon-emakumeek bazkaria egingo dute

Irailaren 26an egingo dute bazkaria, Azpeitxi jatetxean (14:30). Izena emateko azken eguna da irailaren 22a, Edel ohial-dendan eta Azpeitxi jatetxean bertan. Izena ematean 20 euro aurreratu behar dira.

SAN JOXEPE

### > Leongo bidaiarako plaza hutsak daude oraindik

San Joxepe elkartetik jakinarazi dutenez, Leonera irailaren 20tik 26ra egingo duten bidaiarako plaza libreak daude. Hori horrela, interesa duten bazkideek egoitzako bulegoaneman dezakete izena.

KINTADA

### > 1948an jaiotakoek Bilbora irte- ra egingo dute

Hilaren 26en egingo dute eta, besteak beste, bisita gidatua izango dute Zazpi Kaleetatik. Izena emateko sartu behar dira 65 euro Euskadiko Kutxan irekitako kon-tuan. Autobusa bete arteko lekua egongo da.



Ondo pasau  
San Martinak!



BERGARAKO UDALA

LEHIAKETA > GRAFITIAK

# Jon Iraegiren grafitiak apainduko du azoka

Jon Iraegi bergararra hasi da Oxirondoko azokako pareta margotzen; bi aste barru bukatuko du grafitia

EDU MENDIBIL > BERGARA

Jon Iraegi bergararrak irabazi du Udaleko Kultura Sailak azokako paretarako deitutako grafiti lehiaketa. *Bidrieria* izeneko lana-

rekin eraman zuen saria, 500 eurokoa.

Lehiaketaren helburua Oxirondoko azokan hutsik dagoen 7,05x8,22 metroko pareta margotzea da. Jon Iraegi izan zen lehiaketara aurkeztu zen bakarra, eta, epaimahaiaren oniritzia jaso ondoren, haren lanak apainduko du azoka. Ez da Iraegik Kultura Zerbitzuaren lehiaketa irabazten duen lehen aldia.

**BI ASTE BARRU, GERTU**

Jon Iraegi martitzenean bertan hasi zen azokako pareta margo-

tzen eta bi aste barru grafitia gertu egotea espero du. Kolore biziak erabilia, azokan ohikoak diren hainbat produktu islatzen ditu Iraegiren lanak. Hauxe esan digu hark: "Nire gusturako, beharbada, altuegi egongo da grafitia, baina, edozein modutan, azoka leku aproposa da horrelako lan baterako, jendea ibiltzen delako". Zabaleran horrelako beste lan batzuk egin izan baditu ere, azokan joango dena da egin duen altuena, 8 metro pasatxo. Oñatin eta Bergarako gaztetxean grafitiak egin izan ditu Iraegik.



Azokako paretan joango den grafitia.

JON IRAEGI

> DANTZA

## Aitzol Ena eta Maite Lazkano txapelkun domekan, Donostian jokaturako dantza txapelketan

Aitzol Ena eta Maite Lazkano dantzari bergarrek domekan Donostian, Konstituzio plazan, jokaturako dantza solteko txapelketa irabazi zuten. Hamaika bikote izan ziren lehian eta irabazleek 400 euroko saria eskuratu zuten.

Bolada onean dira herriko dantzariak. Izan ere, Mikel Igarauak eta Ibane Basetak osatutako bikoteak Elgoibarko jaietan jokaturako txapelketa irabazi zuen, abuztuaren bukaeran.

> GAZTETXEA

## Reggae jaia gaztetxean gaur gauean, Soñadores Natos, Dodo eta Selektah Stepik taldeekin

Bergarako gaztetxean reggae jaialdia izango da gaur, egubakoutza, 21:00etan hasita.

Hiru taldek hartuko dute parte: Soñadores Natos, Dodo eta Selektah Stepik hain zuzen ere. Jamaika aldeko doinuak nagusi izango dira, funka, hip-hop edo soula baztertu gabe. DJ saioak ere iragarri dituzte antolatzaileek. Kontzerturako sarrera doaneko izango da.

> ERAKUSKETA

## Xabier de Zerrioren eskulturak Aroztegiko aretoan ikusgai hurrengo egubakoitzera arte

Xabier de Zerrioren eskultura erakusketa jarri du ikusgai Barrenkaleko aretoan. Pare bat urteko lana laburbildu du erakusketan, 40 lanekin. Egurrez egindako lanak dira nagusi, altzairuzko hainbat eskultura tartean badira ere.

Erakusketa irailaren 18ra arte dago ikusgai Aroztegi aretoan: martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

EUSKARA > JARDUN

# Ikasturte berriari ekingo dio Jardun elkarteak urrian

Bertso eskola, trikiti eskola, dantza eskola eta Berriketaren egitasmorako izenematea zabalik da

E.M. > BERGARA

Jardun euskara elkarteak antolatutako bertso eskolarako izenematea doan da. Esti Alberdi izango da irakaslea eta adinaren arabera bi talde bereiztuko dituzte: haurrena (8-15 urte bitartekoendako) eta helduena (15 urtetik gorakoendako).

Trikiti eskolari dagokionez, soinu eskolak Aritz Alustizak eta Ekaitz Otzoak emango dituzte. Astearen orduetako saioa izango da eta izenematea zabalik dago. Argibideak Jardunek Errotalde jauregian duen bulegoan jaso ditzakezue, 943 76 36 61 telefono zenbakian.

Pandero irakaslea Aitor Astorkia izango da eta astebetean ordu erdiko saioa emango du. Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko.

EUSKARA ERREFORTZUAK

Euskara errefortzuei dagokionez, urritik ekainera izango dira, Miren Etxeberria, Itziar Lete eta Uxue Amasorrain irakasleen eskutik.

Eta, azkenik, Berriketaren egitasmoa hurrengo hilean jarriko dute abian, Topagunearekin batera. Jardunek emandako datuen arabera, joan den ikasturtean 55 lagunek hartu zuten parte. "Aipatzekoa euskaldun zaharrek egitasmo honetan azaldutako interesa, euskara ikasten ari direnei, ikasi dutenei edota hitz egiteko aukera gutxi dutenei laguntzeko prest azaldu dira-eta", diote Jardunetik.

Esan bezala, interesatuek Jardunera jo dezakete argibide eske.



Ondo pasa San Martinetan!

**KONDE**  
PANADEROKUA



Burdiñate 1 | 943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3 | 943 76 14 87  
BERGARA

trinmer  
telecomunicaciones

tdt  
televisión digital  
terrestre

**Bergaran ere badago  
Lurreko Telebista Digitala!**

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

**TRINMER 20 urte antenetan**  
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305  
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR  
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60  
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 74 09  
670 483 903

ARETO FUTBOLA &gt; LABEGARAIETAKO TXAPELKETA

# Irailaren 20a da txapelketan izena emateko azken eguna

Irailaren 26an hasiko dute Labegaraietako areto futbol txapelketa, hainbat berrikuntzarekin

X.U. &gt; BERGARA

Bi aste eskas geratzen dira Labegaraietako areto futbol txapelketa hasteko, eta txapelketan parte hartu nahi dutenek hilaren 20ra arte dute izena emateko: "Iaz hamalau talde izan genituen,

eta talde kopuru hori mantentzen badugu konforme geratuko gara. Hori bai, oso ondo egongo litzateke hamasei talde izatea, besteak beste, txapelketa multzoka antolatu ahal izango genukeelako", adierazi du antolatzaile tal-

deko kide Pedri Zafrak. Izena emateko talde bakoitzak 200 euro sartu behar ditu Euskadiko Kutzako 0090033922 kontu zenbakian, eta talde bakoitzeko ordezkariak batzarra izango dute hilaren 21ean, kultura etxean (19:00).

## EPAILEEK, LAN TXUKUNAGOA

Aurtengo txapelketari begira antolatzaileek argi dute zertan

egin behar duten hobera: "Iaz oso gustura geratu ginen txapelketan izan genuen giroarekin. Ika-mikaren bat edo beste izan zen, baina orokorrean oso ondo joan zen dena. Alde horretatik, haserrealdi handienak jendeak epaile lanak txarto egiten dituelako izaten dira. Gero, epaile lanetan txarto ibili diren horiek esaten dute ez dutela araudia

ezagutzen, eta ezin dutela hobeto epaitu. Nik ez dakit zelan ez diren hori esateaz lotsatzen, hamar urte daramatzate-eta txapelketan jokatzeko".

## LAN ONA SARITU

Arazo hori konpontzeko antolatzaileek oraindik ez dute ezer zehatzik erabaki, baina Zafrak aurreratu du zerbait: "Akaso, ondo epaitzen duen taldeari izena ematearren ordaindutako kopurutik zati bat itzuliko diogu txapelketa amaieran. Epaile lana txukun egiten duena saritu nahi dugu, baina oraindik ez dugu erabaki zelan".

Txapelketaren gainean informazio gehiago nahi duenak [www.bergarakotxapelketa.3a2.com](http://www.bergarakotxapelketa.3a2.com) webgunean aurkituko duzue.



JUAN MARI SASIGAIN

## PILOTA

# Bergara Hiriko errebantxa astelehenean


19:30ean hasita gazte mailakoen eta nagusien errebantxa jokatu dute

X.U. &gt; ARRASATE

Hiru hilabete eskas pasa dira Bergara Hiria txapelketako finala jokatu zutenetik, eta astelehenean, orduko protagonistak berriro ere izango dira aurrez aurre (19:30), errebantxa hartzeko gogoz. Gazte mailan Ezkurdiak eta Peñasek Apeztearearen eta Arzelusen kontra jokatu dute. Ekainean lehenengo bikotea 22-18 nagusitu zen.

Nagusietan, berriz, Idoatek eta Larrinagak Yoldiren eta Merinoren kontra jokatu dute. Ekaineko partiduan Yoldik piztu zuen ikusmin handiena, Teledonosti txapelketa irabaztetik zetorrelako. Baina nekearen ondorioz-edo motel ibili zen eta Idoatek, berriz, partidu oso ona egin zuen. Idoate eta Larrañaga nagusitu ziren 22-12. Errebantxa, astelehenean.

## MIZPILDI



## OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA


## Pol-Poleko beteranoak, Pilarikako zubiaren zain

Pirinioetatik itzuli berri, Pol-Poleko beteranoek dagoeneko gertu dute hurrengo mendi irteera, Pilarikako zubia aprobetxatuta. Urriaren 10a, 11 eta 12a egingo dute Araneko bailaran, Vielhako inguruetan. Asteburuan, berriz, 45 laguneko koadrilak bi eguneko mendi zeharkaldia egin du. Pont de Espagnen (Cauterets) hasi eta zortzi orduko ibilbidearen ostean Panticosara iritsi ziren, Walloneko aterpetetik eta Markadauko (2.545 m), argazkian, tontorretik igarota. Domekan Escarri-llan amaitu zuten irteera.

INPRIMATEGIA  
**GARBIL**  
PAPERDENDA

☎ 943 76 23 28  
☎ 943 76 54 87  
@ imprentagarbil@eurkalnet.net  
✉ Artzamendi, 4  
20570 Bergara Gipuzkoa

Berriz eskolara



Irailan prezio bereziak eskolako materialean



**mingainari tiraka**

Jaione Cuevas > Ilargi haurren dendako arduraduna

# "Gertutasunak asko laguntzen du eta jendea ez da jabetzen"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Joan den urteko maiatzean zabaldu zuen Jaione Cuevasek Bergarako Ilargi haurren dendak. Orain arte zelan moldatzen den azaltzeaz gain, udazken-neguari begirako umeendako tendentziak azaldu dizkigu.



**Zer da gehien saltzen dena?**

Ez nuke jakingo bat aukeratzen. Egun batzuetan arropa nahiko saltzen duzu eta bestetan aulkiak. Dena den, aulki bat saltzea zaila da. Agian, egun batean lau edo bost erakutsi eta ez duzu bat ere saldu, horietan beti deskontuak dauden arren. Norbaitek aulkia erosterakoan asko begiratzen du; erosi aurretik hamaika tokitan begiratzen du eta askok kanpoan erosten dute. Zenbait tokitan zenbaki bat baino ez zara eta hemen, edozein arazoren aurrean, hori ahalik eta azkarren konponetzen saiatzen gara. Gertutasunak asko laguntzen du. Jendea ez da oraindik horretaz jabetzen, garrantzitsua bada ere.

**Nolatan umeendako dendak?**

Bi hasi ginen. Rakel ama da eta, herrian umeendako dendak bazeuden ere, zerbait falta zela iruditzen zitzaion. Denda zabaltzea proposatu zidan eta baietz esan nion. Ireki eta Rakel konturatu zen dendak batek denbora luzea eskatzen duela; ni geratu naiz.

**Ilargi, zergatik?**

Behin, autoan geundela, ilargi betea zegoela konturatu ginen eta Ilargi izenarekin geratu ginen. Egia esan, ez genion buelta askorik eman izenari.

**Nolakoak dira bergararrak bezero moduan?**

Nik ez daukat inongo kezarrik. Krisi egoera ikusita jendeak erosi aurretik begiratzen du. Dena den, ni ez naiz kekatzen.

**Gaia aldatuko dugu: zelan dator datozen hila-beteotarako umeendako arropa?**

Iluna. Negua iluntsuagoa da: beltza, grisa, gorria edo marroia. Kosta egiten da umea beltzez janztea, ondo geratzen bazaie ere. Baina umeen arropa helduena bezalakoa da, neurria baino ez da aldatzen.

**txaloak eta txistuak**



GOIENKARIA

## Usondo parkeko komunak apurto egin dituzte abuztuan



Irakurle batek goiko argazkia bidali digu. Usondo parkean dauden komunetan aterata dago, abuztuan. Egingakoa salatzeaz gain, sarraski hori egin dutenei galde-tu die ea euren burua bergarartzat ote duten. Horrela balitz, guztion zerbitzurako jarritako baliabideak apurtzeko arrazoiak eman ditzatela eskatu die.



*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*



**gelatzu**

Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

*Gurean giro ezin hobea!  
Ondo pasa San Martinetan!*



Agorrosin | Ariznoa | Avenida | Azpeitxi | Etxagi | Euxebio II  
Iraho | Irish pub galways | Kai | Kaiak | Kaixo | Pol pol | Sirimiri  
Toki Ona | Usoa | Zunbeltz



KIROL ZERBITZUAK > DENBORALDI HASIERA

# Astelehenean hasita jarduera asko Zainduzen

Kirol Zerbitzuak hainbat jarduera eskainiko ditu: spinning, aerobic... eta tartean, berria, total fit

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Astelehenean, hilak 14, hasiko du kirol jardueren denboraldia Kirol Zerbitzuak. 2009-2010erako gertatu duen kirol eskaintza osoaren berri eman die egunotan herriarrei.

Kirol etxea itxi zutenetik -orain dela urtebete- Zainduz gimnasioan dute kokalekua kirol jarduerak. Bertan eskaintzen dituzten zerbitzuak honakoak dira: fitness gela, sauna, masaje zerbitzua eta banakako entrenamendua -norberari egokitutako jarduerak gomendatzeko eta jarraipena egiteko.

HIRU ERATAKO JARDUERAK

Kirol jarduerari dagokionean, Goiena Sport enpresak kudeatzen ditu eta hiru ataletan banatu dituzte aurten. Gimnasia jarduerak: mantentze gimnasia, multifitness, hirugarren adinekoendako gimnasia, spinning, tonifikazioa, Atzegiko gimnasia, GAP -gluteoak, abdominalak eta izterrak lantzeko gimnasia- eta total fit. Azken hori berria da eta hiru ezaugarri ditu: fitball baloiaren erabilera, sabelaldea lantzea eta luzaketa ariketak egitea.

Jarduera lasaien artean, ostera, pilates dago. Eta dantza jar-

duerei dagokienean, hiru aukera: aerobic, batuka eta gazteei egokitutako batuka.

IZENEMATEA ZAINDUZEN

Kirol jardueretan izena emateko epea zabalik dute Zainduzen (943 71 26 28). Bestalde, urtea bukatu bitartean abonua ateratzeko aukera dago, bai Zainduz gimnasiorako, bai Debagoieneko gainerako kiroldegietan sartzeko. Saunan sartzeko, abonuz gain, 2,50 euro ordaindu behar da eta masajea hartzeko 12,60 euro, 20 minutuko saioa eta 22,05 euro, 45 minutukoa.

Iturrigorri pilotalekua erabili gura dutenek, osterara, aurrez hartu behar dute txanda Zainduzen. Ordua 6,35 euro da eta, argia behar izanez gero, 9,05 euro.



Uztailean, uda kanpaina barruan, gazte-batuka jarduera egiten neska koadrila. M.A.



JULEN ABASOLO

## Kurtzebarripetik Orhipera egindako bisita

Kurtzebarripetik Orhipera abiatu zen Areantza inguruko 55 laguneko taldea joan zen zapatuan. Arbaiungo arroilan hamarretakoa egin -argazkia atera- eta gero, Otsagabiara. 1909. urtean nola moldatzen ziren ikusi zuten: "Batek baino gehiagok hemen ere bizi izandakoren antza hartu zion", dio Julen Abasolok. Jaurrietan bazkaldu eta Orreaga bisitatu zuten gero: "Halabeharrez, Santiagora zihoazen garai bateko 31 traktore zahar eta bi kamioik osatzen zuten karabana ikusi genuen".

KULTURA > LIBURU AURKEZPENAK

## Leintz bailarako historiaren gaineko liburua, eskuragai

Bihar (12:00) aurkeztuko dute 'La historia del Valle de Leniz (1260-1750)'

M.A. > ARETXABALETAKO

Rosa Aierbe hernaniarrak Leintz bailarako historiaren gainean idatzi duen liburua aurkeztuko dute bihar, zapatua, Arkupe kultura etxean (12:00). Idazlearekin batera ekitaldian izango dira kolaboratzaile izan dituenak, Inaxio Garro alkatea eta Aldundiko ordezkariak.

DOKUMENTU GARRANTZITSUAK

*La historia del Valle de Leniz (1260-1750)* liburuak Leintz bailarako historiaren gaineko historia kontu asko jaso ditu: juridikoki garrantzia handia duten dokumentu ugari, XIII-XVIII. mende bitarteko errolden datuak, esaterako, eta argazkiak. Era berean, Valladolideko artxiboan aurkitutako Leintz bailarako 1495eko ordenantzak interes berezikoak direla esan du egileak.

Lan mardula egin du Aierbek eta 440 orriko liburua osatu. 25 euroren truke salduko dute -aurkezpenean, 20 euro.



U.D.A. futbol taldearen aldeko  
HARAGI PINTXO DASTAKETA

Aretxabaletako Herriko plazan

2009-09-12 (zapatua)

arratsaldeko 7etan

Antolatzailea: IOSU HARATEGIA

Mitarte, 1



Berme osoko okela

JAIA &gt; UDA-REN DENBORALDI HASIERA

# UDAk denboraldi hasierako jaia egingo du, txahal bat erreta

Bihar egingo dute jaia herriko plazan: gazteen hirunako futbol partiduak izango dira lehenengo eta gero, txahala eta ardoa

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

2009-2010 denboraldiari hasiera emateko jaia antolatu du Aretxabaleta Kirol Elkartek, UDAk, bihar arratsalderako. Herriko plazan izango da (15:30-22:00) eta jatekoa eta edatekoa ziurtatuta dituzte.

TXAHALA ETA ARDOA

8 eta 12 urte bitartekoendako antolatutako hirunako futbol partiduekin hasiko dute jaia. Izena plazan bertan eman behar dute jokatu gura duten gaztetxoek (15:30). Bitartean, txahala jarriko dute erretzen Giokelako kideek. Txahal pintxoak 19:00etatik aurrera dastatu ahal izango da ardoarekin batera. Gainera, ardoa erosteko aukera izango da eta UDAREN armarrria duten edalontziak ere bai.



Giokelako kidea txahala erretzen.

GOIENKARIA

Dirua batzeko asmoarekin antolatu dute jaia UDAko kideek. Izan ere, haziz doa elkarteak eta gero eta talde gehiago dituzte, batez ere futboleko -11 talde, maila bakoitzean bi. Horregatik, ez da izango antolatuko duten jai bakarra, beste bi aurreikusitakoak dira denboraldirako: bata, azaro inguruan -txerri bota sasoian- eta bestea, denboraldi bukaeran -garagardo jaia.

FUTBOL ESKOLA ASTELEHENEAN

Aretxabaleta Kirol Elkartek abian jarritako futbol eskolaren entrenamendu saioak astelehenean hasiko dituzte. Gaztetxoek, hau da, 2000 eta 2001ean jaiotakoek astelehenean, hilak 14, dute lehen saioa (17:00), Ibarra futbol zelaian. 1999an jaiotakoek, ostera, egubakoitzean, hilak 18, egingo diete entrenamenduei.



Gazteak Atxagazte gaztelekuan, iazko ate irekien ekitaldian.

M.A.

GAZTEAK &gt; GAZTELEKUA

## 12 urtekoendako, zabalik asteburuan

M.A. &gt; ARETXABALETA

Gaur, hilak 11, hasiko dute ikasturtea Atxagazte gaztelekuan. Aste bukaera honetan, baina, lehen aldiz joango direnei bakarrik zabalduko dizkiete ateak; hau da, DBHko lehen mailan hasiko direnei. Gainerakoek eguaztenetik aurrera dute hitzordua.

IREKIERA OFIZIALA, HILAREN 16AN

Aurkezpen ekitaldia eta merienda egingo dituzte gaur lehen aldiz

doazen gaztetxoendako (17:00). Begiraleek gaztelekua erakutsi eta bertako martxa azalduko diete batzarra eginda; ondoren, mokadutxo eskainiko dute. Zapatuan, ostera, mahai-futboleko jarduteko aukera izango dute gaztetxo horiek.

Atxagazte gaztelekuaren irekiera ofiziala datorren eguaztenean izango da, hilak 16. Elkar ezagutu eta lagun giroan egoteko aukera izango dute orduan gaz-

teek. Eguenean sukaldaritza kontuak izango dituzte; egubakoitzean txapak egiteko makina eskarriko dute norberaren gustuko txapak egiteko eta zapatuan, hilak 19, afari-merienda egingo dute.

EGUAZTENETIK DOMEKARA

Iralabarri plazan hasi zuen ibilbidea Atxagazte gaztelekuak, aste bukaeretan ateak zabaldu. Urtebete darama Arkupe kultura etxean eta orain eguaztenetik domekara izaten da zabalik. Gero eta gaztetxo gehiago hurreratzen da bertara -aurreko ikasturtean 30en bat- eta gero eta ekintza gehiago antolatzen dituzte: kontzertuak, irteerak, irrati saioak... Hala, ikasturte berria hasteko gogotsu daudela jakinarazi dute.

EUSKARA &gt; ARDO DASTATZEA

## Ardo dastatzea dago gaur, Loramendik antolatuta

M.A. &gt; ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkartek ardo dastatze ekitaldia egingo du gaur, egubakoitzea (19:30-21:00), Durana kalean. Arabako Errioxako eta Nafarroako hainbat ardo dastatzeko aukera eskainiko diete herritarrei.

LAU UPATEGITAKO ARDOAK

Lau upategitako ardoak eskainiko dituzte. Arabako Errioxatik etorriko da Candido Besa lau ardorekin: ardo ekologikoa; kuttuna; bihotzekoa; eta zuria.

Baita Jose Basoco ere bi ardorekin: Finca Barronte -ardo ondua- eta Finca Barronte Graciano -etxeko ardo berezia.

Nafarroatik etorritakoak beste bi dira: Castillo de Monjardin, 2001eko erreserba eta urteko ardo beltza; eta Señorío de Sarria upategitakoak, Garnacha 5. mahastia -ardo gorria- eta Chardonnay -ardo zuria.

Ardoekin osatutako otarre bat zozketatuko dute ekitaldi bukaeran. Txartelak euro baten salduko dituzte.

&gt; OSPAKIZUNA

### Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko dute domekan Murrukixoren eskutik

Iraileko bigarren domekan Kurtzebarri mendiko eguna ospatzen du Murrukixoa Mendizale Elkartek. Orain dela 81 urte gurutzeta bertan jarri zutela izango dute gogoan etzi.

Mendiola auzotik gora Kurtzebarri hurreratzeko gonbidapena dute herritarrek domekarako. Mendi tontorrean salda beroa eskainiko dute lehenengo antolatzaileek (10:30) eta meza esan gero (11:00). Mokadutxo ere egingo da indarrak berreskuratzeko: txorizoa, gazta, ardoa eta xanpaina. Ospakizuna bukatzeko Mendiolako tabernan bermuta hartuko dutela iragarri dute Murrukixoko kideek (13:00).

&gt; IKASTAROK

### Perkusio eta dantza ikastaroak antolatu ditu Jaiki elkarteak udazkenerako

Jaiki elkarteak ikastaro bi iragarri ditu udazkenerako: batetik, trantze egoeran murgiltzeko perkusio ikastaroa egingo du, Nick Twilley irakaslearekin. Urriaren 13an, 14an eta 15ean izango da (18:30-21:30), bederatziko ordu guztira, eta prezioa 40 euro da. Interesatuak dei egin dezatela honako zenbakira: 618 04 67 43 (Paco).

Bigarren ikastaroan funky, afrotribal eta dantza karibearrak irakatsiko dituzte. Eskolak martitzenetan dira, urriaren hasita (19:30-21:00). Prezioa 35 euro da, hiruhilabetea. Izena emateko idatzi honako helbidera: [jaikielkarrea@yahoo.es](mailto:jaikielkarrea@yahoo.es). Bi ikastaroetako izenemate peak irailaren 30ean bukatuko dira.

&gt; KARATEA

### Aretxabaleta Kirol Elkarteko karate taldeak martitzenean hasiko du denboraldia

Martitzenean, hilak 15, hasiko du denboraldia UDAko karate taldeak. Aurreko denboraldian legez, martitzen eta egubakoitzetan izango dituzte entrenamendu saioak Kurtzebarri eskolan. Lehen taldea, gaztetxoena, 18:00etatik 19:00etara elkartuko da eta bigarrena, 19:00etatik 20:15era. Izena emateko bertara joan daitezela interesatuok, eta Odilo Vazquez irakaslearekin berba egin.

PIENSOS  
SUNZUE S.A.

## FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

ZIRULAZIOA > ALDAKETAK

# Zirkulazioaren noranzkoa aldatuko dute San Lorentzozon

Auzoari buelta ematen dion errepidea norazko bakarrekoa izango da eta erdikoa, bikoa

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Uztailean Tokiko Gobernu Batzarrek egindako bileran onartutakoa praktikan jarriko dute datozen egunetan. Alegia, San Lorentzozon auzoko zirkulazioaren noranzkoa aldatu egingo dute. Horren arabera, auzoari buelta ematen dion errepidea noranzko bakarrekoa izango da, eta auzoa erditik zeharkatzen duena, bi noranzkoko. Era berean, aparkaleku berriak margotuko dituzte. Lanak hurrengo asterako bukatu gura dituzte. "San Lorentzozon goiko aldeko aparkalekuak margotzea falta zaigu. Gure asmoa da hurrengo asteko martitzenerako aparkalekuak gertu egotea", azpimarratu digu udaltzain buru Idoia Laspitak.

BATERIAN ETA ILARAN

Zirkulazioak izango duen aldaketa nabarmenena auzoari buelta ematen dion errepidean antzemango dute gidariek. San Lorentzozon 1 zenbakitik -Goiherri Leihoak dagoen tokitik- gorantz hartuko dute autoek, eta Larraña Institututik, beherantz.

Dena den, auzoa erditik gurutzatzen duen errepidea bi noranzko izango da. Hau da, San Lorentzozon 14. zenbakitik ETEOko biribilguneraino bi errei izango ditu errepideak.

ETEO aldeko errepidea noranzko bakarrekoa izango da, eskuin aldean aparkalekuak margotu dituzte-eta. Hain zuzen ere, autoek baterian aparkatu ahaliko dute. Bestalde, Joxiueña baserri-rako sarreratik aurrera eta errepidea noranzko bakarrekoa den lekuraino, eskuin aldean jarriko dituzte aparkalekuak eta autoek ilaran aparkatu beharko dute.



ETEO ondoko errepidea noranzko bakarrekoa izango da.

MIREIA BIKUÑA

Gainera, San Lorentzozon buelta ematen dion errepidearen hasieran, ezkerretara dauden aparkalekuak mantendu egingo dituzte. "Berririo margotuko ditugu eta oraingoz ilaran aparkatu ahaliko dute han. Baina, agian, aurrerantzean aldaketaren bat egin dezakegu", esan digute udaltzainek.

SEINALE BERTIKALAK  
San Lorentzozon bizilagunak hasi dira aldaketak ikusten. Dena den, auzotik noizean behin ibiltzen direnendako seinale bertikalak jarri dituzte. "Seinale guztiak jarrita daude, baina lan guztiak bukatu arte estalita ditugu. Margotze lanak bukatzen ditugunean, indarrean jarriko dira seinaleak", diote. Oraingoz, normaltasunez ibil daiteke autoarekin San Lorentzozon auzoan.

BESTE LAN BATZUK

## GI-2630 errepideko lanak hastear daude

Belatxarako gasolindegitik Olabarrietako Aiatusti baserri pareraino doan GI-2630 errepideko lanak irail bukaeran hasiko dituztela esan digu Oñatiko udaltzain buruak. Construcciones Publicas Coprisa S.A. enpresak egingo ditu lanak, 1,5 milioi euroren truke. Guztira, 3,5 kilometro eraberrituko dituzte. Besteak beste, zoru berri eta sendotu, drainatze-sistema hobetu eta hainbat gunetan hormigoizko arekak jarriko dituzte.

Lanak egiteko bost hilabeteko epea dute, eta asmoa da otsailerako lanak bukatuta izatea.

ARGAZKIGINTZA > LEHIAKETA

# 'Batetik bestera' argazki lehiaketako lanak, gaztelekura

Hilaren 25era arte utz daitezke argazkiak gaztelekuko Gazte Informazio Puntuan, eta gehenez hiru lan aurkez daitezke

M.B. > OÑATI

Iaz egindako modura, gaztelekuak *Batetik bestera* argazki lehiaketa antolatu du. Deialdi aurrerapena uztailean egin zuten eta dagoeneko zabalik dago argazkiak aurkezteko epea. Hain zuzen ere, gaztelekuko Gazte Informa-

zio Puntura eroan daitezke hilaren 25a baino lehen. Lehiakide bakoitzak, gehenez, hiru argazki aurkez ditzake, paperean edo euskarri informatikoan (CD batean). Gainera, argazki bakoitzaren gaineko azalpena eta atera zen eguna zehaztu beharko dute. Informazio guztia ezizena darman kartazal batean sartu eta barruan nor bere datuak jarri beharko ditu.

AUKERAKETA, IKUSLEEK

*Batetik bestera* argazki lehiaketa 12 eta 18 urte arteko nerabeendako da. Batez ere, udako oporretan egindako argazkiak aurkez daitezke.

Lehiaketara aurkezten diren argazki guztien artean aukeraketa egingo dute gaztelekuan; alegia, onenak aukeratuko dituzte. Horiekin erakusketa bat egingo dute gaztelekuan bertan eta ikusleak izango dira argazki onenak aukeratuko dutenak. Erakusketara doazenek botoa eman dezakete, kaxa baten sartuta botoa. Ikusle bakoitzak gehien gustatu zaizkion bi argazkiak aukeratu beharko ditu.

Boto horien arabera banatu egingo dituzte sariak. Guztira bi sari emango dituzte dirutan: argazki onenaren egileak 150 euro jasoko ditu sari modura, eta bigarrenak, 100 euro.

> JAIK

## 'Larraingain' kantua estreinatuko dute danborradan

Hilaren 28an egingo duten nagusien danborradan *Larraingain* izeneko kantua estreinatuko dute. Kantua ondo ezagutzeko entseguetara agertzeko deialdia egin dute antolaketa taldekoek. Helduen danborradarako geratzen diren entseguak hilaren 15ean, 17an, 22an eta 24an egingo dituzte, eta danbor-jole guztiak agertzea inportantea dela diote.

Bestalde, hurrengo astean egingo dituzte haurren danborradako azken entseguak. Danbor-joleek eta elkarteetako banderadunek martitzenean eta eguenean egingo dituzte azken entseguak, 19:00etatik 20:00etara Errekalden. Danborrada hilaren 19an egingo dute 18:00etan.

> JAIK

## Atzeko kaleko jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara

Etxafuego jaurtiketarekin hasiko dituzte Atzeko kaleko jaiak gaur. Zinta lasterketa, haur jolasak, txorimaloak eta kontzertua egongo dira gaur. Argi ibili, Black River, Skasti eta Vomito taldeek egingo dute emanaldia 21:00etan.

Bihar, besteak beste, sokamuturra eta poniak, garagardo eta pintxo dastaketa, suzko zezena eta Triki ta Ke taldearen erromeria egongo dira.

Domekan, Atzeko kaleko txirindulari proba eta txorimaloak egongo dira. Kaixo taldeak jarriko du musika, eta 22:00etan egingo dute saskiaren zozketa.

oharrak

IKASTAROKAK

> Umeendako yoga ikastaroa egingo dute urrian

Sanatana Dharma yoga eskolak umeendako ikastaroa egingo du urrian. Abendura arte emango dituzte eskolak martitzenetan eta eguenean, 17:00etatik 18:00etara arte. Interesatuak 943 78 30 60 edo 658 71 90 89 telefonoetara dei dezakete izena emateko.

Bestalde, helduendako oinarritzko yoga ikastaroa hilaren 14tik 24ra egingo dute. Izena emateko 610 953 794 telefonora dei dezakete.

MATRIKULAZIOA

> Euskaltegiaren izenematea zabalik dago hilaren 18ra arte

Udal Euskaltegiak ikasturte berrirako matrikulazioa zabaldu du. Izenematea bulegoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 18:30era, *euskalte-*

*gia@oinati.net* helbidean edo 943 78 24 96 telefonoan egin daiteke hilaren 18a baino lehen.

HITZALDIA

> Bakar-dadeari aurre egiteko teknikak erakutsiko dituzte

Pake Lekuk antolatuta bakar-dadeari aurre egiteko teknikak erakutsiko dituzte, hilaren 15ean, 17:00etan. Bakar-dadeari aurre egiteko teknikari buruz egingo du berba Rakel Muñozek.

KINTADA

> 1980an jaiotakoek kintada egingo dute hilaren 19an

Bazkaria Arantzazuko Sindika jatetxean egingo dute. Kintadan parte hartzeko 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako ondorengo kontuan: 3035 0005 30 0050045392. Izena emateko azkeneko eguna irailaren 14a, astelehena izango da.

KIROLA &gt; 2009-2010 IKASTURTEKO KIROL ESKAINTZA

# Pilates, aquagym, eta stretching eta GAP dira aurtengo berrikuntzak

Ikasturterako kirol jardueretan izena emateko epea zabalik dago; taldea sortu bezain pronto, saioak hasiko direla jakinarazi dute Goiena Sport kirol zerbitzuetakoek

MIRIAN BITERI &gt; ESKORIATZA

Dagoeneko zabalik dago ikasturterako kirol eskaintzan izena emateko epea. Aurtengoan hiru berrikuntza daude: pilates, stretching eta GAP, eta aquagym. Horretaz gain, honako hauek eskainiko dira: hirugarren adineko gimnasia, batuka, igeriketa, multifitness, spinning, adimen urria dutenendako gimnasia eta defentsa pertsonala.

Herriko kirol eskaintza prestatzeaz arduratu den Goiena Sport kirol zerbitzuetakoetako Bixen Calzonek jakinarazi digu pilates egiteko interesa dutenek bi aukera izango dituztela: astean bitan ordubeteko saioetan, bata; eta egubakoitzetan ordu eta erdikoa, bestea.

Stretching eta GAP nahastuko dituen ikastaroa zertan datzan ere azaldu digu. Stretching artikulazioen malgutasuna eta giharren luzaketa errazten duen ariketa fisikoa da. Jarduera horrek lesioak saihesten, esfortzua egin eta gero errez errekuperatzen eta indarra hartzen laguntzen du. Edozein pertsonarendako da komenigarria hori. Bestalde,



Igeriketan ordutegiak eskaeraren arabera ezarriko dira; irudian, herriko barruko igerilekua.

MIRIAN BITERI

## Eskaintzen diren kirolak

- > Pilates
- > Stretching-GAP
- > Hirugarren adineko gimnasia
- > Batuka
- > Multifitness
- > Spinning
- > Adimen urrikoentzat gimnasia
- > Aquagym
- > Defentsa pertsonala

GAP musikarekin eta talde lanean tonu muskularra garatzeko jardura da. Honako atalak lantzen dira espezifikoki: gorputzeko sabelaldia, hankak, gluteoa eta abduktoreak.

### IZENEMATEA

Izenematea, esan bezala, irailean egin behar da kiroldegian. Izena eman aurretik, baina, erabiltzaileek matrikula egiteko argibideak irakurtzeko gomendatu dute. Bertan adierazten da

kobraketak nola egingo diren, baja emateko baldintzak zeintzuk diren eta baita izena ematean bete behar diren orriak zeintzuk diren ere. Kirol ekintza bakoitzaren ordutegia eta prezioetaz informatzea ere eskatu dute. Hori guztia [www.eskoriatza.net](http://www.eskoriatza.net) webgunean topatuko dute eskoriatzarrek, baita izena emateko orriak ere.

Calzonek azaldu digu saioak taldea sortu bezain pronto hasiko direla. Gaineratu du, gaur

egun, Eskoriatzan arrakasta handiena duen ekintza spinning dela: "Joan den urtean hamahiru ordu izan genituen astero eta aurtun ere aurreikuspen bera egin dugu". Bestalde, hirugarren adinekoei gimnasiara apuntatzeko dei egin die. Horren harira, saioak beti arratsaldean izan badira ere, aurtun horiek goizera pasatzeko aukera dagoela esan du. Igeriketa dagokionez, azkenik, azaldu du ordutegiak eskaeraren arabekoak direla dio.

INGURUMENA &gt; IBAIA

## Deba ibaiaren ura beltza dator oraindik

AHTren lanak direla-eta, Mazmelako tuneletik irtendako zikinkeriak ibaira joaten dira

M.B. &gt; ESKORIATZA

Deba ibaiaren urak zikin etortzen jarraitzen du. Udalak behin baino gehiagotan egoera konpon dezatela exijitu badu ere, ura zikin datorrela ikus dezake azkenaldian ibaira hurbiltzen den edonork.

Pedro Lasagabaster alkateak, Abiadura Handiko Trenaren lanak direla-eta, Mazmelan tunel

bat zulatzen dabilzala eta hortik irtendako hautsak eta hondakinek ura zikintzen dutela salatzarekin batera, ur zikin hori araztegi batean tratatu behar dutela gogoraraz i du. Ondoko irudian agerian geratzen denez, askotan ez dute egiten. Udalak dagoeneko Jaurilaritzan eta Espainiako Sustapen Ministerioaren aurrean egoera salatu du.



Ohikoa bilakatu da azkenaldian Deba ibaiaren ura zikin egotea.

M.B.

&gt; KIROLA

## Helduendako xake ikastaroa antolatu dute datozen asteotan

Xakean ikastea nahi dutenek aukera dute Eskoriatzan, helduendako dohaineko xake ikastaroa antolatu dute-eta. Hastapen ikastaroa izango da, xakeko fitxak ezagutu eta xakean aritzeko oinarritzko ezagutzak jasoko dituzte parte-hartzaileek. Hilaren 22ra arte eman ahalko da izena kultura etxean.

Irailaren 24an hasi eta urriaren 22ra bitartean, eguenero, 19:00etan, eskolak egongo dira kultura etxean. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 71 46 88 deitu edo [gazteria@eskoriatza.net](mailto:gazteria@eskoriatza.net) helbidera idatzi behar da.

ERAKUSKETA > IBARRAUNDI MUSEOA

## Hilaren 18ra arte ikusi ahal da Likinianoren erakusketa

M.B. > ESKORIATZA

Ibarraundi museoan jarrita dagoen Felix Likinianoren erakusketa datorren egubakoitzera arte, hilak 18, egongo da ikusgai. Uztailaren amaieran, Ibarraundiko arduradunek jakinarazi zuten irailaren hasierara arte egongo zela hori bisitatzeko aukera. Harrera onak, baina, itxiera atzeratzera animatu ditu: "200 lagunetik gora pasa

dira; jendeak erakusketa bisitatzeko azken aukera du".

Bi hilabete pasatxo daromatza esandako erakusketak Ibarraundin. Joan den ekainaren 29an inauguratu zuten. Denbora tarte horretan eskoriatzar asko pasa dira herriko familia horren pasarte esanguratsuenak ezagutzera; baita Felix bera ezagutu eta bailarakoak ez diren pertsonak ere.

MUSIKA > KONTZERTUA

## Berri Txarrakerako sarrerak, hilaren 17ra arte

Egunean bertan ere 19 eurotan salduko dira; leihatila 18:00etan zabalduko dute

kafe antzokian; eta Gasteizen, Hala Bedi tabernan. Horretaz gain, [www.ticketmaster.es](http://www.ticketmaster.es) webgunean ere eskura daitezke.

Egunean bertan ere sarrerak leihatilan salduko dira 18:00etatik aurrera, 19 euroren truke.

M.B. > ESKORIATZA

Berri Txarrak taldearen aurkezpen kontzerturako sarrerak aurretik erosteko azken eguna irailaren 17a izango dela esan digute kontzertuaren antolatzaile Aitzorrotz elkarteok.

Sarrerek hamasei euro balio dute eta honako tokietan daude salgai: Eskoriatzan, Inkernu tabernan eta Igehik inprimategian; Aretxabaletan, Azkenan (*Txiki*); Arrasaten, Lazkano musika dendan; Bergaran, Pol-Pol tabernan; Oñatin, Aker tabernan; Elorrion. Portale-

LAN BERRIA AURKEZTERA

Nafarrek astelehenean, hilak 14, jarriko dute salgai *Payola* izeneko disko berria eta lan horretako abesti berriak irailaren 19an aurkeztuko dituzte, esan bezala, Eskoriatzan. Kontzertua 22:00etan hasiko da kiroldegian. Ondoan Deabruak Teilatuetan eta Simbiose talde portugaldarra izango dituzte.

Kontzertua, esan bezala, Aitzorrotzek antolatu du. Ez da taldeak buruan duen ekimen bakarra. Ardo dastatzea eta garagardo iaialdia prestatzeko



Irudian, joan den urtean Mugikortasun Astearen barruan egindako bizikleta ibilaldia.

GOIENKARIA

INGURUMENA > MUGIKORTASUN ASTEA 09

# Erreka Eguna egingo dute, Mugikortasunaren Astearekin batera

Mugikortasun Asteko ekintzak aurrera eramateko bilera deitu dute astelehenerako, hilak 14, Ibarraundin

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Irailaren 16tik 22ra bitartean, *Hobetu zure hiriko klima* lelopean, Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea egingo da eta, ohikoa denez, Eskoriatzako Udalak, Gazteria eta Ingurumen sailen bidez, bat egin du horrekin. Aurtengo Mugikortasun Astearen egitaraua berritasun batekin dator: Erreka Eguna.

Ingurumen teknikari Saioa Alzuak gogorarazi du aurreko urteotan, Aste Berdearekin batera, azaroan egin izan dela esandako eguna. Joan den urtean eguraldiak ez zuen lagundu eta ekimena atzeratu behar izan zuten.

GARRAIO ALTERNATIBOAK

Guztira, lau ekimen antolatu dituzte. Lehena egunean, hilak 17, egingo dute, *Mugitu!* lelopean, motorrik gabeko garraio alternatiboen lehiaketa, herriko kaleetan, 17:00etatik 19:00etara; baita *balancebike*, hanka-paloak eta patinak ere.

Hilaren 19an Erreka Eguna da. Auzolanean, herritarrek taldetan banatu eta erreka garbitzera jaitsiko dira. Herriko plazan elkartzeko dira 10:00etan. Horren harira, Alzuak azaldu du horretarako aseguruia egin beharra dagoela eta, hortaz, aurretik izena eman beharra dagoela. Hilaren 18an itxiko da epea. Udal teknikariak gaineratu du 12 urtetik gorako neska-mutikoei parte hartu ahalko dutela.

GARRAIO ALTERNATIBOAK

Hurrengo egunean, irailak 20, bizikletak izango dira protagonista nagusiak. Eskoriatzatik Arrasateraino eta handik berriro Eskoriatzara itzuliko dira parte-hartzaileak; guztira, hamasei bat kilometroko ibilbidea. Eskoriatzan, 10:00etan jarriko dute irteera plaza-tik; Aretxabaletan, 10:20ean Iturrigorri pilotalekutik; eta Arrasaten, 11:00etan. Eguraldiak laguntzen badu, hamarretarako egingo dute bueltan Torrebason eta bestela Iturrigorri pilotalekuan.

Antolatzaileek aipatu dute kasakoa eramatea derrigorrezkoa dela eta 10 urtetik beherako umeek heldu edo arduradun batek lagunduta joan behar dutela.

Azkenik, hilaren 22an *Goazen oinez ikastetxera* ekimena egingo dute; hau da, autoa etxean utzi eta ikasleak ikastetxeetara oinez joatea. Alzuak esan du hori ez dutela egun bakar batera mugatu nahi.

BILERA ASTELEHENEAN

Ekintzak aurrera ateratzeko herritarren parte-hartzea derri-gorrezkoa denez, astelehenerako, hilak 14, bilera antolatu dute. Ibarraundi museoan egin dute hitzordua, 18:00etan. Gaiari interesatuta dauden guztiak gonbidatuta daude bilerara.

### Egitaraua, eguna-ordua

17, eguna

17:00 Motorrik gabeko garraio alternatiboen lehiaketa, Aranburuzabala kalean.

18, egubakoitza

10:00 Erreka Eguna: auzolanean erreka garbitzera joango dira, herriko plazatik.

20, domeka

10:00 Bizikleta martxa, Eskoriatza-Arrasate-Eskoriatza, plazan.

22, martitzena

*Goazen oinez ikastetxera!* ekimena goizean.



Berri Txarrak taldearen lan berriaren azala.

GOIENKARIA

> GAZTEAK

## Aurkezpen jaiarekin emango diote hasiera gaur arratsaldean aurtengo ikasturteari gaztelekuan

Udako oporren ostean, gaur, egubakoitza, zabalduko dute herriko gaztelekua. Bereziki DBHko 1. mailako ikasleendako zuzenduta dagoela gogorarazi dute. Horrekin batera, aipatu dute lehenengo asteburuari begira ekintza bereziak antolatu dituztela.

Gaur aurkezpen jaiari eta jarraian merienda egingo dute. Ekimen horri 17:30ean emango diote hasiera. Bihar, zapatua, mahai-futbol txapelketa egongo da ordu berean; eta domekan, berriz, mahai jolas txapelketa.

## KIROLA

Udalaren  
asmoa da  
gimnasioa  
urrian  
zabaltzea

Muskulazio eta fitness gela, ikastaroetarako beste gela bat, aldagelak eta bulegoa izango ditu

I.A. &gt; ANTZUOLA

Udalak Eguzki auzoko etxe berrien azpian egongo den gimnasio berriaren erabilez eta kudeaketaz arduratzeko deialdia egin zuen maiatzean. Hainbat enpresak interesa azaldu zuten arren, azkenean ez zen enpresarik aurkeztu, Udalak baldintzetan ipinitako gimnasioaren ardura hartzeko gertu ez zuelako.

Hortaz, prozedura irekia- ren ostean deialdia hutsik geratu zenez, Udaletik prozedura negoziatuari ekin zioten eta enpresaren batekin akordioa lortzeko batzarrak eginen dihardute.

Udaleko Kirol zinegotziak esan digunez: "Hasierako asmoa gimnasio berria urrian zabaltzea zen eta bere horretan mantenduko dugu. Hortaz, urrian barrena zabalduko dugu Eguzki auzoko gimnasioa, azken orduko arazorik ez badago, behintzat".

## AURKI, IKASTAROEN ESKAINTZA

Gimnasio berriak 300 metro koadro inguruko azalera izango du eta han kokatuko dituzte muskulazio eta fitness gela eta beste gela bat ikastaroetarako izango dena. Horretaz gain, aldagelak eta bulegoa egongo dira.

Gimnasioaz arduratuko direnek euren kargua hartu bezain laster jakinaraziko dute ikastaroen eskaintzaren berri, eta orduan zabalduko dute izenematea.



Eguaztenean lagun arteko partidua jokatu zuten Antzuolak eta Aloña Mendik Eztalan.

JOSE ANGEL FERNANDEZ

## KIROLAK &gt; FUTBOLA

Eztalako futbol zelaia berri-  
osteko inaugurazioa egingo dute

Zapatuan izango da ekitaldia, Elgoibarren aurkako partiduen aurretik

## IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ANTZUOLA

Belar artifiziala ipini eta futbol zelaia egokitzeko lanak amaituta, futboleko jokatzeko gertu dago Eztalako zelaia.

## LAGUN ARTEKO PARTIDUA

Jokalariak hasiak dira entrenamenduetan, eta eguaztenean Aloña Mendi taldearen aurka lagun arteko partidua jokatu zuten erre-

gional preferente mailakoek. Oñatiarrak nagusitu ziren Ezta- lan eta, norgehiagokaren amaie- ran, emaitza honako hau izan zen: Antzuola 2-Aloña Mendi 3.

## HEZKUNTZA &gt; IKASTAROAK

Izenematea abian euskara eta  
helduen heziketa ikastaroetan

I.A. &gt; ANTZUOLA

Ikasturte hasiera izanik, zabaldu dituzte hainbat ikastarotan izena emateko epeak.

Helduen Heziketan honako ikastaroak eskainiko dituzte: alfabetatzea eta hezkuntza orokorra; ingeleseko hasierako maila, nahiz eta ez den ziurtatzen taldea eratuko denik; ingeleseko jarraipen taldea; eta informatika. Eskolak irailaren 17an hasi eta asteen bi egunetan eta bina ordukoak izango dira. Ikastaro-

ko 24 euro ordaindu beharko dira eta udaletxean eman behar da izena irailaren 15a baino lehen.

## EUSKARA ESKOLAK

Irailaren 15a da baita ere azken eguna udaletxean euskara ikastaroetan izena emateko. Bi ikastaro izango dira: oinarritzkoa, urritik ekainera artekoa, 210 ordukoa; eta alfabetatzekoa, 100 ordukoa, egutegia oraindik zehazteke duena. Taldea osatzeko gutxienez zortzi lagun behar dira.

&gt; JAIA

Ardanbidetako  
zabalgunean erromeria  
egingo dute domekan

Legazpi eta Antzuola arteko Ardanbidetako zabalgunean erromeria izango da irailaren 13an, Legazpiko Zingizango Euskara Elkarteak antolatuta. 12:00etako agurraren ostean, txirindulariei harrera egingo diete eta gero dantzaldia izango da. Saioa 13:00etan hasiko da, Patxi eta Konpainia taldearen musikarekin. 15:00etan egingo dute bazkaria eta ondoren jolasak izango dira. Jatekoa norberak eraman beharko du, baina jairako propio ipinitako tabernan pintxoak izango dira.

&gt; KIROLA

Martitzenean hasiko  
dira gaztetxoendako  
pilota eskolak

Olalde Pilota Elkartearen eskutik martitzenean, irailaren 15ean, ipiniko dituzte abian pilota eskolak 9 eta 16 urte bitarteko gaztetxoendako. Martitzenean eta eguenetan egingo dituzte saioak Udal Pilotalekuan, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Josu Zabalok pilota irakasle moduan utzitako tokia Patri Bideluzek eta Andoni Balerdik hartuko dute aurten. Pilota eskola horien asmoa da gaztetxoei jokoan irakastea eta, batik bat, pilotarako zaletasuna sortzea.



Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. eta faxa:  
943 76 60 89

## ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**



Sukalderako eta  
bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Emmanuel Igartua > Elgetako Herri Eskolako zuzendaria

# "Iaz baino gela bat eta bi irakasle gehiago izango ditugu aurten"

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Asteon eman diote hasiera ikasturte berriari Elgetako Herri Eskolan. Astelehenean ordutegi osoarekin hasiko dira, eta lehenengo eguna izango da 2 urtekoen gelan sartzen diren umeendako. Talde eta irakasle gehiago izango dira ikasturte honetan.

## 87 ikasle izango ditu aurten Elgetako Herri Eskolak. Kopuru polita, ezta?

Horrela da. Iaz baino gela eta irakasle gehiago ditugu aurten. 2 urtekoen gelara 14 ume datoz eta bi irakasle gehiago izango ditugu: bata lanaldi osoarekin eta bestea erdiarekin. Guztira, 13 irakasle.

## Haurreskolaren gela libre egoitea ondo etorri da, beraz?

Fenomeno. Gela horretan sartu ditugu 2 urtekoen gelako umeak. Apropo da oso. Komunak bertan ditu, lo egiteko gela dauka... ondo egongo dira.

## Nola zabiltzate espazio aldetik Elgetako eskolan?

Beste ikastetxe batzuetan nola dabilizan ikusita ezin gara kexatu, baina ditugun gela guztiak okupatuta dauzkagu. Egia da hainbat zerbitzuek bere gela dutela: laguntza gela dugu, liburutegia, musika gela, ingelesaren gela, ordenagailu gela eta psikomotrizitate gela.

## A gripeak eman du zeresana ikasturte hasiera honetan. Jaso duzue informaziorik?



Emmanuel Igartua zuzendaria, eskola atarian.

L.Z.

Aurreko astean, barikuan, Donostian elkartu gintuzten Gipuzkoako zuzendari guztiak. Hezkuntzako delegatua, pertsonal-burua eta departamentuko prebentzioko medikua batzartu ziren gurekin. Gauza jakinak esan zizkiguten, eta hartu beharreko neurri mordera azaldu zituzten. Esaterako, eskuak maiz garbitu behar direla, gelek aireztatuta egon behar dutela, ahozapiak

**"Fenomeno etorri zaigu haurreskolak gela libre uztea, hor sartuko ditugu bi urteko umeak"**

**"A gripea dela-eta garbitasun neurri bereziak hartzeko eskatu digute"**

eta mukiak kentzeko zapiak papezkoak behar dutela eta behin erabilia bota egin behar direla... Azken batean, garbitasuna zaindu egin behar dela, ordenagailuen teklatuak, ateetako pomoak...

## Eta nola jokatu behar duzue zantzurik hartuz gero?

Umeren batek sintomak dituela atzematen badugu, lehenengo gurasoei notifikatu behar diegu. Ume horrek sendagilerengana joan beharko du eta, gripe kasua dela baieztatzen bada, ume horrek gutxienez zazpi egun egin beharko ditu etxean. Hori ez bakarrik umeekin, baita irakasleekin eta eskolan lanean diharduten guztiak ere.

Gainera, hutsegite guztien berri eman behar dugu egunero. Aplikazio informatiko baten bitartez ikastetxean ematen diren falta guztiak bidaliko ditugu. Umeenak, irakasleenak eta langileenak.

## Zer da Biziberritze programa?

Aurten hasi behar dugu proiektu horrekin. Lehenago edo geroago zentro guztiak egin behar dugun proiektua da. Eskolan dauden estamentu guztien arteko -guraso, irakasle, ikasle- bizikidetza zelan bultzatu landuko dugu. Protokolo batzuk ezartzearen moduko zerbaite izango da. Irakasle guztiak sartuko gara egitasmo horretan. Bilerak egingo ditugu, gurasoak tarteko direla. Izaskun Altuna izango da koordinatzailea eta liberatuta egongo da zeregin horretarako.

bere ustez



Eduardo Zubiaurre

## Balore femeninoak dituen herria

**A**nbizioa, nabarmentzeko grina, aldaketak aukera moduan hartzea, azkartasuna, eraginkortasuna... horrelakoak dira ipar amerikarren artean nagoen bakoitzean nabaritzen dituzan jarrera eta baloreak.

Etxera etorri eta atzeratutako egunkariak begiratzea nahikoa da, oinarrian dituzun balore kulturalak bestelakoak direla nabaritzeko. Jatortasuna, apaltasunez aritzea, aldaketekiko gehiegizko ardura, zuhurtzia, jasagarritasuna. Antropologian balore

## "Emaizta oparagoak nola lortu aztertu beharko genuke (...) aldaketa garaitan"

femenino moduan ezagutzen diren horiek.

Izaera bakoitzak bere abantailak eta ahuleziak ditu, eta gure kasuan argi dago zerbaite hobetu edo orekatu beharrean gaudela. Edozein sistemak iraunkorra izan nahi badu begiruneaz eta elkartasunaz gain sormena eta eraginkortasuna ere beharrezkoak ditu. Jarduera kulturalean, jokabide politikoetan zein lan harremanetan, betiko egikeri lotuta jarraitu beharrean emaitza oparagoak nola lortu aztertu beharko genuke. Aldaketa sakon eta azkarren garai honetan, ausardiaren eta beldurraren arteko oreka izan daiteke gomendagarriena. Gure kasuan, hobe apurtxo bat ausartagoak izaten hasiko bagina.

oharrak

DEIALDIAK

## > Erretiratuen irteera eta Athleticzaleen batzarra

Elgetako erretiratuek arratsalde-pasa egingo dute Garaion hilaren 17an. Izena eman nahi duenak Pedro Mari Uberarengana jo behar du hilaren 13a baino lehen.

Herriko Athleticzaleek, berriz, batzarra egingo dute domekan Bolatokian, partidua hasi aurretik.

inkestak

## Nork irabaziko du domekan Kontxako bandera?

**A**rraunak gero eta zale gehiago ditu Elgetan. Domekan urteko estropada garrantzitsuenak jokatu da Donostian, eta Elgetatik jarraitzaile mordera joango da ikustera. Hondarribiko Ama Guadalupek ditu herrian jarraitzaile gehien, baina Kaikurenak, Castrorenak eta Oriorenak ere badaude. Aurreko domekan ikusitakoak ikusita, hiru jarraitzaile euren kiniela egiteko eskatu diegu. Eta ausartu egin dira! Kaikuren eta Castroren artean ikusten dute lehia nagusia.



Eleder Lozano  
Kaikuren jarraitzailea

Zortzi bat segundoko aldearekin Kaikuk irabaziko duela uste du. "Kortak asko daki eta lan handia egin du, teknikan batez ere. Ez nuen espero Kaiku halako ondo ibiltzea aurten".

Domekan Kontxan izango da Eleder. Haren kiniela: Kaiku, Castro, Hondarribia, San Pedro, Pedreña, Oriu, Urdaibai eta Donostia Arraun.



Mikel Romaneli  
Castroren jarraitzailea

Ez du itxaropenik galtzen, eta uste du itsaso zakarrarekin posible dela bandera Castrok eramatea. "Itsaso lasaiarekin errezatu egin behar!", esan digu. Gehienez pare bat segundoko aldea egongo dela uste du. Nahikoa bandera eramateko. Haren kiniela: Castro, Kaiku, San Pedro, Hondarribia, Pedreña, Oriu, Urdaibai eta Donostia Arraun.



Josu de Vega  
Hondarribiaren jarraitzailea

Kaikuri ematen dio bandera 12 segundoko aldearekin. "Hondarribiak maila ikaragarria erakutsi du aurten ere. Donostiako lehenengo estropadan irabazle-en marka egin du. Pentsa nola dabilizan aurretik daudenak!"

Haren kiniela: Kaiku, Castro, Hondarribia, San Pedro, Pedreña, Oriu, Urdaibai eta Donostia Arraun.



Untzillarako bidearen ondoan joango den kilometro erdiko biaduktuaren zutabeak.

TXOMIN MADINA

ZUTABEAK

90

METROKO ZUTABEA

Biaduktuaren puntu garaienak 90 metro izango ditu; Cuatrovientos baserriaren azpian tunelean sartu aurretik, hain justu ere. Gainontzeko zutabeek 40 metro inguruko altuera dute.

betetzen. Asier Agirre alkateak adierazi digu lanak egiten dabil-tzan esparruaren inguruan dau-duden zenbait baserriaren arazo asko eragiten dabiltzala. "Baserriar batzuek benetako arazoak izan dituzte baserrietara iristeko. Horrez gain, ez dute inolako hesi-rik ipintzen eta ganadua askotan lanetara sartzen da", dio alkateak. Alkateak gaineratu du kamioiak abiadura handian ibiltzen direla eta, zenbait tokitan, errepidea estua izatean, istripu-ren bat gertatzeko arrisku handia dagoela.

Udal Gobernuaren beste kezka handia da trenaren lanak bukatzen dituztenean inguruak nola utziko dituzten. "Trena eraikitzeke kalte handiak egiten ari dira toki askotan: pistak egin dituzte, lurrak mugitu, errepideak apurtu... Suposatzen da lanak bukatzen dituztenean ingurua txukundu egin behar dutela, baina, egia esan, gure zalantzak ditugu", dio alkateak.

AZPIEGITURAK &gt; ABIADURA HANDIKO TRENA

## Lanak Untzilla auzotik aurrera Cuatrovientos baserriantz doaz

Kilometro erdi izango duen biaduktuaren lehenengo zortzi zutabeak eraiki dituzte dagoeneko

Eskoriatzarantz joango den tunela eraikitzeke lehenengo leherketak egiten hasi dira

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Debagoiengan, Abiadura Handiko Trenaren lanak Aramaion daude aurreratuen. Trena Eskoriatzatik iritsiko da Aramaiora, Zabola parean, eta Arrasatera joango da Cuatrovientos (Untzeta Gaina) baserriaren azpian tunelean sartuta; 5,1 kilometroko ibilbidea izango du eta horietan bi tunel eta biaduktu bat igaroko ditu trenak.

Aramaion pasa den urteko uztailean hasi zituzten Abiadura Handiko Trenaren lanak eta Zabolak bizilagunak izan ziren lanok ikusten lehenak. Zabolatik, gero, Untzilla aldera iritsi ziren lanak. Untzillarako bidearen ondoan kilometro erdiko biaduktua eraikiko dute; duela sei hilabete inguru hasi ziren biaduktuaren zutabeak eraikitzen. Zutabeok 40 metro inguru dituzte eta dagoeneko eraiki dituzte lehenengo zortziak. Biaduktuaren azkeneko zutabeak, Cuatrovientos baserriaren parean joango denak, 90 metro inguru izango ditu eta horixe da hurrengo jasoko dutena. Bada, Cuatrovientos baserriaren azpialdean dagoeneko hasi dira lurra mugitzen. Biaduktuaren zutabe eta zatirik konplikatua izango da hori.

Trenaren lanak, beraz, Cuatrovientos baserriira iristen ari dira apurka-apurka. Beste norabideari dagokionez, Eskoriatzara doana, duela aste batzuk hasi ziren lehenengo leherketak egi-

ten Zabola parean joango den tunela eraikitzeke. Esan daiteke trenak Aramaion izango duen ibilbidea agerian geratzen ari dela astetik atera.

UDAL GOBERNUA, HASERRE

Udal Gobernuak adierazi du trenaren lanak egiten dabil-tzan enpresek ez dituztela hitzartutako neurriak eta konpromisoak



Aramaio erreka.

A. BARRUSO

Aramaio errekatik ura hartzen ari direla salatu dute

Aramaio errekan, Untzillarako bidegurutzearen inguruan, argazkian ikusten diren hodiak aurkitu ditugu. Udal Gobernuak salatu du trenaren lanak egiten ari diren presa txiki bat eraiki dutela bertan eta inolako baimen barik bertatik ura hartzen ari direla hodi horiek erabilita. Alkateak salatu du Bolinburu errekan ere gauza bera egin zutela eta dagoeneko lehortuta dagoela. Bi erreka horietako arrainak desagertzeko arriskua dagoela gaineratu du.

ERRETIRATUAK &gt; ALAIK ELKARTEA

## Elkartearen urteko bazkaria egingo dute hilaren 20an

Izena emateko epea irailaren 14an amaitzen da; bazkariaren prezioa 5 euro da

A.B. &gt; ARAMAIO

Alaiak erretiratuen elkarteak urteko bazkaria egingo du datorren asteko domekan, irailak 20. Elkartearen arduradunek azaldu dute ez dela Erretiratuen Eguneko bazkaria, elkartearen kideek urtero egiten duten bazkaria baizik. 14:30ean izango da, kirol-

degian, eta ondoren opariak banatuko dituzte. Izenemate epea hilaren 14an amaitzen da. Bazkarira joan nahi dutenek 5 euro ordaindu behar dituzte Vital Kutxan.

KANTABRIARA IRTEERA

Irailaren 18an, berriz, Kantabriara irteera egingo dute. Santonara joango dira bertako kontserberak ikustera. Arratsaldean, gero, Castrora joango dira. Izena emateko epea hilaren 13an amaitzen da; 30 euro ordaindu behar dira Euskadiko Kutxan.

EUSKARA &gt; IKASTAROAK

## Hiru talde bereiztuko dituzte euskara ikastaroetarako

A.B. &gt; ARAMAIO

Euskara ikastaroak antolatu ditu Udalak eta 21 pertsonak eman dute izena. Mailaren arabera hiru maila bereiztu dituzte. Hasieratik hasi nahi dutenentzat eskolak egongo dira. Horiek antolatzeko irailaren 16an bilera egingo dute, 18:30ean udaletxe-

an. Bestetik, Mintzalagun proiektua ipiniko dute abian euskaraz hitz egin nahi duten euskaldun zaharrendako. Azkenik, aurreko bi taldeetan sartzen ez direnei dirulaguntzak emango zaizkie euskaltegi batean matrikulatu nahi badute. Informazio gehiago, Udaleko Euskara Zerbitzuan.



OSPAKIZUNA > ERRETIRATUEN EGUNA

# Erretiratuen Eguna ospatuko dute bihar Toki Eder elkarteak

Herriko erretiratu guztiei eskaintzen die omenaldia Udalak eta Toki Eder elkarteak izango dute bazkaria, urtero legez; bazkalostea musikak girotuko die

**MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA**  
Andramari jaiak bukatu eta gero, erretiratuei omenaldia egiteko eguna dator. Hala, bada, bihar, irailak 12, bazkaria eskainiko die Udalak, Garro jauregian egoitza duen Toki Eder elkarteak.

**BAZKARIA ETA MUSIKA**  
Herriko erretiratu guztiek, kalekoek zein baserrietakoek, jaso dute Udalaren gonbidapena biharko. Eta asko izango dira dei horri erantzunaz elkartuko dire-

nak; iaz 30en bat eta aurten ere antzera izango direla uste du Ainara Zubillagak, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak.

Eguerdi inguruan elkartuko dira guztiak eta, herrian bueltatxo bat eman ostean, Toki Eder elkarteak izango dute bazkaltzeko topagune. Jatetxeren batera joan baino nahiago dute Gatzagako elkarteak bazkaldu erretiratuek, lasaiago izaten direlako bertan. Bazkalostea girotzeko trikiti doinuak izango dituzte. Bien bitar-

tean, batzuk kontu kontari izango dira eta beste batzuek karta jokoan jardungo dute.

**OPARIAK GUZTIENDAKO**  
Ospakizuna bukatu aurretik oparitxoak banatuko dizkie Udaleko Gizarte Zerbitzuak elkartutako guztiei. Eta herriko nagusienek opari berezia jasoko dute. Iaz legez, nagusiena Asteisolo baserriko Narciso Beitia da, 96 urterekin—Udalak dituen datuen arabera. Emakumeetan, ostera, Matilde Arrese da nagusiena, 91 urte beteta.

DATUA

**96**  
URTE

Herriko nagusienak 96 urte ditu. Asteisolo baserriko Narciso Beitia da hura. Emakumeetan, ostera, kalean bizi den Matilde Arrese da; 91 urte ditu. Aipamen berezia izango dute bihar bi horiek.

INTERNET

## Hainbat ikastaro gaur KZgunean

Sare sozialak ezagutzeko aukera izango dute bi orduko ikastaroetan

**M.A. > LEINTZ GATZAGA**  
Gaur, irailak 11 eta datorren irailaren 25ean etorriko da Aitor Madrid begiralea Gatzagako KZgunera, Interneten gaineko hainbat ikastaro eskaintzera (16:00-20:00).

Herritarren interesak kontuan izanda bi orduko hainbat ikastaro izango ditu aukeran. Sare sozialak zer diren ezagutu, *Skype* eta *Google* tresnak zelan erabili jakin, norberaren zuhaitz genealogikoa egin, *Gmail*, *Youtoube*, *Flickr* eta antzekoak erabiltzen ohitu eta beste hainbat kontu erakutsiko ditu Madridek, Internet herritarrei hurbiltzeko asmoarekin.

> URTEURRENA

## Bertso afaria antolatu du Soran Etxea hotelak urteurrena ospatzeko

Iaz irailaren 11n zabaldu zituen ateak Soran Etxea hotelak eta lehen urteurrena ospatuko dute gaur, egubakoitza. Bertso afaria antolatu dute eta bertan izango dira Jokin Labaien bertsolari arrasatearra eta Iñigo Manzisidor zarauztarra.

Menu berezia eskainiko dute Soran Etxeko jatetxean 30 euroren truke.

## Jende gutxiago, baina oso giro ona Andramari jaietan

Martitzenean, Dorletako Ama Birjinaren eguneko meza nagusienekin bukatu zituzten herriko jaiak. Eguraldia lagun giro bikaina izan dutela jakinarazi digu Ainara Zubillaga zinegotziak, "batez ere egunez". Hala, jende asko elkartu zen hainbat ekitalditan; Zo Zomgo perkusio taldea eta flamenko ekitaldia ikusteko, esaterako. Baita astelehen ilunkaran Dorletan ere. Gaez, ostera, jende gutxiago ibili da: "Rock kontzertuan asko, baina hurrengoetan gutxitxo, ostalarien esanetan", dio Zubillagak.



MIRARI ALTUBE



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

FUTBOLA &gt; ERREGIONAL OHOREZKO LIGA

# Hastera doa ikuskizuna

Asteburuan hasiko dute ibarreko taldeek erregional ohorezko liga

Bergarak eta Aloñak etxean jokatuko dute domekan; Mondrak Hondarribian

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Bihar hasiko dute liga txapelketa hainbat berritasunekin dator. Batetik, izena. Orain arte preferente moduan ezagutu dugun kategoria aurrerantzean erregional ohorezko liga izango da. Bestetik, Debagoieneko taldeak dagokienez, Bergarak beteko du Aretxabaletak utzi duen hutsunea.

Taldee dagokienez, ez dira horrenbeste aldaketa egon. Entrenatzaileak iazko aurpegi ezagunak dira: Andoni Azkargorta (Mondra), Josu Zubia (Aloña Mendi) eta Manu Diaz (Bergara), eta jokalariek dagokienez, gora-behera batzuk izan badira ere, hiru entrenatzaileek azpimarratu diote GOIENKARIAri iazko bloke bera mantentzen dutela.

## BERGARA ETA ALOÑA, ETXEAN

Bergarak eta Aloña Mendik etxean hasiko dute liga, domekan. Dena dela, nahiz eta Bergarak

## ESANAK

**"Arrasate Hiria torneoan jokoagatik baino taldeak erakutsitako jarreragatik poztu nintzen"**

Manu Diaz &gt; Bergarako entrenatzailea

**"Gozamena da Aloñako jokalariekin lan egitea, entrenamendu eta partiduetan dena ematen dutelako"**

Josu Zubia &gt; Aloñako entrenatzailea

**"Emaitzek erakutsiko dute non dagoen Mondra, baina postu bakoitza iaz baino hobeto dugu aurten beteta"**

A. Azkargorta &gt; Mondrako entrenatzailea

lehenengo partidua domekan jokatuko da, mahoneroek etxean jokatzen dutenean normalean zapatuan jokatuko dute. Lehenengo jardunaldirako ez dituzte kontrario makalak izango. Aloñak hirugarren mailatik jaitsi berri den Ordizia izango du aurrean (16:30), eta Bergarak iaz txapelketa bigarren amaitu zuen Hernaniren kontra jokatuko du (17:00).

Mondrak, bestalde, kanpoan hasiko du erronka, domekan baita ere, Hondarribian (17:00). Taldeetako entrenatzaileei denboraldi berriaren gainean galdetuz gero, guztiek erantzun dute gauza bera: daukaten taldearekin konforme daudela, gustura, baina denboraldi-aurrean lana ondo egin badute ere, lehenengo partidua beti sortzen dituela dudak, "hemendik aurrera amaitu dira bromak".

## MONDRAK, SENDOTASUNA

Iazko taldearekin alderatuta, Azkargortak aurten konfiantza handiagoarekin hasiko du liga: "Gero emaitzek erakutsiko dute Mondra non dagoen, baina, hasiera baten, postu bakoitza iaz baino hobeto dugu beteta. Postu bakoitzerako bi jokalaririk ditugu, eta lehiakortasun horrek on egingo dio taldeari". Bestalde, jokalarien gorabeheren gainean ere galdetu diogu. Besteak beste, pena, Leioan liga ondo hasi duen Julen Zaitegiri eutsi ezin izana: "Ederra izango zen gurekin geratu izana, baina pertsonalki ni asko poztzen naiz liga zelari hasi duen ikusita. Belauneko lesioarekin futbolaren alde txarra bizi izan du, ia zerotik hasi behar izan du, eta talde berriari zorte onena opa diot".

Egia esan, taldean denbora laburra egin duena ezin da faltan igarri, Zaitegirik lau partidua baino ez zituelako jokatuko. Trukean, baina, Andres Castillejo atzelaria Mondrara itzuli izana "zerutik etorritako oparia" izan dela adierazi du Antzuolako entrenatzaileak: "Atzelariz osatutako zerrenda bat geneukan, Mondrarako nahi genituenak, eta zerrenda horretako lehena etorri zaigu".

Bestalde, aurtengo helburuen gainean galdetuta, Azkargortak iazko diskurtsoa aldatu du: "Iaz helburu bat jarri nuen jokalariekin batera, eta ez genuen bete. Aurten, berriz, partiduz partidua joan gura dugu, eta

helburu bakarra talde sendoagoa egitea da".

## BERGARA, HASIBERRIA

Manu Diazen taldea ere ez da iaztik asko aldatu. Iaz Mondran ibili zen Arazkoganak lagunduko du mahoneroen atzealde sendotzen, eta Bergarako taldea etxeko jokalariekin jokatzearen aldeko izaten jarraitzen du; emaitza ederrak jaso dituzte horrela.

Manu Diaz galdetu aurretik, beste bi entrenatzaileek egin dute kategoriaz igo berri den taldearen gainean berba: "Gero ikusi egin beharko da zelari hasten diren, baina, hasiera baten, ez dut uste sufritzen ibiliko den taldea denik", adierazi du Azkargortak. Josu Zubia ere iritzi berekoa da:



Bergara taldeko Markel Ilzarbe.



J.A. Aloña Mendiko Roberto Idigoro.

"Amaikak Bat taldea erregional urte borobila egin eta iaz preferentera igo zirenean negargarri ibili ziren, baina ez dut uste Bergarari horrelakorik gertatuko zaionik. Bergarak bloke sendoa du, eta horrekin batera, jokalari

urteak daramatzate elkarrekin jokatzen. Ondo ibiltzeko moduko taldea daukatela uste dut, baina egia da kategoria honetan indarrak oso parekatuta daudela; horrenbestez, ezin da askorik aurreratu".

## Animatu euskaraz bizitzera. Merezi du eta!

### Eta horretarako?

- Euskara ikasi
- Dakizun euskara hobetu

### Zela?

- Euskaltegiako euskara ikastaroetan apuntatuta, bai euskalduntzeko eta bai alfabetatzeko ikastaroetan.
- **BERRIKETAN** egitasmoan parte hartuta.

## IKASI ERABILTZEKO ETA ERABILI IKASTEKO



Bergarako  
Udaleko  
Euskara  
Batzordea



DEBAGOIENeko  
AEK Euskaltegia  
Tel.: 943 77 03 69



Udal euskaltegia  
Tel.: 943 76 44 53



Jardun  
Euskara Elkarte  
Tel.: 943 79 36 61



AS.



J.A. Mondrako atzelari Iker Laspiur.

J.A.

Manu Diazek badaki taldeak lan ona egin duela udan: "Geroago eta hobeto ibili gara eta gustura nago. Besteak beste, Arrasate Hirian jokoak baino gehiago, taldeak erakutsi zuen jarrerak poztu ninduen. Baina bai, zalan-

tzak hor daude, kategorian berriak garelako eta maila honetan aspaldi jokatu ez dugulako. Ikusi egin beharko da taldea zelan moldatzen den kategoria berrira". Gainera, mahoneroek izango duten liga hasiera gogorrek ere

**"Ikusi egin beharko da taldea zelan moldatzen den kategoria berrira; hori da gure zalantza"**

Manu Diaz > Bergarako entrenatzailea

**"Iazko talde bera izan arren, urtea erabat ezberdina izan daiteke hasieratik ez bada lana ondo egiten"**

Josu Zubia > Aloñako entrenatzailea

**"Aurten ez dugu helburu zehatzik ipiniko, talde sendoa egin eta partiduz partidu joatea"**

A. Azkargorta > Mondrako entrenatzailea

ez du askorik laguntzen. Bergarak Hernaniren kontra egingo du estreinaldia, eta goiko kategoriatik jaitsi berri diren Ordizia eta Zarautz izango ditu ondoren zain. Ligako hiru oilar izango dituzte lehen jardunaldietan.

ESANAK



GOIENKARIA



GOIENKARIA



GOIENKARIA

ko, txapela kentzeko moduko lana egiten dute". Besteek moduan, ikasturte berriaren aurrean Zubiak ere bere zalantzak ditu: "Nahiz eta taldea askorik aldatu ez, urte batetik bestera hainbat faktoreren eraginez gauzak asko alda daitezkeelako".

Iaz hemeretzi jokalaria baino ez genituen, eta azkenean ordaindu egin genuen hori. Ez genuen lesio larririk izan, baina atsedenik hartu ezin, eta gainkargak... Otsailean oso hilabete txarra izan genuen, eta aurreko postuek ihes egin ziguten. Hori ikusita, futbola utzita zeukatzen hainbat jokalaria itzuli egin dira aurten, eta eskertzekoa da hori.

Aloñak galdu duen jokalaria garrantzitsuena Axier Ugarte da: "Zorterik onena opa diot Eibarren. Axierren ordez etorri direnek lana ondo egingo dutela uste dut. Egia da Axierrek 20 gol egin zituela iaz, eta minutu gehien jokatu zuen jokalarietako bat izan zela. Hori berdintzea ez da erraza, baina guk aurrera begiratu behar dugu".

**TALDEAK ERREFORTZU ASKOREKIN**  
Entrenatzaileei liga irabazteko faboritoen gainean galdetuta, erantzun bera bota dute hirurek. Errefortzu asko egon dira hainbat taldetan, eta bistan da goiko kategoriatik jaitsi direnak talde sendoak izan behar direla, ia derrigor. Horrez gain, Azkargortaren, Zubiaren eta Diazen esanen arabera, adi Hernani, Pasaia eta Beriorekin.

**ALOÑA: LANA**

Josu Zubiarendako Aloñan egingo duen hirugarren denboraldia izango da aurtengoa: "Gozamena da talde honekin lan egitea, entrenamenduetan eta partiduetan jokalariek dena ematen dutela-

**BICIPRECISIÓN IGARTUA** BERGARAn, Zubieta kalean 943 76 11 21  
Sei hilabetetan ordaintzeko, interes barik!

**LAPIERRE™**  
2010eko gama berria!



www.lapierrebikes.com

**ETOR ZAITEZ  
PROBATZERA!**

Lapierre-ren FPS eta OST pibote birtualeko sistema eskusiboak haxe eskaintzen du:

- Abiadura txikian, konpresioen amortiguazioa handitzea
- Abiadura handian, trantsizio hobe
- Bizikleta egonkorragoa
- Kikback-a desagerrarazten du
- Aurrealdean heltze-ahalmen handiagoa
- Egonkortasun handiagoa
- Bibrazioek ez diete pedalei eragiten

Abantaila horiei guztiei esker, Lapierre-ren X-Control bizikletak oso erosoak dira eta momentu bakoitzean gozatzeko aukera aparta emango dizute.

**cervélo**



www.cervelo.com

Munduko bizikleta aldizkari garrantzitsuenen iritzi:

- Koadrorik hoberena aukeratu dute
- Arinena
- Transmisio sistemak erantzun ezin hobe ematen du
- Erosoa
- Gogorra
- Asistentzia aseguru barne (laguntza mekanikoa, fisikoa, lapurreta, hausturak)

**Ondo pasa San Martinetan!**

**ESKAIINTZA: 25 kg duen spinning bizikleta Lehen: 1.100 € Orain: 680 €**

FUTBOLA &gt; HIRUGARREN MAILA ETA LIGA NAZIONALA

## UDAK Barakaldora egingo du bidaiia domeka goizean

Gazteen nazional mailan jokatzeko dabilen

Aretxabaletak, berriz, Athletic hartuko du domekan Ibarren

X.U. > ARETXABALETA

Aretxabaletako talde nagusiak etxetik kanpora jokatu du hirugarren mailako hirugarren jardunaldia, Barakaldon (11:30). Bi talde horiek antzekotasun handia dute: Gordobilen taldea bezala, Iabi Requero zuzentzen duen Retuerto Sport ere aurten iritsi da hirugarren mailara. Bizkaitarrek, baina, aldaketa askoz ere handiagoak izan dituzte, taldea goitik behera aldatzearekin batera entrenatzailea bera ere berria delako.

Gauzak ondo egiteko asmoarekin, Retuerto izan zen Bilboko Ezkerraldeko taldeen artean denboraldi-aurrea goiztiarren hasi zuena. Abuztuko

lagun arteko partiduetan Retuertok ez zuen aparteko jokorik erakutsi, baina bai borrokarako grina.

Entrenatzaileak ere hori bera azpimarratu du aste barruan, borroka egin beharko duela Retuertori irabazi nahi dionak, baina Agurainen kontra joan den asteburuan borroka egitea hutsa ez zen nahikoa izan (1-0). Amurrioren kontrako lehen partiduan, berriz, (2-2) Retuertok ondo aprobetxatu zituen izandako bi gol aukerak, baina Amurriok askoz ere errekurso gehiago dituela erakutsi zuen. Laburbilduz, joko aldetik muga dezente dituen taldea aurkituko du domekan UDak.

**GAZTEAK, ATHLETICEN KONTRA**

Ekainean gazte mailan nazional mailara igotzeko txartela lortu zuen Aretxabaletak, berriz, domeka arratsaldean jokatu du Athletic taldearen kontra (16:30). Bestalde, UDak jai berezia antolatu du bihar-ko (ikus 26. orrialdea).



JOSETXO ARANTZABAL

### Domekan Oñatik hartuko du errelebua

Joan den astean Gatzagako mendiko bizikleta martxak izan zuen arrakastaren ondoren -argazkian-, domekan Oñatik hartuko du errelebua. Txirrindulariak 09:00etan irtengo dira, baina antolatzaileak 08:00etatik egongo dira izenak hartzen (10 euro). Ibilbide luzeak 44 kilometro izango ditu (iazkoa baino apur bat samurragoa) eta motzak, 30 kilometro.

### > TXIRRINDULARITZA San Migel sariaren 50. edizioa korrituko dute bihar Oñatin

Bihar, zapatua, 16:00etan hasiko da 50 urte egingo dituen San Migel saria. Gazte mailako txirrindulariek hartuko dute parte -sasoi batean amateur mailako lasterketa zen-, eta aurten kontutuan hartzeko berritasuna izango du urteurrena ospatzeko.

2005ean Euskal Herriko Itzuliko azken erlojupekoan moduan, zapatuan ziklistek Garagaltza auzoko Arregiko aldapa igo beharko dute (%12ko malda).

> ESKALADA

### Patxi Usobiaga Aretxabaletan izango da eguenean, hilak 17

Munduko eskalada txapelketa irabazi berri duen Patxi Usobiaga eibartarra Aretxabaletako Arkupen izango da datorren eguenean, hilak 17 (19:30ean). Usobiagak *Psikoblock: ur sakonetako bakardadea* lana erakutsiko du Arkupen. Lan hori Mediterraneo-ko kostaldeko harkaitzetan egindako eskalada saioetako irudiekin dago eginda. Soka barik egindako saioak dira, eroriz gero, uretara.



**AUTOBERRI**

San Andres auzoa 8  
ARRASATE  
943 71 24 72

[www.renault.es/concesion/autoberri](http://www.renault.es/concesion/autoberri)

## LAGUNA dCi 130 zp

IA BERRI ETA 2 URTEKO BERMEA.

EKIPAMENDU GUZTI HONEKIN:

- ESP
- Bi zonako klimatizazioa.
- Aluminiozko llantak.
- Irratia-CD-a MP3arekin.
- Bluetootha.



**SOILIK**

**17.500 €**


**USTEKABEAK SAHIESTEKO, AURTEN PIXKA BAT ERRAZAGO JARRI NAHI DIZUGU IAT-AREN AURRE AZTERKETA GUZTIZ DOAN!\***

Bonua  
aurkeztu


RENAULT AUTOBERRIn, zerbitzu eksklusibo hau eskeintzen dizugu. Gure profesionalak IATren azterketan ebaluatzen dituzten puntuak aztertzen dituzte. Autoa errebisatu ondoren, konponketaren baten beharra duela ikusiz gero, momentuan jakinaraziko dizugu, eta, nahi izanez gero konpromesu gabeko aurrekontua egingo dizugu.

Bonua  
aurkeztu

\* Eskeintza baliagarria 09/09/15etik 90/10/31ra.




> **IDAZKETA**  
Idazketa ikastaroa Aretxabaletan Karmele Igartuarekin > 38



> **GOSE**  
Arrasateko taldeak disko berria kaleratuko du urrian > 39

> **IKER ESKIBEL**  
Eskoriatzarrak Euskal Herriko kadete mailako mendiko txirrindularitza txapelketa irabazi du. Errepideko probetan jardun nahi du Ikerrek > 42



## Bergarako Orfeoia eta Aritzeta, Tirri Tarra taldearekin bihar

'Luz interna' ikuskizuna eskainiko dute zapatuan Udal Pilotalekuan, 22:30ean

Orfeoiko eta Aritzetako 45 lagun eszenatokian; guztira 100 lagunek hartuko dute parte

EDU MENDIBIL > BERGARA

Ehun bat lagun elkartuko dira bihar, zapatua, Udal Pilotalekuko eszenatokian. Emanaldia 22:30ean hasiko da. Pasai San Pedroko Tirri Tarra talde sinfonikoarekin (orain dela 36 urte fanfarre moduan sortutakoa) batera Sotto Voce Orkestrak, Bergarako Orfeoia eta Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo dute, 22:30ean.

*Luz interna* izenburuko ikuskizuna eskainiko dute, Jose Ignacio Rios Tirri Tarrako zuzendararen batutapean. 1999an *Re+ Fa* (Elkarlanean argitaletxea) diskoa kaleratu zuen Tirri Tarrak, taldearen ibilbidean jauzi erradikala suposatu zuena. Hain zuzen ere, sustrai folklorikoa zuen Tirri Tarra desagertu eta musika garaikideko talde berri-tuari paso eman zion. 2006an, *Argi Beltz* diskoa kaleratu zuen Tirri Tarrak, Donostiako Orfeoia eta Et Incarnatus soka orkestraren laguntzarekin. Musika kla-



Tirri Tarra talde sinfonikoarekin batera, Sotto Voce Orkestra, Bergarako Orfeoia eta Aritzeta abesbatzako kideak izango dira, 100 bat lagun guztira.

GOIENKARIA

sikoa, folka eta rocka uztartzen zituen Sergio Zurutuzaren konposizioak. Euskal Herriko, Galizia, Gaztela Leon, Madrid, Ara-

goi eta Kataluniako 25 abesbatza ezberdinekin aurkeztu zuten lan berria, baita Debagoienean ere. 2007an gure ibarrean izan ziren,

Arrasaten (Goikobalurekin), Oñatin (Ganbararekin) eta Aretxabaletan hain zuzen.

### KONPOSIZIO BERRIAK

Bergaran egingo duten emanaldiak *Argi Beltz* diskoa du ardatz, hainbat berritasun tartean badira ere. Hain zuzen, Sergio Zurutuzaren *Internas* lan berriak bere tartetxoa dauka. Oraindik lan berriaren grabaketan murgilduta egon arren, diskoko hainbat abesti zuzeneko emanaldietan aurkezten dabil Tirri Tarra. Igor Carballoren hitzetan, "*Luz interna* deritzogun kontzertuari sakontasun, indar eta sentimendu argiago bat ematen diote Zuru-

tuzaren konposizio berriek. *Luz interna* zuzeneko emanaldiak artearen munduan leiho berri bat ireki du, sentimendu garratz eta gozoez elikatuta, ikusleen senak pil-pilean mantenduz. Pozik gaude orain arte jasotako erantzunarekin eta zapatukoa ere ikusleen gustukoa izatea espero dugu".

### SARRERAK, 10 EUROTAN

Biharko kontzerturako sarrerak 10 eurotan jarriko dituzte salgai. Sarrerak kultura etxean daude eskuragarri eta zapatuan emanaldia hasi baino ordu bete lehenago zabalduko dute Udal Pilotalekuko leihatila.

### Udaberrian hasi zituzten entseguak

Joan den urteko abenduan hasi ziren pasaiarren eta bergararren arteko hartu emanak biharko kontzertua gauzatzeko. Lehenbizi Orfeoiko zuzendari Aitor Biainengana jo zuten; oñatiarrak bazuen kontzertuen berri 2007an Oñatiko Ganbara abesbatzak eta Tirri Tarrak egindako emanaldian parte hartu zuelako. Bergarako Udalaren oniritzia jaso eta gero, Aritzeta abesbatza gehitu zen emanaldira eta udaberrian ekin zioten Bergarako bi taldeek kontzertua prestatzeari. Jose Ignacio Rios Tirri Tarrako zuzendaria eta Joserra Sabando piano jolearekin hainbat entsegu egin dituzte eta joan den domekan partaide guztiek entsegu orokorra egin zuten Tirri-Tarraren lokalean, Pasaietan. Dena gertu dago.



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

**SVMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO

Karmele Igartua &gt; Idazle Eskolako koordinatzailea

## "Iritzi artikulua on bat zelan idatzi erakutsi nahi dugu"

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

**Lerro artera: iritzi artikulua** izenburuko ikastaroa antolatu dute Aretxabaletan, Arkupe kultura etxean. Iritzi artikulua landuko dute zortzi saiotan, Karmele Igartua idazle eta irakaslearekin. Ikastaroa 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta matrikula epea urriaren 10era arte dago zabalik.

### Zelan sortu da ikastaro hau antolatzeko aukera?

Bergarako UNEDeko Idazle Eskolan [matrikula zabalik dago] ibilitako zortzi ikaslek iritzi artikuluen gaineko mintegi bat landu genuen joan den ikasturtean, Tere Irastortza Idazle Eskolako zuzendariarekin batera. Beste batzuei idazten erakusteko helburuarekin, hamabostean behin elkartzen ginen eta materiala, metodologia eta ariketak prestatu genituen. Orain, material hori guztia frogatu nahi dugu, baliagarria eta eraginkorra den ikusteko eta zerbait zuzendu beharra badago, ba zuzentzeko. Aretxabaletan ez ezik, Zumarragan, Irunen eta Ataunen ere egingo ditugu ikastaroak eta UNEDeko ikasleei ere eskainiko zaie parte hartzeko aukera. Mintegiko partai-

deok izan garenok zuzenduko ditugu eta amaitutakoan iritsiko da konklusioak ateratzeko ordua. Hurrengo baterako zuzenketa eta poesiaren gaineko mintegiak martxan jarri nahi ditugu.

### Zergatik erabaki duzue iritzi artikulua lantzea?

Jendeak askotan nahi izaten duela iritzi artikulua plazaratzea, norberak pentsatzen duena adieraztea. Baina askotan ez dugu asmatzen ideia bat azaltzeko moduarekin. Gure helburua zera da: argitaratzeko moduko iritzi artikulua bat idaztea partaideek. Gertatzen diren gauzekin gure iritzi ematea inportantea da. Dena dela, eskolako ikuspegia alde batera

**"Idazle Eskolako mintegian landutako materiala frogatu nahi dugu, baliagarria eta eraginkorra den ikusi"**

**"Argitaratzea ez da erraza eta Internetek aukera ematen du"**

laga eta zerbait libreagoa egin nahi dugu ikastaroan.

### Zeintzuk dira iritzi artikulua baten osagarriak?

Lehenik eta behin, bakoitzak iritzi artikulua emango lukeen ikusi behar da eta, hortik abiatuta, iritzi artikulua hasiera ona, garapen erakargarria eta bukatu on bat izan behar du. *Gantxo*a hasieran izan behar du eta izenburuak ere zerikusia badauka... Dena dela, bakoitzaren gata eta piperra, estilotoa, bakantasa-na topatzea da kontua.

### Sare sozialek komunikaziorako aukerak handitu dituzte. Idazketa forma berriak idazketaren mesederako izan dira?

Internet ez da aukera txarra, bada idazketa lantzeko bide bat. Esate baterako, argitaratzea ez da erraza gertatzen eta Internetek aukera hori eskaintzen du. Idazle Eskolatik pasatu garenok [www.idazten.com](http://www.idazten.com) webgunean argitaratzen dugu eta gazteek oraindik joera handiagoa daukate Internet erabiltzeko.

**Idazketa etengabe landu beharreko gauza da, ala?**



Karmele Igartua.

GOIENKARIA

Eginaz ikasten da, zalantzarik ez. Idazten duzun neurrian eredu batzuk topatzen dituzu eta irakurtzea ezinbestekoa da.

**2008an, *Hitzak orbainetan* poesia liburua. Hurrengo?**

Banabil zerbaitetan, baina pixka bat itxaron egin behar da... *Egan* aldizkarian Marina Tsvetaievaren biografia bat argitaratu dut eta *Wilnoko gutunak* liburuaren itzulpena argitaratu berri dut.

**UDAL**  
EUSKALTEGIAK



**09/10 ikasturtea**

**MATRIKULA EGITEKO EPEA ZABALIK!**

### ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2  
(Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88  
Faxa: 943 79 91 43  
E-posta: [euskaltegi@arrasate-mondragon.net](mailto:euskaltegi@arrasate-mondragon.net)

### BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
[berg.eusk@udal.gipuzkoa.net](mailto:berg.eusk@udal.gipuzkoa.net)

### LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4  
20550 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62  
E-posta: [leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net](mailto:leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net)

Intxaurtxueta 10  
20540 Eskoriatza  
Tel.: 943 79 21 68  
E-posta: [leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net](mailto:leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net)

I AM  
TÚ ERES

... هي

**GU GARA**

VOUS ÊTES

ELES SÃO

**Elkar ulertzeko, euskara.**

PARA ENTENDER-NOS MUTUAMENTE, EUSKERA  
TO UNDERSTAND EACH OTHER, EUSKERA  
لِكَيْ نَفْهَمَ بَعْضُنَا بَعْضًا، الْعُسْكَلِيَّة  
POUR NOUS COMPRENDRE MUTUELLEMENT, EUSKERA  
PARA COMPRENDER-NOS, EUSKERA

UDAL EUSKALTEGIAK

UDAL EUSKALTEGIAK

MUSIKA > DISKO AURKEZPENA

# Gose taldeak diskoa aurkeztuko du urriaren 12an

Taldearen hirugarren lana, gorri kolorekoa, Bilboko elkarte batean aurkeztuko dute

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Gose taldeak labean du hirugarren diskoa. Gorri koloreko diskoa urriaren 12an aurkeztuko dute Bilboko elkarte batean, 12:00tan. Oraindik zuri koloreko diskoaren gaineko pare bat kontzertu dituzte, baina hasi dira disko berriko kantuekin egingo dituzten zuzenekoetan pentsatzen. "Gauza bat da diskoa grabatzea eta beste bat, grabatutako kantuak zuzenekoetarako prestatzea", esan digu taldeko kide Ines Osinagak.

Udan egon dira sartuta Arrasateko Shot! estudioan. Guztira, hamar kantu grabatu dituzte. Taldekideak gustura daude emaitzarekin. "Gustura gaude diskoarekin. Baina beti esan izan dugu Gosereren disko onena hurrengoa dela; hortaz, urriaren 12ra arte gorri kolorekoa da egin dugun disko onena. Hortik aurrera, batek daki!", dio Osinagak.

ALDAKETA GUTXI

Hirugarren diskoa egiteko trikitia, musika elektronikoa eta gita-



Gose taldeko kideak.

DAVID HERRANZ

rra rockeroak erabili dituzte, aurreko bietan bezala. "Gose taldearen oinarriak hasi gineneko berberak dira. Baina uste dugu badagoela aldaketarik lehen diskotik, beltz kolorekotik gorri kolorekoa. Pentsatzen dugu lau urte hauetan zerbait ikasi dugula.

Dena den, aldaketak aldaketa, Gose taldeak Gose izaten jarraitzen du", esan digu Osinagak.

REALAREN MENDEURRENA

Goserekin disko berria grabatzen egon arren, Realaren mendurrenako kantuan parte har-

tzeko denbora izan zuen. "Ez naiz futbolzalea, baina kantuan parte hartzean Realaren kontu asko ikasi ditut. Kolaborazioa egiteko deitu zidatenean ez nuen zalantzarik izan. Kolaborazioak oso aberasgarriak dira eta egiteko oso errazak", azaldu digu.

MUSIKA > HIRU ARETOA

# Bouncing Souls, Secret Army eta Last Rebels gaur Hiru aretoan

Bouncing Souls eta Secret Army taldeek euren disko berrietako kantuak eskainiko dituzte

Last Rebels arrasatearrek, aldiz, diskoa prestatzen dihardute, aurrerago aurkezteko

M.B. > OÑATI

Musika izango da berriro protagonista Arrasateko Hiru aretoan. New Jerseytik datorren Bouncing Souls, Bartzelonako Secret Army eta Arrasateko Last Rebels taldeek joko dute gaur. Kontzertua 22:00etan hasiko dute, eta rock-and-rolla, street-punka eta punk-rocka entzuteko aukera izango dute Hiru aretora joaten direnek.

ETXEKOAK

Del Campo, Losada, Letona, Iurgi eta Ibai dira Last Rebels taldeko kideak. 2004an sortu zuten taldea, entseatzeko lokala topatu ondoren. Bost urte eman dituzte rock-and-rolla eta street-punka jotzen eta hainbat kontzertu egin dituzte. Laster kaleratuko dute lehen diskoa.

Arrasatearrendako, RIP eta The Clash taldeak dira erreferente nagusiak; baina gertuko beste hainbat talde ere gustatzen zaizkie; besteak beste, Des-kon-

trol, Never Surrender, Arkada Social, The Bussines, Oi! the Arrase, Cicatriz, Iskanbila eta Kañeria 13 taldeak.

SECRET ARMY

Secret Army taldea Bartzelonatik dator Debagoienara. Maia-

tzear kaleratu zuten *Redemption* euren azken lana. Lau kantuekin zazpi hazbeteko diskoa grabatu zuten. Biniloak lau koloretan aurkeztu zituzten. Entzuleek erantzun ezin hobea eman zioten diskoari.

Bartzelonako taldeak rock-and-rolla eta street musika lantzen ditu, eta, euren musika entzunda, Ruts, The Cracks edo Menace taldeen erreferentzia dutela antzeman daiteke. Era berean, hiruko horrek egungo musikaren ukituak ditu. Ruben, Iñaki eta Willy dira Secret Army taldeko kideak.

DISKO BERRIA

Disko berriarekin dator New Jerseytik Bouncing Souls taldea. Punk-rocka lantzen duen talde horrek *20th anniversary series* diskoko kantuak joko ditu. 12 kantu ditu. Bitxikeria moduan, hileroko single bat estreinatu dute. Gaurko kontzertura doazenek diskoko bederatzik kantu ezagutzeko aukera izango dute.

Taldeak hainbat aldaketa izan ditu 1987. urtean sortu zutenetik. Egun, Greg Attonito, Pete Steinkopf, Bryan Kienlen eta Michael McDermott dira Bouncing Souls taldeko lau kideak.



Bouncing Souls taldeko kideak.

GOIENKARIA

INAUGURAZIOA

## DJ festa New Guass aretoan bihar

DJ ezagunek parte hartuko dute areto berriaren inaugurazio festan

M.B. > BERGARA

New Guass aretoa inauguratzeko jaia egingo dute bihar. Gauerdi aldera hasita DJ ezagunek hartuko dute parte; besteak beste, Montxok, Carlos Perezek, Ramon Rodriguezek, Rich.Hard-ek eta Hartzek hain zuzen.

2009ko DJ onena ere New Guass aretoan egongo da bihar; hain justu ere, Diego Gonzalez.

Gainera, Eivissatik (Ibiza) datozen *performanceak* iragarri dituzte. *Robot Man* izeneko ikuskizuna eskainiko dute: laser izpiak, konfetia, eta piroteknia iragartzen dituzte, besteak beste..

GOIZEKO HAMARRAK ARTE

New Guass aretoko inaugurazioa gauerdi aldera hasiko dute, eta, ordutegi berezia dutenez, festa 10:00ak arte egingo dute.

Hilaren 19rako techno alorreko izarretako bat iragarri dute: Ben Sims britaniarra.

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38.

**Aretxabaleta.** Markole. 100 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Bi terraza handi (150 m<sup>2</sup>), ganbara eta garajea. 650 34 89 85.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Boluko Koldo Eleizalde kalean. Argitsua. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta terraza. Berogailuarekin. Jantzitza utziko genduke. Prezio ona. 655 73 16 61.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Masterrekan. 645 73 79 23.

**Noja.** Guztiz jantzitza dagoen 70 metro koadroko duplex ederra salgai. Bi logela, sukaldea, egongela handia, bi komun, bi terraza, garaje itxia. Urbanizazio pribatua, igerilekuarekin. Sei urteko eraikina. Aukera ona. 667 31 37 45.

**Oñati.** Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta ganbara. Garajea aukeran. 620 02 51 95.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. Sukaldea, komuna eta hirugela. Prezio ekonomikoa. 665 70 75 80 edo 943 76 59 93.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Zerrajeran. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handiak. Deitu 16:00etatik 23:00etara. 943 03 78 56 edo 685 73 29 94.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Erdialdean. Azken solairua, igogailuarekin. Berokuntza dauka. Hiru logela, sukaldea eta egongela. Bizi izateko gertu. 600 euro. 685 94 02 21.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat unibertsitate gertu. Hiru logela eta egongela. 617 78 85 38 edo 943 79 31 47.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate gertu. Hiru logela, egongela eta sukaldea. 659 44 86 79.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate gertu. Hiru logela, egongela eta sukaldea guztiz hornitua. Berogailuarekin. 610 01 31 80 edo 943 03 78 20

**Arrasate.** Ikasleentzako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Deitu 666 45 87 42 telefonora.

**Donostia.** 2009-2010 ikasturterako atikoa ematen da errentan alde zaharrean. Bikote batentzako aproposa. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. 616 01 40 17.

**Eskoriatza.** Berritutako baserria ematen da errentan. Deitu 20:00ak eta 21:00ak artean. 693 80 40 47.

**Oñati.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Bikote batentzako aproposa. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. 699 78 47 49.

**Oñati.** Eraiki berria den duplex atikoa ematen da errentan. 130 metro koadro. Jantzia. Aire girotua. Domotika. Lau logela eta bi bainugela. 610 73 34 88

**Oñati.** Olakua auzoan etxebizitza errentan, ikasleentzako edo aldiak. 660 40 06 75.

## 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Bi logela ematen dira errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 659 65 21 45.

**Aretxabaleta.** Irakasle baten etxean bi gela daude alokagai. Etxe berria. 250 euro, gastuak barne. 616 75 41 30.

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan Eguzki dorrean. 620 52 94 98.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEAK OSATU  
106. BESTELAKOAK

## 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

## 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

## 4. LANA

401. ESKAINTZAK  
402. ESKAERAK  
403. BESTELAKOAK

## 5. IRAKASKUNTZA

501. JASO  
502. EMAN  
503. BESTELAKOAK

## 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
604. BESTELAKOAK

## 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

## 8. DENETARIK

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

## 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

## 10. RELAX

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarki bakarririk iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**  
sailkatuak@goiena.com  
<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:  
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.  
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.  
GOIENKARIAK ez du argitaratzen dirén iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## OÑATI

Funtzionamenduan dagoen emakumezkoen ile apaindegia ematen da errentan.  
Deitu 21:00etatik 23:00etara.

654 81 22 78

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Aerobik** irakaslea behar dugu Aramaion, urte osorako. 665 72 62 83.

**Aretxabaleta.** Ume bat zaintzeko pertsona bat behar da, goizez. Euskalduna bada, hobe. Urrian hasteko. Baldintza negoziagarriak. 618 72 67 17.

**Bergara.** Pertsona bat behar dugu pertsona nagusia zaintzeko, baserrian, bertan lo egingo

## ARETXABALETAK

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. Paper gabekoek ez deitu.  
638 48 25 43

duena. Jesus Mari-Itziar. 636 30 09 16 edo 646 22 54 41.

**Pertsona nagusi bat** zaintzeko pertsona bat behar da arratsaldean, lau ordurako. Deitu 636 07 13 45 telefonora.

## 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta** edo **Arrasaten** lan egingo nuke garbitasun lanetan edo nagusi zaintzen. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 626 78 22 95.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusi zaindu, etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Mari. 943 53 33 92.

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska gertu garbiketa edo sukalde lanetarako, eta baita nagusi edo umeak zaintzeko ere. 608 34 36 11.

**Arrasate edo Bergara.** Neska gertu arratsaldean nagusiak zaindu edo paseoan ateratzeko. 696 84 19 51.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu garbiketa lanetarako edo nagusi zein umeak zaintzeko. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

**Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza.** Neska gertu sukaldean lan egiteko, edozein ordutegitan. 648 19 10 38 edo 610 97 82 88.

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu umeak zaintzeko. 943 79 77 54 edo 646 63 75 03.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarik egiteko. Deitu 649 30 13 60 telefonora eta Marirengatik galdetu.

**Arrasate.** Neska euskalduna goizetan umeak zaintzeko prest. 685 77 18 89.

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna umeak zaintzeko gertu arratsaldean; esperientziaduna. 618 41 24 79.

**Debagoiena.** 25 urteko gazte boliviarrak edo edadetuak zainitzeko gertu dago, egun osoa edo komeni den ordutegiarekin. Deitu 654 24 13 27 telefono zenbakira. Gilberto.

**Debagoiena.** 40 urteko emakume ukrainar esperientziaduna lanerako gertu. Paperak ditut eta sukaldean ere jarduten dut. Etxean bertan bizi izango nintzateke. Larisa. 680 77 34 77.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Legezko paperak daukat. 689 50 61 24.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa edo sukalde lanetarako, zein nagusi eta umeak zaintzeko. Deitu 630 20 12 03 edo 637 21 87 20 zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo adinako pertsonak egiteko eta haurrak zaintzeko. 618 00 08 28.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak orduka eta gabez zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 638 54 75 93.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Orduka, egun erdiz edo gabez. 671 18 50 83.

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile prest pertsonak zaintzeko. 630 03 95 59.

**Debagoiena.** Erizain ikasketak ditut eta nagusiak zainduko nintzuke, etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia eta lege dokumentuak ditut. Deitu 652 25 34 97 zenbakira.

**Debagoiena.** Erizaintzako laguntzaile ikasten ari den neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 612 18 07 44

**Debagoiena.** Esperientzia duen emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. 650 17 74 87.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Erreferentziak eta legezko paperak daukat. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. 686 52 15 98

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. 645 72 92 87.

**Debagoiena.** Igeltsero edo banatazailer moduan lan egingo nuke. 610 86 75 93.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 638 10 29 63 telefonora.

**Debagoiena.** Neska bergararra gertu arrazako txakurkumeak salgai. Bi ar. Hiru koloretakoak. Ehi-zarako aproposak. Uztailaren 23an jaiok. 649 84 67 09.

**Debagoiena.** Neska gaztea umeak zaintzeko gertu. 666 21 82 94.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen, botikak banatu eta elikadura gertatzen, higielean eta mugitzen. Umeak zaindu edo garbiketa lanak ere egingo nintzuke. 943 03 45 06 edo 688 65 41 26

**Delineatzaile,** dekoratzaile eta hirugarren ikasturteko arkitekturen ikaslea edozein lanerako gertu. Autocad programarekin esperientzia. 676 61 15 47

**Erizain laguntzaile** lan bila. Adineko edo umeak goizez zein arratsalde zaintzen lan egingo nuke. 650 58 21 69 edo 943 08 20 79.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergoko lehenengo mailako ikasle batek eskola partikularrik jasoko litzuke, etxean. 669 63 52 25.

**Bergara.** DBHko ikasle batek eskola partikularrik jasoko litzuke etxean. 699 12 75 57.

**Bergara.** Ume bati eskola partikularrik emateko laguna behar dut. 20:00etatik aurrera deitu. 943 76 03 75.

**Eskola partikularrik** emateko pertsona bat behar da; Lehen Hezkuntzako 4. maila. 652 75 95 64.

**Eskola partikularrik** emateko pertsona bat behar da. 4. DBH Humanistikoa. 652 76 21 63.

## 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntza, DBH edo batxilergoko eskola partikularrik emateko prest nago. 670 71 24 97.

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen mutil batek Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko eskola partikularrik emango litzuke. 664 66 73 09.

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrik ematen ditut. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta personalizatua. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Ingelesko eskola partikularrik ematen ditut. Maila guztiak. 635 73 77 21.

**Arrasate.** Ingelesko eskola partikularrik ematen ditut. Maila guztiak. Esperientzia handia. 609 94 90 01 edo 943 77 16 90.

**Arrasate.** Unibertsitateko ikaslea gertu astelohenetatik ostegunetara eskola partikularrik emateko. Ordutegia: 18:30etik aurrera. Txaber. 636 12 05 79.

**Bergara.** Ingelesko eskola partikularrik ematen ditut. Etxez etxeko zerbitzua. 654 94 87 26.

**Antzuola.** Ingelesko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. 618 92 95 75 edo 639 58 13 83.

**Bergara.** Ingelesko eskolak ematen dira. Maila guztiak. 618 91 32 89.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Opel Corsa Joy.** 1400 cc, 16v, 38.500 km eta 4 urte. Oso egoera onean. 7500 euro. Deitu 688 61 76 77 zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Behiak eta ardiak.** 6 behi eta 18 ardi saltzen dira. 697 53 08 40.

**Txakurrak salgai.** Setter ingeles arrazako txakurkumeak salgai. Bi ar. Hiru koloretakoak. Ehi-zarako aproposak. Uztailaren 23an jaiok. 649 84 67 09.

## 703. EMAN

**Katakumea** ondo zainduko duen norbait behar da. Oso otzana eta polita da. Hiru hilabete ditu. Egurtua izan da. 656 75 87 93.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Altzariak.** Bi plazako sofa eta relax bat salgai. Marroiak. Estrelnatu barik. Dena 320 euroan. Arrasaten. 660 21 98 44.

**Bergara.** Dendarako altzariak eta osagarriak salgai. Manikiak, beira-arasak, metalezko apalategiak eta mahai osagarriak. 627 96 19 22.

**Bi bizikleta tolesgarri** salgai. Eramateko poltsarekin. Egoera onean. Kanpinerako egokiak. 130 euro biak. 688 65 30 62.

**Egurrezko altzaria** apalekin salgai. Prezio interesgarria. 639 94 48 65.

**Gurpildun aulki** motorduna salgai. Erabili gabea. Prezio negoziagarria. 618 62 79 43 edo 943 79 65 72.

**Karro denda.** Brisa modelo. Egoera nahiko onean eta merke-merke. Krisiari aurre egiteko, hoberean oporretan joateko. 605 73 75 30.

**Liburu** oso zaharrak saltzen ditut. Eleberri, ipuin... 696 84 19 51 edo 943 53 29 18.

**Mendiko bizikleta.** Mondraker Factor R salgai, suspentsio bikoitz eta blokearekin. Prezioa 1.400 euro. 655 74 48 55 edo 943 78 24 90.

**Oilgorretarako** txartel bi salgai Burgosen. 3.900 hektarea, haritz eta pinuz, Pinilla de los Barruecos eta Gete herrietan (Salas de los Infantes) 8 kilometroa). Gehienez 11 eskopeta. Txartel bakoitzak 1.200 euro. 696 92 18 29 edo 665 70 10 31.

**Piragua** bi salgai, osagarriekin, bata mistoa eta bestea errika edo olatuetarako aproposa. 679 10 95 23.

**Umeendako karroa.** Silver Cross etxekoa. Oso egoera onean. 250 euro. Ez da aulki egiten. Arrasate. Tamara. 679 23 27 93.

## 802. EROSI

**Aretxabaleta** inguruan ortua egiteko lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero, deitu zenbaki honetara. 696 32 63 13.

**Borda edo antzekoa** erosi nuke. [tuyo585@hotmail.com](mailto:tuyo585@hotmail.com). 669 17 09 51.

**Lursaila** erosi nuke Bergara inguruan. Idatzi mezu bat [tuyo585@hotmail.com](mailto:tuyo585@hotmail.com) helbidera edo deitu 669 17 09 51 telefonora.

## 803. EMAN

**Umeendako** aulki-kapazoa ematen da opari. 605 73 37 39.

## 806. GALDU

**Sakelako telefonoa** galdu dut. PESAko autobusean Bilbo-Bergara ibilbidean. 639 50 51 85.

## 807. AURKITU

**Erloja** aurkitu nuen uztailaren 18an, zapatuan, Gorlako Santutxuko iturri aldamentean. Txiflo bat dauka eta Lotus etxekoa da. 680 33 40 77.

## 9/ HARREMANAK

## 904. BESTELAKOAK

**Bergara-Donostia.** Egunero Bergararik Donostiara (Errotaburu) joaten naiz. Gastuak banatu nahi badituzte: 679 86 51 36.

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. Gastuak banatu nahi badituzte deitu 635 20 33 14 zenbakira.



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
[www.inmkorosti.com](http://www.inmkorosti.com)


## ETXEBIZITZAK SALGAI

## Bergara:

- Matxiategi 82 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Zubieta 80 m<sup>2</sup>. Berritua. Ganbarearekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m<sup>2</sup>. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m<sup>2</sup>. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m<sup>2</sup>. Oso ondo
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Antonio, 46 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Masterreka. 46 m<sup>2</sup>. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Ganbarearekin.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

### LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

### LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

### IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

### BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

### ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

### INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

### ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK

### LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerías 56 / 943 79 44 22

## YOGA

### AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iker Eskibel &gt; Txirrindularia

# "Euskal Herriko txapelketa irabazteak aurrera jarraitzera bultzatu nau"

Iker Eskibel eskoriatzarrak irabazi du aurtengo Euskal Herriko kadete mailako mendiko txirrindularitza txapelketa. "Txapelketa bat irabaztea beti da garrantzitsua eta gustura hartzen da, norberak egindako lanaren fruitua baita". Edozerlan ere, mendia alde batera utzi eta errepidean jardun gurako luke: "Betidanik gehiago gustatu izan zait errepidea".

AMAIA ARANZETA > ESKORIATZA

Ikerrek oraindik 16 urte ditu, baina jada bere adin txikian aurrera doa txirrindularitzaren munduan. Uztailean jokatu zen Euskal Herriko mendiko txirrindularitza txapelketa irabazteak begiak ireki dizkio, benetan zer duen gustuko ohar-tu baita. Nahiz eta orain dela sei urtetik txirrindularitzan jardun, hau izan da lehenengo aldia lehiaketa batera aurkeztu dena, eta zorionekoa hura, irabazi egin baitu kadete mailan. Txirrindularitzan jarraitu gurako lukeela dio, nahiz eta hurrengoan errepideko txirrindularitza probatu nahi duen.

**Lehenengo aldia izan da hau txapelketa batean parte hartu duzuna. Zerk bultzatu zintuen mendi txapelketa honetan parte hartzera?**

Bai, aurtun animatu naiz lehenengo aldiz txapelketa batean parte hartzera. Nire lagun bat txirrindularitza talde batean zebilen eta hura zegoen talde horretan sartu nintzen: Lizarralde Kirolak taldean, hain zuzen. Talde barruan lautan gaude banatuta, adinaren arabera: kadeteak, gazteak, 23 urtez azpikoak eta eliteak. Ni kadete mailan nago; beraz, kadete mailan aurkeztu nintzen txapelketara. Bost lagun aurkeztu ginen.

**Zein ibilbide egin zenuten txapelketaren barruan?**

Zazpi proba ziren Euskal Herriko txapelketaren barruan eta azken proba Kantabrian jokatu genuen, udako oporren aurretik. Zazpi lasterketok kontuan hartuta, ni izan nintzen kadete mailako irabazle.

**Zenbat urte daramazu bizikletan eta nola hasi zinen txirrindularitzan?**

Bospasei urte daramat. Lagun batekin batera txirrindularitza talde batean sartu nintzen, herrian bertan marka onak lortu bainituen, eta ordutik hona, bertan dihardut. Hala ere, guk ez dugu entrenatzaile finkorik berez, Eskoriatzan ez baitago talde ofizialik, eta, beraz, gure kabuz entrenatzen gara.

**Neketsuak izaten dira entrenamenduak? Izan ere, beti esan izan da ziklismoa kirol gogorenetakoa dela.**

Bai, egia esan, ezagutzen dudan kirolrik gogorenetakoa da. Baina ondo prestatzen gara, nahiz eta entrenatzaile finkorik ez eduki. Normalean, astean bi



GOIENKARIA

PERTSONALA

**Herria:** Eskoriatza. **Adina:** 16 urte. **Ikasketak:** Batxilergoko lehenengo maila. **Zaletasunak:** Bizikletan ibili, pilotan jokatu eta lagunekin egon. **Gorrotatzen duzu zer edo zer?** Gerra. **Gomendatzeko moduko film bat:** *Las cenizas de Ángela*. **Liburu bat:** *Shi-*

*baren malkoak*. **Musika talde bat:** The Clash. **Gustuko abesti bat:** *Time Bomb*. **Bidaitzeko leku bat:** Suitza eta Frantzia. **Orain arte egon zaren tokirik gutukoena:** Alemania. **Txirrindulari bat:** Alberto Contador. **Txirrindulari talde bat:** Euskaltel-Euskadi.

edo hiru bat aldiz entrenatzen gara. Errepidean ibiltzen gara erresistentzia landu nahi badugu eta aldiz, indarra lantzeko mendira joaten gara bizikletan ibiltzera. Entrenamendu mota ezberdinak irudikatzen ditugu aurrez, eta horren arabera prestatzen gara. Txapelketaren batera aurkeztu behar badugu, aldiz, entrenamendu gogorragoak ezartzen dira, entrenatzaile bat izendatzen dugu eta entrenatzaile horren zaintzapean entrenamenduetarako egutegia finkatzen dugu.

**Tourrean edo mota horretako lasterketaren batean parte hartu gurako zenuke?**

Bai, noski! Baina oraindik ez nago ziur zer bide hartuko duen nire bizitzak, oraindik oso gaztea naiz-eta. Hala ere, oraingoz, entrenatzen jarraituko dut eta pixkanaka txapelketetan parte hartzen, eta egunen batean, Tourrean parte hartzeko aukera iristen bazait... amets bat egia bihurtzea izango litzateke. Baina oraingoz, ezer ez dago zehazturik nire bizitzan.

**Zer iritzi duzu dopinaren gainean? Uste duzu anabolizatzaileen erabilera oso zabaldua dagoela gaur egun?**

Ez zait ondo iruditzen jendea dopatzea kirol bat egin edo txapelketaren batera aurkeztu behar duenean. Txirrindularitza geroz eta okerrago doa praktika hauen erabilera dela eta; eta, azken finean, kirolaren ardatz nagusia ezabatzen du eta gizakia kirolaren txotxongilo egin, eta ez kirolaren bidez, plazerra edo atsegina lortzen duena. Gaur egungo gizartean, hainbat balio nahastu edo galdu egin dira, drogak moduan gizartean sartu diren zenbait praktiken erruz.

**Zer asmo etorkizunerako?**

Oraingoz, beste bi urtez mendiko probetan hartuko dut parte, praktika handiagoa hartzeko, eta ondoren, errepideko bizikletan ibili gurako nuke, eta bertan, aurrera egiten ahalegindu. Horrela, nire burua probatzeko aukera izango dut eta ikusiko nuke ea mendia edo errepidea komeni zaidan gehien.

**Zer egin duzu oporretan?**

Eskoriatzan ibili naiz eta Errioxara ere joan nintzen aste-beterako, taldeko lagun baten etxera, Cuzcurritara. Gustura ibili ginen.

# 'Musikantoi' programaren azken bi saioak

Berri Txarrak taldearen ibilbidea eta Euskal Herriko thrasharen historia emango ditu

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE  
*Musikantoi* programaren azken bi saioak emango dituzte datozen asteetan. Datorren asteko saioan, esaterako, Berri Txarrak talde nafarraren berri emango du Maider Arregi aurkezleak. Hurrengo zapatuan, irailak 19, kontzertua emango du talde

horrek Eskoriatzan. Azken diskoa (*Payola*) aurkezteko kontzertua izango da. Hori kontuan izanda, Berri Txarrak taldearen zuzeneko beste kontzertu bateko soinua eta irudia entzun eta ikusi ahal izango da datorren eguneko *Musikantoi* programan.

Azken saioan, berriz, Euskal Herriko thrashari buruz hitz egingo dute Mikel Anestesiak, Legen Beltza taldeak edo Inaxio Esnaola adituak.

**GOITB, 'Musikantoi'**  
> Eguena, 22:15



Maider Arregi oñatiarra da *Musikantoi* programako aurkezlea.

GOITB

## Film baten aritzeko aukera

**GOIENKARIA** > HERRIA  
Zinemara sartuko dira irratiko uhinen bitartez datorren astean, Donostiako Zinemaldia aitzakia hartuta. Era berean, film batean parte hartzeko gonbita ere egingo dute, Debagoienetik gertu grabatuko dutena. Jakina, asteroko zozketak ez dira faltako: Hiru aretorako eta Aquariumerako sarrerak eta beste. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com).

**Arrasate Irratia, 'uda giroan'**

> Astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara.



GOIENKARIA

## Bergarako San Martin jaiak 'Magazinea'-n

Bergarako San Martin jaiak ospatuko dituzte zapatutik eguaztena bitartean eta antolatutako ekitaldiak ikusi ahal izango ditugu GOITBn. Horien artean, zapatuko azoka, domekako Erreileno eta Tostoi Kofradiaren X. kapitulua eta martitzeneko danborrada. Kofradiako kideak, gainera, asteleheneko *Magazinea*-n egongo dira, euren elkartearen berri emateko.

**GOITB, 'Magazinea'** > Astelehena, 19:45 > Eguaztena, 19:45

### telebegi

Gorka Etxabe  
> 'getxabe@arteman.org'

## Telebistarik gabe, ondo

**T**elebistarik gabe egin dut abuztuko lehenengo hamabostaldia eta gure etxean hobekuntza nabarmena igarri dugu. Gure arteko komunikazioa areagotu da, lasaitasuna nabarmena izan da, irakurtzeko aukera gehiago izan ditugu eta telebistak sarritan eskaintzen dituenak eskura ez edukitzeak ere onurak besterik ez dizkigu ekarri. Telebistan eta ikus-entzuzkoen arloan lan egindakoa naiz, eta gaur egun ere zeregin horietan dihardut, eta hortaz, telebistaren eskaintza interes handiz jarraitu beharko nuke; ideiak hartzeko, beste batzuek egiten dituztenak aztertzeko eta beti ere ikasteko.

Dena dela, abuztuan telebistarik ez edukitzeak oso ondo egin digu etxeko guztioi. Askok esango didate etxean dudana kentzeko eta bizitzeko telebistarik gabe. Hori aukera bat da, ez neurea. Informaziorako eta aisialdirako aukera bat da telebista. Orain, gainera, LTDrekin aukera gehiago ditugu. Poliki egin beharko dut trantsizioa.

### arrasate irratia

FM 107.7

#### Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

#### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

#### Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan

Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Astelehenetan Kirolak  
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)  
Sozioekonomia gaiak, Inaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin  
Udal Gazte Bulegoa  
Sexologia Zerbitzua  
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...  
Astearen errepaso (Goienkariarekin)  
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak  
Zozketak (egubakoitzean)  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 ([irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)))

12:05 Euskadi Irratiko albistegia

12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Uda Giroan

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

### astea GOITBn

Egubakoitza, 11	Zapatua, 12	Domeka, 13	Astelehena, 14	Martitzena, 15	Eguaztena, 16	Eguena, 17
13:15 Marrazki bizidunak .	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak .	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.	10:30 Trikitraka trikiton.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.	11:30 Kantari.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Ikusmira.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	14:00 Elkartasun bideak.	12:00 Erloklip	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Elkartasunaren bideak.	14:30 Ikusmira.	12:30 Ikusmira.	15:15 Mugaz kanpo.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:15 Elkartasunaren bidean.
15:45 Ur eta lur.	15:00 Ur eta lur.	13:00 Erreportajea.	15:45 Elkartasunaren bidean.	15:50 Solaskide.	15:50 Golb tb.	15:45 Mugaz kanpo.
16:15 Ikusten.	15:30 Trikitraka trikiton.	13:45 Solaskide.	16:15 28 klip.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:15 28 Klip.
16:45 Berriak.	16:30 Marrazki bizidunak.	14:15 Eltze beroa.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Erreportajea.	15:45 Kantari.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Musikantoi.
18:00 Ilunpean.	18:30 Solaskide.	18:15 Trikitraka trikiton.	17:45 Wazemank	17:35 Erreportajea.	17:45 Solaskide.	18:00 Gipuzkoa Kultura
18:45 Berriak.	19:00 Ikusmira.	19:15 Erreportajea.	18:15 Musikantoi	18:05 Solaskide.	18:15 Ur eta Lur.	18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:30 Ur eta lur .	19:45 Solaskide.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.
19:45 Goiena Magazinea.	20:00 Erreportajea.	20:15 wazemank.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Kantari.	20:30 Golb tb.	21:15 Ur eta lur.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.
21:15 Goiena Magazinea.	21:00 Ikusten.	21:45 Musikantoi.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.
22:15 Solaskide.	21:30 Ilunpean.	22:45 Golb tb.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.
22:45 Musikantoi.	22:15 Solaskide.	23:15 Ilunpean.	22:15 Elkartasun bideak.	22:15 Ilunpean.	22:15 Gipuzkoa Kultura.	22:15 Erreportajea.
23:45 Musikantoi.	22:45 Musikantoi	00:00 Itsasora begira.	23:00 Erreportajea.	23:00 Lamién artean.	22:45 Harmailatik.	23:15 Musikantoi.
00:30 Goiena Magazinea.	23:30 Wazemank.	00:30 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:15 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.	00:30 28 klip.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:15 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.
	01:00 Emisio amaiera.					



Bergarako **Felix Unamuno** eta **Maritere Lekuona** ezkondu zirela 50 urte bete dira. Urrezko ezteiak ospatu zituzten abuztuaren 8an eta ederki ospatu, gainera, familiakoekin. Orain bezain gazte jarrai dezazuela. Zorionak, bikote.



Oñatiko **Iñaki Dorado** eta Arrasateko **Tania Hernandez** bihar, irailaren 12an, ezkondu dira Arantzazun. Ospakizuna Zumarragako Etxeberri jatetxean egingo dute lagunekin eta familiakoekin. Etxekoan partetik, zorionak.



Bergarako **Jose Mari Arizmendi** eta **Arantxa Egaña** duela 50 urte ezkondu ziren, irailaren 9an, San Pedro elizan. Urrezko ezteiak etxekoekin ospatuko dituzte zapatuan. Zorionak, etxekoan eta batez ere Josu, Alatz, Mariñe, Ibon, Saioa eta Eleneren partetik.



**Ainhoa Zabaleta** eta **Xabier Arbizu** arrasatearrak zapatuan, irailaren 12an, Aramaio-ko elizan ezkondu dira. Zorionak, bikote, eta eguna ondo-ondo pasa! Familiakoan eta koadrilakoan partetik, patxo handi bana.



Antzuolako **Maite** eta Elgoibarko **Eloy** joan den zapatuan, irailaren 5ean, ezkondu ziren Olatzen. Zorionak eta patxo handi bana, bikote! Etxeko guztien eta bereziki Olatzen eta Nasraren partetik.



**Raul** eta **Rosa** zapatuan, irailaren 12an, Pedroson (Salamanca) ezkondu dira eta ospakizuna Salamancako Paradorean egingo dute. Zorionak, bikote! Ondo-ondo ibili! Familiakoan eta koadrilakoan partetik.



Osintxuko **Jabier Zabaleta** eta **Felisa Mugurutza** irailaren 8an ezkondu ziren, duela 50 urte. Urrezko ezteiak ospatzeko meza egingo dute Osintxun irailaren 12an eta gero bazkaria Zumelagan. Zorionak, familiakoan partetik; bereziki Nerea, Nekane, Eneko eta Olatz.



Arrasateko **Urko Narbaiza** eta Eskoriatzako **Lourdes Ortiz** gaur, egubakoitza, ezkondu dira Elgetako udal-etxean. Eguerdian familiakoekin ospatu ostean, gauetan lagunekin egingo dute ospakizuna. Lagunen partetik zorionak eta muxu handi bana.

OROIGARRIA

## Imanol Isasa Aranburuzabala

Momentu hauetan gurekin  
egon zaretzen guztioi, eskerrik asko.  
—  
Zure irribarre maitagarriarekin geratzen gara.



Lehengusuak.  
Arrasaten, 2009ko irailaren 11n.

MEZA

## Rafael Mendicute Altuna

Irunen hil zen 2009ko abuztuaren 14an, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko haren emazte Sagrario Arzamendi eta Arrasateko koinatu-koinata, iloba eta gainontzeko senideen izenean.

—  
Bere arimaren aldeko meza gaur egubakoitza, irailak 11, 19:00etan, San Joan Batailatzailearen parrokiaren ospatuko da.



Arrasaten, 2009ko irailaren 11n.

OROIGARRIA

## Aitor Arza Zelaia

Oñatin hil zen 2009ko irailaren 6an, 50 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik,  
gero arte bakarrik.*



Onako lagunak.  
Oñatin, 2009ko irailaren 11n.

### bono fotoa

Garmendia Ardoak

**Ardo botila packa\***  
zozketatuko du GOIENKARIAK  
asmatzaileen artean!

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008.  
Larchago krianza 2006.  
Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK .....  
HERRIA ..... TEL.: .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

### Debagoineko zein herritan dago baserri hau eta nola du izena?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

#### AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako **Inaxio Arantzabal**.  
Zorionak!  
Erantzun zuzena: Elgetan



### guardiako farmaziak

#### ARRASATE

Zapatua, 12	Ruiz	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09
Domeka, 13	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Astelehena, 14	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Martitzena, 15	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 18 65
Eguaztena, 16	Ruiz	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09
Eguena, 17	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 79 12 39
Egubakoitza, 18	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 18 65

#### BERGARA

Zapatua, 12	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 13	Camacho	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Astelehena, 14	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 15	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 16	Camacho	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Eguena, 17	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 18	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63

#### OÑATI

Zapatua, 12	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 13	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 14	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 15	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 16	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 17	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 18	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58

#### ARETXABALETA

Zapatua, 12	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Domeka, 13	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Astelehena, 14	Fraille	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 15	Fraille	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 16	Fraille	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 17	Fraille	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 18	Fraille	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.  
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

ESKER ONA

## Maria Argialde Azalza

Bergaran hil zen 2009ko irailaren 4an, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra meza domekan, irailaren 15an, 10:30ean, Uberako San Paulo elizan ospatuko da.



Bergaran, 2009ko irailaren 11n.

ESKER ONA

## Manuela Bello Viñas

Bergaran hil da 2009ko irailaren 9an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko irailaren 11n.

ESKER ONA

## Jose Luis Gonzalez Monje

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 2an.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko irailaren 11n.

ESKER ONA

## Jose Maria Jausoro Aperribay

Aretxabaletan hil zen 2009ko uztailaren 30ean, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

*Bada toki bat munduan, han aurkituko nauzuena.*



Aretxabaletan, 2009ko irailaren 11n.

ESKER ONA

## Miguel Galdos Guridi

Oñatin hil zen 2009ko irailaren 2an, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Zapatuan, hilaren 12an, 19:30ean, Agustinoetan bere omenezko meza izango da.



Oñatin, 2009ko irailaren 11n.

ESKER ONA

## Paco Maure Barrio

Bergaran hil zen 2009ko abuztuaren 11n, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko irailaren 11n.

URTEURRENA

## Justa Artolazabal Txintxurreta

Ezequiel Urriategiren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 15an, 11:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jesus Mari Landa Urzelai

*Joan zinen gu hemen utzita baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.*



Eskoriatzako zure betiko lagunak. Eskoriatzan, 2009ko irailaren 11n.

URTEURRENA

## Jesus Mari Larrañaga Zubiaurre

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 15an, 11:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Ismael Arrieta Roman

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 15an, 11:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Dolores Agirreurreta Murgiondo

Fermin Alberdiren alarguna

Bergaran hil zen 2009ko abuztuaren 3an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko irailaren 11n.

URTEURRENA

## Esteban Lasaga Solaguren

Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 12an, 20:00etan, Aramaioko Azkoaga auzoko San Juan Bataiatzailea elizan ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150 euro.**

**Goienkaria: astero, 44.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**

Babeslea:



Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Irailak 11-18

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



ARRASATE

### > Emanaldi akustikoak gaur eta bihar Kulturateko aretoan

Gaur, 20:00etan, Elurretan bikotearen emanaldia izango da Kulturaten eta bihar, zapatua, ordu berean, Garret Wall Band laukoteak (argazkian) joko du. Gitarra, baxua, tronpeta eta kaxoi flamenkoa erabiltzen ditu laukoteak. Sarrera, doan.

## Antzerkia



BERGARA

### > 'Ipuin lapurra' txotxongilo saioa gaur arratsaldean, Jardunen eskutik

Antzezki taldeak *Ipuin lapurra* txotxongilo emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Domingo Martinez Irala kalean, 18:30ean. Toni La Salen istorioa kontatuko dute, ikusleen laguntzarekin. Jardun euskara elkarteak antolatuta.

## Musika



ARETXABALETA

### > Bilboko Masa Coral del Ensanche taldearen emanaldia zapatuan

Bilboko taldeak *Gran Antología de la Zarzuela* izenburuko ikuskizuna eskainiko du bihar, zapatua, Arkupeko Zaratia aretoan, 22:30ean. Sarrerak 8 eurotan jarriko dituzte salgai Arkupen bertan, ordu erdi lehenago.

Arregik emango du, irailaren 15etik abenduaren 23ra, martitzenetan, 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara; orratz lanen ikastaroa Asun Mendizabalen eskutik, irailaren 17tik abenduaren 17ra, eguenero, 15:00etatik 17:30era.

Argibideak Ekin Emakume Elkarteak, 943 79 83 70 telefono zenbakian.

ARETXABALETA

### > Hainbat ikastaro Arkupen, irailetik aurrera

Idazketa tailerra Karmele Igartuaren eskutik; pintura; bainika; eskulanak; eta zeramika.

Argibideak Arkupe kultura etxean, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

ANTZUOLA

### > Eskulan ikastaroa

Eguenetan, 14:30etik 16:30era, Edurne Uribesalgo irakaslearekin. Urriaren 1etik aurrera.

Izenematea udaletxean edo [kultura@antzuela.net](mailto:kultura@antzuela.net) helbidean.

ARRASATE

### > Pintura ikastaroa Kulturaten, ekainera arte

Amaitu Bengoa izango da irakaslea, lanegunetan 17:00etatik 20:00etara edo zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

Izenematea (132 € irailetik ekainera, hiru ordu astean) irailaren 14tik 18ra, 17:00etatik 19:00etara, Kulturateko pintura gelan (sarrera Seber Altube plazatik). Plaza mugatuak. Haurren gutxieneko adina: 7 urte. Argibideak: 943 25 20 25.

## Musika

BERGARA

### > Reggae jaialdia gaztetxean gaur

Soñadores Natos, Dodo eta Selektah Stepi taldeekin. Gaur, egubakoitza, 21:00etan.

ARRASATE

### > Bouncing Souls, Secret Army eta Last Rebels Hiru aretoan

Bouncing Souls AEBetatik datoz eta Secret Army Bartzelonatik.

Gaur, egubakotza, 22:00etan.

BERGARA

### > Lord Witch, Turbo Shit eta Hard Flip taldeen kontzertua

San Martin jailetako egitarauaren barruan.

Bihar, zapatua, San Martin plazan. 23:00etan. Doan.

ESKORIATZA

### > Berri Txarrak taldeak diskoa aurkeztuko du Eskoriatzan

*Payola* da nafarren azken lana. Haiekin batera Deabruak Teilatuetan eta Portugalgo Sinbiose taldeek joko dute.

Hurrengo zapatuan, hilaren 19a, Eskoriatzako kiroldegian. Sarrerak eskuragarri daude ohiko tokietan, 16 eurotan. Aitzorrotz Kultur Elkarteak antolatuta.

## Antzerkia

ARRASATE

### > 'La vuelta' zirku ikuskizuna zapatuan plazan

Trio Zingaro taldearen eskutik. Adin guztietako ikusleei zuzenduta dago.

Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 19:30ean.

ARRASATE

### > 'Egizu lo, Tartalo' haurrentako ikuskizuna domekan

Dar Dar antzerki taldeak haurrentako gertatutako ikuskizuna da.

Domekan Arkupen, 17:00etan. Sarrerak 3 eurotan jarriko dituzte salgai.

## Erakusketak

BERGARA

### > Xabier de Zeriren eskulturak Aroztegin

Azken bi urteotako lanak jarri ditu ikusgai, 40 bat guztira. Egurrez egindako lanak dira nagusi, altzairuz egindako hainbat tartean badira ere.

Erakusketa irailaren 18ra arte dago ikusgai: martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, berriz, goizez bakarrik.

ARETXABALETA

### > Pintura ikastaroko ikasleen erakusketa

Urtean zehar pintura ikastaroan egindako lanen erakusketa jarri dute ikusgai Arkupe kultura etxean.

Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Larunbatetan 11:00etatik 13:00etara. Igandeetan eta jaiegunetan itxita.

## PROPOSAMENA



ARRASATE

### > Reuters agentziako argazkiak Kulturaten

Bihar, zapatua, hasita eta urriaren 18ra arte Kulturateko klaustroan *Reuters: munduari begira* izenburuko erakusketa ikusgai egongo da. Aipatutako erakusketan Reuters agentzia ospetsuko argazkilarien irudiak biltzen dira: mundu zabaleko gatazkak, politikarien irudi bitxiak eta bestelako pertsonaien argazkiak. Testu txiki batez lagundutako 80 irudi dira guztira. Erakusketa ibiltaria da eta zapatutik aurrera geldialdia egingo du Arrasaten.

Kulturateko klaustroan, urriaren 18ra arte.

## Ikastaroak

ARRASATE

### > Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez

Txindoki dorrean (Bañez Dokorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibide gehiago: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARRASATE

### > Eskulan ikastaroa eta orratz lanen irailaren erdialdetik

Eskulan ikastaroa Bea

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

### PLANETARIUM BERRIA

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.

- Irailak 12: 12:00tan euskaraz. Irailak 13: 18:00tan gaztelaniaz.

**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

- Irailak 12: 15:30etan frantsesez.

**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

- Irailak 12: 12:00tan euskaraz. Irailak 13: 13:00tan gaztelaniaz eta 17:00etan euskaraz.

**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia

- Irailak 12: 13:00tan gaztelaniaz. Irailak 13: 15:30etan frantsesez

**Kartoizko suziaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa

- Irailak 12: 17:00etan euskaraz.

**Eboluzioa:** Izakion historiari gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

- Irailak 13: 18:00tan gaztelaniaz.

### ETA GAINERA...

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ilek puntan jarriko dizkizun esperientzia

Irailak 12: 12:15 eta 16:00

Irailak 13: 12:45 eta 16:00

**Planetarium Txikia:** 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten.

Irailak 12: 13:15, 16:15 eta 17:45

Irailak 13: 12:15 eta 16:45

**Esperimentuak zuzenean:**

Irailak 12 eta 13an, 18:15ean

**Eskulanak haurrentzat:**

Irailak 12 eta 13an, 17:00etan



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.miramón.org](http://www.miramón.org)

## Deiak

ARRASATE

**> Goikobalu abesbatza, ikasturte berria hastear**

Abesteko interesa duen edonorendako ateak zabalik dituztela gogoratzen dute. Honako taldeak daude: musika tailerra (4-5 urtekoendako); Goikobalu Txiki (6-12 urte); Goikobalu Gazte (12-18 urte); eta abesbatza nagusia.

Argibide gehiago: 669 83 34 38 (Maialen, musika tailerra) eta 615 76 02 89 (Rakel, Goikobalu Gazte).

LEINTZ GATZAGA

**> Bertso afaria gaur gauean**

Soran etxearen lehen urteurrena. Jokin Labaien eta Iñigo Manzisidor bertsolari-ekin. 30 euroko menu berezia.

Gaur, hilak 11. Eserleku mugatuak. Izenematea: 943 71 53 98.

## Lehiaketak

ARRASATE

**> Santamas irudi lehiaketa**

Santamas Komisiñuek Santamas irudi lehiaketarako dei egin du. Kartel lehiaketa ez ezik, diseinu orokor baterako deialdia ere bada: egileek kartelaz gain eskuorrirako zein kartel bateraturako (Santamasetako ekintzarik garrantzitsuenak agertuko diren kartela) proposamena egin ahal izango dute. Lehiaketa edozein arrasatearri zuzenduta dago eta urriaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak BAZen. Proiektuaren oinarri izango den irudiak Arrasateko Santamas jaien adierazgarri izan behar du; jaiaren bilakera, hark herrian duen garrantzia, urtetan erabilitako irudi historikoa, etab. hartu beharko ditu egileak kontuan. Oraindik irudi bat proposatu eta etorkizunean adierazgarri izango den marka sortzeko irizpideak markatu ditu.

<http://santamasirudilehiaketa.blogspot.com>. Egileek edozein galdera edo zalantza izanez gero, [santamasirudilehiaketa@gmail.com](mailto:santamasirudilehiaketa@gmail.com) helbidera idatz dezakete.

DEBAGOIENA

**> Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa**

Zugaz.com-ek martxan jarri du Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa eta jasotako argazki zein bideo guztien arteko onenarentzat Eroski hipermerkatuak emandako Wii bat oparitu dute. Azarora artean Zugazera igotako argazkiak eta bideoak hartuko dira kontua. Argazkiaren tituluak euskaraz egon beharko du.

Argibideak ondoko webgunean: <http://goiena.net/blogak/kantari>

ANTZUOLA

**> XV. Argazki lehiaketa**

Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake. Lanak jasotzeko epea urriaren 30era arte dago zabalik.

Argibideak Antzuolako udaletxean, 943 76 62 46 telefonoan.



## Mapa de los sonidos de Tokio \*\*\*

Zuzendaria: : Isabel Coixet.  
Aktoreak: :: Sergi Lopez, Rinko Kikuchi. Espainia, 2009. 109 min.

**M**aiatz aldean *Mapa de los sonidos de Tokio*-k Cannesko sail ofizialean parte hartu zuen. Jaialdiko azken egunetan zen eta ia-ia oharkabean pasa zen. Gero, filmari buruzko idatziak eta komentarioak agertzen joan dira, gehienak nahiko txarrak. Isabel Coixeten azken lana ikusita uler daiteke Frantziatik sari garrantzitsurik gabe irteera, ez da film borobila, nahi izanez gero akatsak atera diezazkiokegu, baina eszena ederak dituen lana da.

Coixetek komentatu izan du nola behin Tokioko merkaturan argazkiak ateratzen zebilela, han lanean zegoen neska batek ezezkoa eman zion argazki batean irteteko. Hortik aurrera zuzendari-gidoilariaren irudimena piztu egin zen momentu hura istorioaren abiapuntua bihurtu arte. Istorioa Tokion kokatzen da eta amodio istorio berezi bat kontatzen digu: Kataluniatik etorritako gizon baten eta hura hiltzeko kontratutako japoniar neska baten arteko istorioa. Bien arteko eszena horietan daude filmaren momentu onenak. Coixetek beste pertsonaia eta harremanekin osatu nahi du istorioa, eta zati horiek ez daude ondo garatuta, ez dute ezer garrantzitsurik adierazten: neska eta narratzailearen arteko harremanak, saminduragatik astindutako aitaren istorioa... Pertsonaia horiek istorioari pisu dramatiko eman behar zioten eta, nire ustez, ez da horrelakorik gertatzen; pertsonaiek ez dute inolako arrastorik uzten.

Akats eta guzti, nahiko film erakargarria da. Hori bai, komenigarria da kultura desberdinetako eta hizkuntza desberdinetako istorio hau jatorrizko bertsoan ikustea. Baditu filmak erreferentzia zinematografikoak; Hitchcocken *Vertigo* pertsonaien arteko harremanetan edo bukarran Vincente Minelliren *Como un torrente* aipa daitezke horien artean.

Antonio Zabala

# Zinema

ARRASATE

MONTEIRON

**Munduaren bira, doan**  
Egubakoitza: 22:30.

OÑATI

KULTUR ETXEA

**Asalto al tren Penhalm 1-2-3**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

GASTEIZ

GURIDI

**Gamer**  
17:30.  
**American playboy**  
20:00, 22:30.**Resacón en Las Vegas**  
17:30, 20:00, 22:30.**San Valentín sangriento**  
17:30, 20:00, 22:30.**Up**  
17:30, 20:00, 22:30.**Enemigos públicos**  
18:00, 20:45.**Frozen river**  
17:30, 20:00, 22:30.**District 9**  
17:30, 20:00, 22:30.

Irailaren 11tik 17ra.

FLORIDA-GURIDI

**Qué les pasa a los hombres**  
17:30, 20:00, 22:30.**Mapa de los sonidos de Tokio**  
18:00, 20:15, 22:30.**Tres días con la familia**  
17:30, 20:00, 22:30.**Gordos**  
17:30, 20:00, 22:30.**La clienta**  
18:00, 20:15, 22:30.**Mishima: una vida en cuatro capítulos**  
18:00, 20:15, 22:30.**Los hombres que no amaban a las mujeres**  
19:30, 22:05, 00:40.**Pequeños invasores**  
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:05.**American playboy**  
19:50, 21:50, 23:50.**Qué les pasa a los hombres**  
16:30 (zapatuan eta domekan), 19:15, 22:00, 00:45.**Expediente 39**  
20:10, 22:10, 00:10.**La proposición**  
16:00 (zapatuan eta domekan).**Enemigos públicos**  
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:30, 22:30, 00:30.**Up**  
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.**San Valentín sangriento**  
17:30, 19:30, 21:30, 23:30.**Ice Age 3: el origen de los dinosaurios**  
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:35.**Harry Potter y el misterio del príncipe**  
16:50 (zapatuan eta domekan).**Resacón en Las Vegas**  
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.**G.I. Joe**  
16:05 (zapatuan eta domekan).**Hazme reir**  
17:10 (zapatuan eta domekan).**Gordos**  
15:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.**Los hombres que no amaban a las mujeres**  
19:30, 22:05, 00:40.**Pequeños invasores**  
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:05.**American playboy**  
19:50, 21:50, 23:50.**Qué les pasa a los hombres**  
16:30 (zapatuan eta domekan), 19:15, 22:00, 00:45.**Expediente 39**  
20:10, 22:10, 00:10.**La proposición**  
16:00 (zapatuan eta domekan).**Enemigos públicos**  
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:30, 22:30.**Gamer**  
18:00, 20:00, 22:00, 00:00.**12 trampas**  
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.**School Rock Band**  
15:35 (zapatuan eta domekan), 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.**District 9**  
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.**Irailaren 11tik 17ra.**  
Egubakoitzetik domekara. Gaurdik emandakia zapatuan.

ÁBACO BOULEVARD

**Shorts: la piedra mágica**  
17:00, 19:15.**Asalto al tren Penhalm 1-2-3**  
22:20.**San Valentín sangriento**  
16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.**Up**  
16:20, 18:20, 20:20.**Resacón en Las Vegas**  
16:00, 18:05, 20:15, 22:25, 00:30.**Gamer**  
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.**Qué les pasa a los hombres**  
16:30, 19:30, 22:15, 00:45.**Año uno**  
16:15, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.**Agallas**  
16:15, 18:20, 20:25, 22:30.**School Rock Band**  
16:00, 18:10, 20:25, 22:40.**Enemigos públicos**  
19:00, 22:00.**District 9**  
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.**Pequeños invasores**  
17:00.**Expediente 39**  
16:05, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.**Hazme reir**  
22:00, 00:45.

Irailaren 4tik 10era.

**Asalto al tren Penhalm 1-2-3**

Zuzendaria: Tony Scott. AEB, 2009. 106 minutu. Metroko bagoi bat bahitu du gaizkile talde batek, eta ordainsaria ordaindu ezean treneko bidaiariak hilko dituztela mehatxatu dute. Walter Garber metroko polizia egoerari aurre egin beharko dio. 1974ko *The taking of Penhalm One Two Three* filmaren remake-a da (aurreko egubakoitzean ETB-Zan eman zuten). Denzel Washington da protagonista bertso berrian, Walter Mathauren *ordezkoa*.

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

**Transformers 2**

AEB, 2009. Zuzendaria: Michael Bay. Bi urte pasatu dira Sam Witwickik unibertsoa salbatu zuenetik. Hala ere, Samek beste gazteek dituzten arazo berak ditu. Ezustean, abentura berriak izango ditu. Shia LaBeouf, Megan Fox eta John Turturro aktoreekin.

**La última casa a la izquierda**  
AEB, 2009. Zuzendaria: Dennis Iliadis.

Wes Cravenek 1972an zuzendutako film baten remake-a da honako hau. Mary eta Phyllis kontzertu batera joatekotan dira, Maryren 17. urtebetetzea ospatzeko. Baina hirira iritsi aurretik gaizkile batzuk bortxatu eta hil egingo dituzte. Handik gutxira, Maryren gurasoen mendekua iritsi da...

**¿Hacemos una porno?**

AEB, 2008. Zuzendaria: Kevin Smith. Zackek eta Mirik institutuan ezagutu zuten elkar, eta ez dute onartu nahi heldutasunerari iritsi direla. Dirua egiteko, porno amateurreko filmak egitea erabakiko dute. Kevin Smith zuzendariaren (*Clerks*, *Mallrats*, *Persiguiendo a Amy*) komedia berria.

**Millenium: Los hombres que no amaban a las mujeres**

Suedia-Danimarka, 2009. Zuzendaria: Niels Arden Oplev. Enpresari aberats batek kazetari bati aginduko dio duela 40 urte desagertu zen ilobarekin zer gertatu zen ikertzeko. Stieg Larsson kazetari eta idazle suediarren trilogia arrakastatsuen pantaila handira iritsi da dagoeneko.

**Ponyo en el acantilado**

Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki. Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

**Mishima: una vida en cuatro capítulos**

AEB, 1985. Zuzendaria: Paul Schrader. Paul Schrader-ek 1985eko Canneseko Jaialdian aurkeztutako filmaren bertso berria eta definitzio altuan iritsi da zinema aretora. Yukio Mishima idazle japoniarren biografia kontatzen du. Mishimaren azken egunetik abiatzen da, 1970eko azaroaren 25etik, haren haurtzaroraino jauzi eginez.

## nire aukera



Jabier Azpiazu

Aloña Mendi futbol taldeko presidentea

## Azkoagainera buelta domekan

**A**loña Mendi eta Jabier Azpiazu bat dira. Aurtengoa 35. denboraldia izango da Azpiazurendako, azken 20ak presidente karguan. Gipuzkoako Futbol Federazioan ere badabil; hori dela eta, zapatuan Antzuolako Estala futbol zelaiko inaugurazioan izango da; belar artifiziala jarri dute han. Denboraldi berriari ekingo dio Aloñak ohorezko erregional mailan, Elgoibarren aurka. Denboraldi berriari hauxe eskatzen dio: "Jokalari eta zaleek gozatzea eta dena ondo joatea, azken urteotan zuzendaritzako pare bat lagun joan egin zaizkigu-eta".

**Udan, futbol barik, sufritu egiten duzu, ala?**

Ez ba! Patxada hartzea ondo etortzen da beti. Deskonektatzeko aprobetxatzen dut. Oñatin geratu naiz, amarekin, baina egin ditugu irteera batzuk kostaldera: Donostiara, Zarautzera, Hondarribira, Bakiora... baita Errioxara ere. Edozein modutan, futbolarekin beti dago lana, fitxak direla, bilerak...

**Domekan Donostiako estropadak jarraituko dituzu?**

Bai, gustatzen zait. Gazte denboran Donostian ikasten egon nintzenetik jarraitzen ditut. Faboritoa? Ez da erraza. Pena izan da Orio borrokan ez sartzea, estropadak erlijioa bezala bizi dituztelako Orion. Castrok irabaziko duela uste dut, baina Kortarekin, Kaikurekin, edozer gauza gerta daiteke... Itsasoak zeresana izango du eta San Pedrok eta Hondarribiak ere aukerak izan ditzakete. Domekan ikusi behar.

**Domekan, beraz, Azkoagainera berriz.**

Bai, betiko saltsan, perrexilaren familiakoak gara eta... Jokalari gehienak Oñatikoak dira eta ilusionatuta gaude denboraldi berrirako. Aurreko denboraldia oso ona gertatu zen eta ea aurten emaitza hura errepikatzetik daukagun...

Edu Mendibil

# Elgetarrak, itsasoari begira

**ARRAUNZALEAK** Elgetan badago talde bat harreman estua duena Hondarribiko arraun elkartearekin

**2005A EZKERO** Elgetar bat eta arraun elkarteko kide bat lankideak direla eta hortik sortu zen 2005ean harreman hori

**UDAZKENEAN** Ama Guadalupekoek urriaren amaieran edo azaroaren hasieran Elgeta bisitatzeko asmoa dute

MIRIAN BITERI > ELGETA

Elgetan arreta handiz jarraitzen dihardute Donostiako Kontxako estropadak; Hondarribia dute han gustuko, eta, ahal duten guztietan, hango arraunlariak animatzera joaten dira. Emaitzak ikusita, aurten ederto ari dira animatzen; izan ere, ohorezko txandadan sartu dira domekan lortutako laugarren postuari esker, Kai-ku (19' 11"), Castro (19' 16") eta San Pedroren atzetik (19' 21"). Hamabost segundora geratu zen.

Gauzak horrela, Donostiara itzuliko da herriko ordezkariak domekan. Bakarren bat Orio bihotzean badu ere, ia gehienak Ama Guadalupekoaren aldekoak dira, harreman estua dute eta haiekin. Harreman hori nondik datorren azaldu digu Josu De Vega elgetarrak. Kirol elkarteko zuzendari-tzan sartuta dagoen Andoni Olaskoagarekin batera egiten du lan De Vegak: "2005ean, Hondarribiak Kontxako bandera irabazi zuenean, lagun horri esan nion Elgetara garaikurrarekin etortzeko kapazak ote ziren. Handik gutxi-



Uztailaren 31n Hondarribian izan ziren elgetarrak.

LOREA LARRAÑAGA

ra Kontxako banderarekin aurkeztu ziren. Ordutik hona joan-etorri asko egin ditugu alde bietakoek. Aurten ere Elgetara etortzekoak dira, ziurrenik urriaren bukaeran edo azaroaren hasieran".

#### BOSPASEI IRTEERA URTERO

Harremana, esan bezala, berezia da. Urte hasieran, Hondarribiko- en egutegia jasotzen dute, estropadetara animatzera joan daitez- en. Urtero bospasei irteera egi-

ten dituzte. Sailkatzen baldin badira, Kontxan ez dute hutsik egiten. Gainera, beste hainbat tokitara ere joaten dira. Iaz, esaterako, Zaragozan izan ziren. Vegak gogorarazi duenez, "Expo-

aren harira, ACT ligari han eman zioten hasiera. Aurten, berriz, Pedreñan izan gara aste buka- ra pasa". Toki batera edo bestera, kamiseta eta txapela berdea soinean daramatzate elgetarrek.

#### ahobero

"Madrilgo eta Pozueloko familiek arrosarioa otoitz egingo balute, ez litzateke zapatuan gertatutakoa pasatu izango"

Antonio Maria Rouco Varela  
> Artzapezpikua

Gizon horrek zentzu bako adierazpenak egiteko zaletasuna du. Pozuelon gertatutakoa otoitz egiten konpon daitekeela uste izatea... Beste irtenbide bat bilatzen hasi beharko du.

#### iturri onetik

**Euromontana elkartearen kongresua hartuko du Arantzazuk urrian**

Euromontana elkarteak Europako mendien kanpo eragin positiboan gaineko kongresua egingo du urriaren 14tik 16ra bitartean Arantzazuk. Interesatuak [www.euromontana.org](http://www.euromontana.org) webgunean dute horren gaineko informazioa.

Euromontana mendiko lurraldeen lankidetzeta eta garapenerako sektore askotariko Europako elkartea da. Helburua da mendi biziak sustatzea.

#### piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

#### Ordizia

Urteko feria handian izan naiz asteon. Gazta lehiaketak hartzen du toki nagusia, areago aurten Mausitxa elgoibartarrak hirugarrenez irabazi duenean. Lorpen horrekin bereganatu du historian lehen aldiz Kutxaren urrezko saria, hamar urteko epean hiru bider txapeldun denari.

Sariak egoten dira egun horretan fruitu eta barazki onenentzat, baita ganadu ederren edo buru bikainenarentzat ere. Baina, sari mediatikoen atzean mundu oso bat ikus daiteke Ordizian astero, eta bereziki urtean behin. Lehen sektore bat, zailtasunen artean iraun nahian. Badaki behar direla ustiapen iraungarriak, produktu kalitatezkoak, prezio duinak eta merkatu leialak. Eta falta duela profesionaltasun koska bat, batasun koska bi eta merkatuak irabazteko hiru koska. Beraz, animo!

#### ai, ene!



**Buda itxura duten madariak egiten dituzte**

Japonian buda itxura duten madariak modan daude. Prozesua erraza da: txikiak direnean molde batean sartu eta itxura hartzen dute.

[www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)

**Carrascal aroztegia**

SUKALDERAKO ALTZARIAK  
BAINURAKO ALTZARIAK  
HORMA ARMAIRUAK  
BESTELAKO ARMAIRUAK

Ekutio 4, Pab. 14-15  
Uribarri Auzoa  
20500 Arrasate  
Tel./Faxa: 943790182  
[scarrasc\\_1@infonegocio.com](mailto:scarrasc_1@infonegocio.com)

## ESKAINNTZA

## BEREZIAK!



Sukalderako altzari eta etxetresna elektrikoak erosita 16"-ko LCD telebista opari!